

35 /2018 ZIRKULARRA, EKAINAREN 25 EKOA, ZERBITZUEN, UDAL HARREMANEN ETA LARRIALDIEN ZUZENDARITZA NAGUSIARENA. HORREN BITAREZ HEDATU DA "ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOEN GIDA PRAKTIKOA: KLAUSULA SOZIALAK, INGURUMENEKOAK ETA BESTE POLITIKA PUBLIKO BATZUEI LOTUTAKOAK TXERTATZEKO IRIZPIDEAK ETA JARRAIBIDEAK" IZENEKO AGIRI BERRIA

Sektore publikoko kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeari egokitzeko (Lege hori 2018ko martxoaren 9an jarri zen indarrean), orain dela gutxi Bizkaiko Foru Aldundiak martxoaren 13ko 33/2018 Foru Dekretua onetsi zuen. Azken horren bitartez onetsi zen klausula sozialak, ingurumenekoak eta bestelako politika publikoak Bizkaiko Foru Aldundiak egiten dituen kontratazio prozeduretan txertatzeko araubide betearazlea, eta hauek dira agiriaren berritasun nagusiak:

1.- **Printzipio berri da**, ez dagoena aurreko araubidearen barne eta Sektore publikoko kontratuen Legea araubidera aldatzen duena, hauxe: **derrigorrezkoa da** "Bizkaiko Foru Aldundiak egiten dituen kontratazio guztietan irizpide sozialak eta ingurumenekoak zeharka eta nahitaez txertatzea, betiere kontratuaren xedearekin lotura baldin badute. Hori guztia uste delako horiek txertatuta, kontratua ematean kalitatearen eta prezioaren arteko harremana hobea izango dela, eta funts publikoen erabilpena handiagoa eta eraginkortasun handiagokoa izango dela."

2.- **Kontratista aukeratzeko fasean**, aurreko araubidean adjudikazio irizpideak txertatzea hautazkoa zen, eta gainera, klausularen bat (**bat edo gehiago**) txertatzen baldin bazen, ezarrita zegoen adjudikazio irizpideak lotura izan behar zuela kontratuaren xedearekin, baina ez zegoen ezarrita nola. Araubide berrian aldiz, zehaztuta dago "kontratuaren xedearekin lotura dagoela"<sup>1</sup> kontratu hori betez (edozein alderdietan edo bizi zikloaren etapa edozein dela ere) egin behar diren prestazioei buruz ari direnean edo horiek integratzen direnean, honako prozesuetan esku hartzen duten faktoreak barne:

- a) Ekoizpenaren, prestazioaren edo merkaturatzearen prozesu espezifikoan, hau da, obrena, hornidura edo zerbitzuena, erreferentzia berezia izango dutelarik ingurumenari lotuta dauden eta sozialki iraunkorrak eta bidezkoak diren ekoizpen, prestazio eta merkaturatze formek.
- b) Bere bizi zikloaren beste etapa bateko prozesu espezifikoan, faktore horiek bere **oinarri materialaren** parte ez direnean baita ere.

Eta era berean, araubide berrian ezarrita dagoenez, "kontratuak adjudikatzeko **adjudikazio irizpide anitzak** erabiliko dira". Horrek esan nahi du edonola ere prezioa ez dela izango adjudikaziorako faktore erabakigarri bakarra, eta **adjudikazio irizpide bat baino gehiago aplikatu** beharko direla adibidez **segurtasun pribatuko zerbitzuen** kontratuetan, **eskulanetan egindako zerbitzu intentsiboen** kontratuetan edo xedea izaera intelektualeko prestazioak dituztenetan (besteak beste ingeniari eta arkitektura zerbitzuak), etab.

4.- **Kontratuaren egikaritze faserako**, gaur egungo araubidean, **derrigorrezkoa da** administrazio klausula berezien pleguan gutxienez egikaritze baldintza berezietako bat ezartzea, hain zuzen ere izaera

---

<sup>1</sup> Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2012ko maiatzaren 10eko ebazpena: "Kafe makinak". "Ezin da bereizi kafe ale bat merkataritza bidezkoa den edo ez den, baina merkataritza bidezko alea ez denak zapore mingotsa uzten du sozialki arduratsua den gizartearen ahosabaian".



sozialeko, ingurumeneko edo bestelako politika publikoei buruzkoak, eta kontratuaren barne dauden egikaritze baldintza berezi guztiak kontratuaren egikaritzean parte hartzen duten azpikontratistei eskatuko zaizkie. Aurreko araubidean hori guztia hautazkoa zen, eta azpikontratistei ez zitzairen horrelakorik eskatzen.

Era berean, araubidean txertatu dira besteak beste aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboaren berri emateko betebeharra, sektoreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaintzeko betebeharra eta subrogazioa.

5.- Kontratua indargabetzeko aukerari dagokionez (aurreko araubidean ez zegoen araututa, eta orain bai) ezarri da egikaritze baldintza bereziak betetzen ez baldin badira kontratua indargabetuko dela honako inguruabarretan:

- Pleguetan oinarrizko bezala sailkatuta dagoenean kontratuaren xedea betetzeko,
- Kontratua egikaritzean kontratistak soldatak ez dituenean ordaintzen edo
- Langileentzako indarrean dauden hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak betetzen ez direnean, kontratua egikaritzean baita ere (salbuespena izango dira langileen ordezkariak eskatu beharrekoak).

6.- Bukatzeko, xehetasun gehiagoz arautu da klausulak betetzeari buruzko jarraipena eta honako derrigortasuna gehitu da: egiaztatu egin beharko da enpresa kontratistak, eta hala badagokio azpikontratistak, plantillako langileen % 2 desgaitasuna dutenak izateko betebeharra betetzen duela plantillan 50 langile edo gehiago baldin badaude, eta 250 langile baino gehiago dituzten enpresek Berdintasunerako Plan bat izan beharko dute, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitako edukia betez.

Aukera hau ere gehitu da: *"Jasotzaile zuzenak herritarrak dituzten kontratuetan edo egikaritzean herritarren interesa izan dezaketen kontratuetan, komunikazio bide bat sortu ahal izango da eta herritarrek kontratuaren egikaritzeari buruzko iritziak eman ahal izango dituzte, kontratistak kontratuko betebeharrak zehatz-mehatz betetzen dituela ahalbidetzeko, zerbitzuaren erabiltzaileen eskubideak bermatzeko edo kontratuaren xedeaosatzen duten prestazioen kalitatea, funtzionaltasuna eta iraunkortasuna ziurtatzeko".*

Aurrekoa ezarrita, GIDA honetan eta bidalitako zirkularrean aipatutako klausula sozialak, ingurumenekoak eta bestelako politika publikoei lotutakoak txertatzeko irizpideak eta jarraibideak ezarri dira. Agiriak sarrera, 7 atal eta bi eranskin ditu:

Lehenengo atalean kontratazio prozeduraren azalpen laburra agertzen da, eta horren barne sartzten dira normalean "klausula sozialak" deiturikoak; bigarren atalean printzipioak eta gogoeta orokorrak daude, klausula adjudikazio irizpide bezala aukeratzeko edo egikaritze baldintza berezi bezala; hirugarren eta laugarren ataletan zehaztuta daude modu orokorrean kontratu araubidearekin bat eginez ez betetzeak gertatzen direnean ezarri daitezkeen zigorrak eta modu espezifikoa ezarrita dago ez betetze horien izendapena; bosgarren atalean ezarrita dago enpresa adjudikaziodunak dituen kontratu betebeharren jarraipena egiteko beharra kontratuan ezarritakoarekin bat eginez; eta bukatzeko, seigarren atalean, SPKLTBren xedapen gehigarriarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 14ko 108/2016 Foru Dekretuarekin (horren bidez aldatzen da abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duena eta Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina garatzen duena) bat eginez, ezarrita dago gorde egin behar dela

- Enpleguko Zentro Bereziak eta Laneratze enpresen araubidea arautzen duen abenduaren 13ko 44/2007 Legean araututako enpresek zenbait kontraturen adjudikazio prozeduretan edo horien lote



zehaztetako adjudikazio prozeduretan parte hartzeko duten eskubidea, betiere izaera hori izateko araubidean ezarritako baldintzak betetzen baldin badituzte, eta

- enplegu babestuko programen esparruan, kontratu horien egikaritze erreserbako gutxieneko ehunekoak. Baldintza izango da Enpleguko Zentro Bereziatan, laneratze enpresetan edo programetan lan egiten dutenen % 30<sup>2</sup> desgaitasuna duten edo gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonak izatea.

Bukatzeko, ex novo bezala txertatu da zazpigarren atala. Bertan ingurumeneko irizpideak jorratzen dira eta jarraibide espezifikoak ezarri dira horiek pleguetan jorratzeko.

Bestalde, **I. eranskinean 17** agiri daude orain (aurrekoan baino 3 gehiago), 1etik 17ra arte zenbatuta. Horien barne daude klausula sozialak, ingurumenekoak eta bestelako politika publikoei buruzkoak, guztiak ere Sektore publikoko kontratuen Lege berriari eta araubide betearazleari egokituta. Agiri bakoitza, aurreko gidan bezala, honela dago egituratuta: Adjudikazio irizpidea edo egikaritze baldintza berezia baldin bada: klausula txertatu daitekeen kontratuak, kontratuaren xedearekin lotutako klausulak, "jarraipenerako" izenburua duen atala, non kontratazio organoak izendatutako kontratuaren arduradunak egikaritu ditzakeen mekanismoak ezartzen diren klausulak betetzen direnaren jarraipena egiteko, eta kontratuaren adjudikaziodunak kontratua betetzen ez baldin badu.

**II. eranskinean**, ETE-ek eta AUTONOMOEK kontratazioan parte hartzea errazteko eta sustatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak aurrerakuntzak egin ditu aurreko gidan proposatutako aholkuak garatzean, eta horien eskemari jarraituz, horrelako aholkuak proposatu eta garatu dira besteak beste: ETE-<sup>2</sup>ei zuzendutako prestakuntza ekintzak garatzea, kontratazio urteko/urte anitzeko plana egitea; kontratuen tamaina egokitzea kontratuetan ETE-ek parte hartzea errazteko, kontratuen eta ETE-en tamainari egokitutako gaitasun eta kaudimen baldintzak ezartzea; kontratazioetan parte hartzeko beharrezko informazioa zehatza, argia eta nahikoa izatea; behin betiko bermeen kargak murriztea, kontratuetatik eratorritako fakturak 30 egunean ordaintzen direla bermatzea; eta, bukatzeko, kontratistak azpikontratistei ordainketak epeen barne egiten dizkiola bermatzeko neurriak.

Aurrekoarekin bat eginez, zirkular hau Saitetako Zerbitzu Orokor guztiei eta Sektore publiko foraleko erakundeei bidaliko zaie, eta ahalik eta gehien hedatu beharko da.

Bilbon, 2018ko ekainaren (e)(a)n.

ZERBITZUEN ETA UDAL HARREMANEN  
ZUZENDARIORDE NAGUSIA

  
Miren B. López-Urbarri Goikolea

ZERBITZUEN, UDAL HARREMANEN ETA  
LARRIALDIEN ZUZENDARI NAGUSIA

  
Jesús García Larragan

<sup>2</sup> Ehuneko hori gehitu daitekeenaren gutxienekoa da.

## ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOEN GIDA PRAKTIKOA: KLAUSULA SOZIALAK, INGURUMENEOAK ETA BESTE POLITIKA PUBLIKO BATZUEI LOTUTAKOAK GEHITZEKO IRIZPIDEAK ETA JARRAIBIDEAK

### SARRERA

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean SPKL) bidez 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora egokitu ziren, eta 2018ko martxoaren 9tik aurrera jarri ziren indarrean.

SPKLe bi helburu hauek ditu: “*Lehenik eta behin kontratazio publikoan gardentasun gehiago lortzea, eta bigarrenik, kalitatearen eta prezioaren arteko lotura hobea lortzea*”.

Lehenengo helburua ustelkeria saihestea da, eta horretarako gardentasun neurriak gehituko dira, eta bigarren helburua da kontratazio publikoa ez soilik helburu bezala jorratzea obren, zerbitzuen eta horniduren beharrak asetzeko kalitatea eta prezioari dagokionez baldintza onenetan, baizik eta “*Europa 2020 estrategia, hazkunde inteligentea, iraunkorra eta integratzailea lortzeko estrategia*” izeneko agirian zehaztutako tresna bezala jorratzea kontratazio publikoa, politika publikoen zerbitzura dagoena hain zuzen ere.<sup>1</sup>

Helburu hori lortzeko, Legean zehar kasu batzuetan derrigorrez eta besteetan aukeraz jasotzen dira etengabeko erreferentziak **irizpide sozialak, ingurumenekoak eta berrikuntzakoak** txertatzeko, baita ETE-ek kontratu publikoetan parte hartzea sustatzeko neurriak ere kontratazioen fase ezberdinetan, besteak beste **kontratuaren prezioa zehaztean eta xedea definitzean, adjudikazio irizpide eta egikaritze baldintza bezala**.

SPKLrekin behin betiko oniritzia eman da kontratazio publikoa estrategikoki erabiltzeari buruz, sektore publikoko kontratu guztietan orokorrean ezarri baita 1. artikulutik aurrera. Bertako 3. atalean haxe dago ezarrita hitzez hitz:

*“Kontratazio publiko guztietan irizpide sozialak eta ingurumenekoak zeharka eta nahitaez txertatuko dira, betiere kontratuaren xedearekin lotura baldin badute. Hori guztia uste delako horiek txertatuta, kontratua ematean kalitatearen eta prezioaren arteko lotura hobea izango dela, eta funts publikoen erabilpena handiagoa eta eraginkortasun hobea izango dela.” Era berean, enpresa txikiak eta ertainak eta ekonomia sozialeko enpresak kontratazio publikora sarbidea izatea erraztuko da.*

Agindu orokor hori berretsi egiten da SPKL osoan zehar kontratazio prozedurako fase guztietan; ikus dezagun:

- a) Kontratuaren xedea definitzean (35.1.c; 99. artikulua);
- b) Kontratatzeko debeku bezala (71.1.d.art.) 72) artikuluari dagokionez;
- c) Prezioa zehazterakoan (100., 101. eta 102.art.);
- d) Pleguak sortzean (122tik 130era arteko art.);
- e) Eskaintzak baloratzean, eta neurriz kanpokoak izan daitezkeen ebaztean (145., 147., 148. eta 149.art.);
- f) Berrikuntza modu publikoan erosteko prozedura berezia ezarriz (177tik 182ra arteko art.);
- g) Egikaritze baldintza berezi bezala ezarriz (201., 202. eta 319. art.);

---

<sup>1</sup> 2010eko martxoaren 3ko Batzordearen jakinarazpena.



- h) Indargabetze arrazoi bezala horiek ez betetzea ezarriz (212. art.); edo azpikontrastek ere horiek bete behar izatea ezarriz (215.4., 217. art. eta 51. XG).

Kontratazio publikoak orientazio estrategikoa izateko apustu hori kontratuaren egikaritze fasean bukatzen da. **Alde batetik**, SPKLren 201. artikulua bitartez kontratazio organoei kontratuak egikaritzean adjudikaziodunek ingurumenarekiko, gizartearekiko edo lanarekiko aplikatu behar diren betebeharrak betetzen dituztela bermatzeko neurriak hartzeko beharra ezartzen zaie. **Beste aldetik**, 202.1. artikulua lehenengo paragrafoan ezarrita dago “**edonola ere**” administrazio klausula berezien pleguetan gutxienez gizarteari, ingurumenari, edo berrikuntzari lotutako egikaritze baldintzaren bat ezarri behar dela. **Eskaera biak azpikontrastek ere aplikatu egingo zaizkie, 202.4. eta 215.4. artikuluen arabera.**

Aurrekoa ezarrita, ez da ahaztu behar edonola ere orokorrean kontuan hartu beharreko **lau alderdi** daudela pleguetan izaera sozial eta/edo ingurumenekoa duten irizpideak edo baldintzak gehitzerakoan. Hauek dira lau alderdi horiek:

- 1.- Kontratuaren xedearekin lotura izatea.
- 2.- Balorazio irizpide bezala aurreikuspenak dituen arazoak.
- 3.- Irizpide sozialak eta ingurumenekoak ezartzean edo baloratzean dauden mugak.
- 4.- Kontratuak egikaritzean ezinbestean kontrolatu behar dela horiek betetzea.

Dudarik gabe, politika sozial onena kalitatezko enplegua da, eta ETE-ek modu oso aktiboan egiten dizkiote ekarpenak horri, bereziki berritzaileek. Halaxe da, enpresa txikiak eta ertainak kontratu publikoetan parte hartu ahal izatea erraztea kontratu publikoetan sustatu beharreko beste helburu estrategikoetako bat da, eta horregatik, gida honetan, aurrerapauso bat eman da, eta SPKLe ETE-ek buruz jasotzen dituen berritasunak gehitu dira.

Aurrekoa ikusirik, eta ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiaren Zerbitzuen, Udal Harremanen eta Larrialdien Zerbitzu Nagusiak “*Administrazio kontratazioen gida praktikoa: Klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei lotutakoak txertatzeko irizpideak eta jarraibideak Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio prozeduretan*” izeneko agiria eguneratu du. Agiri horren helburua foru sailtako kudeatzaileen lana erraztea da mota horretako klausulak foru administrazio honetako kontratuak arautu behar dituzten administrazio klausulen pleguetan txertatzeko proposamenak egiterako orduan.

Lehenengo edizioan adierazi zen bezala: “*Gida praktikoa hau Foru Erakunde honek azken urteetan bildutako esperientziaren emaitza da eta haren bitartez hau lortu nahi da, Estatuko beste administrazio batzuen antzera: kontratazio-organoen klausula sozial horiek (zentsurik zabalenean) sartzeko prozesua modu eraginkorrean gauzatzeko jarraibideak finkatzea, lortu nahi diren helburuak kontuan hartuta eta helburu horiek lortzeko indarrak batzearren, betiere kontratazio-organoen eskuetan utzita kontratazio prozedura bakoitzean zein klausula sartu behar den zehazteko erabakia, kontratazio publikoari buruzko legeria dela bide dauden aukeren eta inguruabarren arabera*”.

Aurrekoarekin bat eginez, oraingo honetan SPKLri egokitutako GIDA eskaini dugu. Era berean, alor ezberdinetan klausula berriak txertatu dira, adibide askoz ere gehiago daude, baita Kontsulta Batzordeetako zenbait txosten eta Kontratu Errekurtsoen Auzitegietako zenbait ebazpen ere. Bukatzeko, II. ERANSKINA guztiz aldatu da. Azken horren bitartez ETE-ek eta AUTONOMOEK parte hartze handiagoa izatea sustatu nahi da, eta III. eranskin bat gehitu da. III. eranskin hori ingurumen klausulen ingurukoa da berariaz. Hala, GIDA sortzeko arrazoiak bete direnaren ziurtasuna dago, gida hauxe izateko asmoarekin sortu baitzen: Tresna erabilgarria, kontratazio publikoetako pleguetan klausulak txertatzea ahalbidetzen duena.



Bukatzeko, berriz ere adierazi behar da garrantzitsua dela klausulak betetzen direla jarraitzea, horien betetze maila aztertu ahal izateko hain zuzen ere. Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 13ko 33/2018 Foru Dekretu bidez onetsitako araubide betearazlearen 5. artikulua eta Kontratazio publikoetan zenbait klausula sozial txertatzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 7. artikulua zehazten dute kontratazio organoek klausulak betetzen direnaren jarraipena egin behar dutela kontratuaren arduradunaren bitartez. Horregatik zehaztu da GIDAn jarraipena, eta dudarik gabe klausulen ondoren txertatu behar da. Era berean, klausulak ez betetzearen ondoriozko zigorrak ezarri beharko lirateke, hori guztia berezkoa baita klausulak plęguetan txertatzeari dagokionez, AKBaren 16/2016 txostenean jasota dagoen bezala:

*“Hala, administrazio kontratatzaileak kontratuaren egikaritze faseko baldintza bereziari dagokionez hartu beharreko lehenengo neurria izango da kontrola eta jarraipena zuzenak izatea, eta horretarako, oinarritzkoa izango da kontratuaren arduraduna. Hau da, ez du ezertarako balio lizitazioaren dokumentazioan jasota egotea kontratuari lotutako langileen laneko baldintzak mantendu egin behar direla adierazten duen egikaritze baldintza berezi bat, kontratua ematerakoan horiek betetzen direla ez baldin badu administrazioak egiaztatzen eta ez baldin badira horiek ez betetzearen egongo diren ondorioak kontratuan aurreikusten”.*

Aurrekoa ezarrita, espero dugu GIDA hau, aurrekoa bezala, tresna erabilgarria eta baliozkoa izatea izaera sozialeko, ingurumeneko eta bestelako politikei lotutako klausulak txertatzeko Bizkaiko Foru Aldundiko kontratazio organoek egiten dituzten kontratu publikoen prozeduren une ezberdinetan.

## INDARREAN DAGOEN ARAUBIDEA

Hauxe da indarrean dagoen araubide esparrua:

- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea; horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen aldaketa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora moldatzeko.
- Otsailaren 26ko 2014/24/UE Zuzentaruaua, kontratazio publikoari buruzkoa<sup>2</sup>.
- Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 7ko 3/2016 Legea, kontratazio publikoan klausula sozial zehatz batzuk txertatzeari buruzkoa.
- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore publikoko kontratuen legea modu partzialean garatzen duena.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 17ko 22/2009 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduera esparruan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duena.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 13ko 33/2018 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio prozeduran klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei lotutakoak txertatzeko araubide betearazlea onesten duena.

---

<sup>2</sup> Ez da ahaztu behar 2001eko urriaren 15eko Europako Batzordeko interpretazio jakinarazpena (kontratu publikoen erkidegoko legeriari eta kontratu horietan alderdi sozialak gehitzeko aukerei buruzkoa).



## KONTRATAZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUTEN PLEGUETAN KLAUSULA SOZIALAK, INGURUMENEOAK EDO BESTELAKO POLITIKA PUBLIKOEI LOTUTAKOAK GEHITZEKO KONTRATAZIO PROZEDURAKO GERTAERA EDO UNE POSIBLEAK

SPKLren 1.3. artikuluan hauxe dago ezarrita: *“Kontratazio publiko guztietan irizpide sozialak eta ingurumeneoak zeharka eta nahitaez txertatuko dira, betiere kontratuaren xedearekin lotura baldin badute. Hori guztia uste delako horiek txertatuta kontratua ematean kalitatearen eta prezioaren arteko lotura hobea izango dela, eta funts publikoen erabilpena handiagoa eta eraginkortasun hobea izango dela.”*

Transkribatutako aginduaren arabera, aurretik adierazitako klausulak txertatzea planteatzeko prozedurako unek hauek dira:

- **Kontratuaren xedea bera definitzerako orduan<sup>3</sup>**, adibidez:
  - Udal eraikinak garbitzeko zerbitzuak kontratatzean ingurumenarekiko eta laneko osasunarekiko errespetuzkoagoak diren metodoak, praktikak eta produktuak erabiltzea. Hori guztia prozedura

---

<sup>3</sup> Aurretik adierazi den 2001eko urriaren 15eko Europako Batzordeko interpretazio jakinarazpenak (kontratu publikoen erkidegoko legeriari eta kontratu horietan alderdi sozialak gehitzeko aukerei buruzkoak) adierazten du “kontratu publiko batean alderdi sozialak gehitzeko lehenengo aukera...kontratuaren xedea aukeratzean gertatzen dela, edo sinplifikatuz, galdera hau egiten denean: zer nahi dut eraiki edo erosi administrazio publiko bezala?” Fase horretan, adjudikazio botereek aukera ona dute alderdi sozialak kontuan hartzeko eta helburu sozialekin bat datorren produktua edo zerbitzua aukeratzeko.

Aragoiko AKKBak 16/2015 txostenean adierazi zuen kontratu publiko batean alderdi sozialak gehitzeko lehenengo aukera kontratuaren xedea aukeratzeko unea dela (definizio bat izan daitekeena lortu nahi diren helburu sozial espezifikoerri errepertuz), baina hala ere aukerak aldatu egiten direla kontratu moten arabera. Hala, Kataluniako AKKBak adibidez 18/2014 txostenean hauxe adierazi zuen:

*“Eskaintzen ezinbesteko alderdietako bat enpresa kontratistaren eskulan zerbitzuak xede diren kontratuen xedea definitzeko fasean aurreikusi daiteke kontratuaren xedearen barne egotea kontratuaren egikaritzeari lotutako langileen ohitura osasuntsuak sustatzea. Hala, kontratuak ohitura osasungarriak sustatu edo bultzatzeko zenbait alderdi izan beharko ditu.*

*Egiaz, kontratuen xedea definitzerako unean gehitu daiteke egoki jotzen den osasuna sustatzeko neurria. Hala, horrek zehaztuko du sektore publikoko erakundeak, organismoak edo entitateak jaso nahi duen obraren, zerbitzuaren edo horniduraren ezaugarriak, eta erraztu egingo du kontratuak sustatu nahi duen osasun neurriaren gaineko adjudikazio irizpideak eta egikaritze baldintzak ezartzea”.*

*Hala ERE, “aukera hori ez da mugagabea, kontratu baten xedea definitzean ezin baita kontratua lortzeko aukera nazio barneko enpresei mugatu, beste estatu kide bateko lizitatzaillei edo eskubide baliokideak dituzten beste herrialde batzuetako eragileei kalte eginez, edo hautagaien edo lizitatzailleen artean diskriminazioa gertatzen baldin bada”.* (Aragoiko AKKB, 16/2015)



- irekiaren bidez, ekonomikoki onuragarriena den eskaintzarekin eta adjudikazio irizpide anitzak erabiliz.
- Langileentzako arropa hornidura kontratatzean, arropa hori laneko baldintza duinak betez sortu dutela bermatzea.
  - Klororik gabeko birziklatutako papera izateko kontratazioa.
  - Udal eraikinetako makina automatikoetan bidezko merkataritzako produktuak egoteko hornidura.
  - X auzunean espaloiak handitzeko obrak, gizarte bazterketa egoeran dauden kolektiboak lan merkatuan sartzea sustatzeko.
  - Kultur Etxean egiten diren obrak gizarte bazterketa egoeran dauden edo egoera horretan egoteko arriskuan dauden pertsonak gizartean eta lanean txertatuz egitea.
  - Etxez Etxeko Arreta Zerbitzua genero ikuspegia kontuan hartuz gauzatzea.
  - Papera hornitzea ingurumen irizpideak betez.
  - Ikastetxeetako jantoki zerbitzuan produktu freskoak eta ekologikoak egotea eta hurbiltasun zirkuituak erabiltzea.
  - Administrazio klausulen plegua etxerik ez duten pertsonen aterpearen kudeaketa kontratatzeko gizarte eta lan kalitate irizpideen bitartez.
  - *Mezularitza zerbitzuaren kontratazioa lan mundura sartzeko zailtasunak dituzten edo bazterketa egoeran dauden kolektiboak bultzatuz eta sustatuz.*
  - *Garbiketa zerbitzuaren kontratua enplegua sustatuz eta gizartean eta lanean txertatzeko prozesuak edo gizarte bazterketa prozesuak bultzatuz.*
  - *Catering zerbitzuaren kontratua bidezko merkataritzako produktuekin.*
  - *Obra kontratua egikaritzean kalitate soziala bultzatuz.*
  - *Ikastetxe publikoetako berdeguneak mantentzeko eta kontserbatzeko zerbitzuaren kontratua, gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonak gizartean eta lanean txertatzea sustatuz.*
  - *Etxebizitza zaharrak eraberritzeko obra kontratua, gizartean eta lanean txertatzeko prozesuak gauzatuz enpleguaren, prestakuntzaren eta laguntzaren bitartez.*
  - *Azpiegitura publikoak egikaritzeko obra kontratua iraunkortasun irizpideekin.*
- **Kontratista aukeratzeko unean.** Pleguetan kontratistak aukeratzeko irizpideak aurreikusi daitezke. Irizpide horiek alderdi sozialei, ingurumenekoei edo bestelako politika publikoei lotutakoak izango dira, eta **lizitatzailaren gaitasun teknikoa egiaztatzea ahalbidetuko dute.**

*Kontratu publikoen erkidegoko legeriari eta kontratu horietan alderdi sozialak gehitzeko aukerei buruzko EB Jakinarazpenean (COM (2001) 566 azkena), hauxe dago jasota:*

*“Kontratuan alderdi sozialeko gaitasun espezifikokoak egotea beharrezkoa baldin bada, bidezkoa da esperientzia zehatz bat eskatzea hautagaien kaudimena egiaztatzeko gaitasun eta ezagutza irizpide bezala”.*

*Hala ere, gaitasun teknikoa eta profesionala<sup>4</sup> egiaztatu beharko dira bakarrik **objektiboa, neurritsua eta arrazoizkoa denean**, kontratuaren izaerarekin eta edukiarekin bat eginez, hau da, esperientzia eta ingurumeneko edo gizarteko ezagutza teknikoak guztiz beharrezkoak direnean kontratua egikaritzeko.*

---

<sup>4</sup> TXOSTENA: Estatuko Administrazio Kontratazioko Batzordeak 11/1999 eta 42/2006 txostenetan jakinarazi zuen kaudimen irizpide bezala ezin direla gehitu laneko arriskuen prebentzioari buruzko istripu kopuruaren indizea kontuan hartzen duten klausulak, ezta kaudimen irizpide eta adjudikazio irizpide bezala ere.





- **Kontratuaren adjudikazio irizpideak ezartzerako unean.** Orokorrean, irizpide sozialei, ingurumenekoei eta bestelako politika publikoei aplikatu beharreko adjudikazio irizpideek honako 4 baldintzak bete beharko dituzte:

1. Kontratuaren xedearekin lotura izan beharko dute.
2. Espezifikoak eta objektiboki neurgarriak izan beharko dira.
3. Aurretiaz argitaratu beharko dira.
4. Erkidegoko Zuzenbidea errespetatu beharko dute, bereziki diskriminazio ezaren printzipioa, eta korrelatu bezala, zerbitzuak modu librean ematea eta ezartzea.

- **Kontratua egikaritzeko unean edo fasean,** egikaritze baldintza bereziak gehituz.

- Saihestu egin beharko dira egiaz zehaztaperen teknikoak, aukeraketa irizpideak edo ezkutuko adjudikazio irizpideak direnak.
- Klausula horietan ingurumen alderdiak eta alderdi sozialak gehitu ahal izango dira, betiere kontratuaren iragarkian edo zehaztaperetan argitaratzen baldin badira eta erkidegoko zuzenbide printzipioak betetzen baldin badituzte.
- Derrigorrezko klausulak izango dira, eta betetzen ez badira zehapenak jarriko dira (zehapen horiek pleguetan araututa egon beharko dira).


Ez da ahaztu behar izaera sozialeko, ingurumeneko edo bestelako politika publikoei lotutako klausulak gehitzeko egokiena den prozedura unea aukeratzeko orduan<sup>5</sup> kasu konkretu bakoitzean **kontratuaren xedea** eta kontratuarekin lotura duten eta ezarri nahi diren politika publikoak kontuan hartu beharko direla.

---

<sup>5</sup> "Kontratuaren egikaritze baldintzek, SPKLTBen egikaritze baldintza bereziak izendatuek, helburu dute egikaritzeari lotutako baldintza bereziak ezartzea, eta hala, adjudikazio irizpideekin gertatzen ez den bezala (horiek eskaintzen kalitateari buruzko konparazio ebaluazioa egiteko oinarria ezartzen dute) kontratu baten egikaritzak baldintza objektibo finkoak dira, eskaintzen ebaluazioan eraginik ez dutenak".  
Aragoiko AKKB, 14/2015 txostena.



Modu eskematikoan ikusi daitezke prozedura une guztiak:



Egikaritze baldintzek hauek jorratzen dituzte: "kontratuaren adjudikazioaren hurrengo aldia, adjudikaziodunari eskatuz zenbait baldintza betetzeko kontratuaren xede diren zerbitzuak ematen dituenean, betiere eragin diskriminatzaile zuzenik edo zeharkakorik ez baldin badute eragile ekonomikoari dagokienez". Aragoiko AKKB, 14/2015 eta 16/2015 txostenak.

"Egikaritze baldintza bezala aurreikusi daiteke (jada indarrean dagoen araubide juridikoarekin bat eginez) egokitzat jotzen diren jarduerak edo jarduketak gauzatzeko enpresa kontratistek duten betebeharra, eta hori guztia kontratuaren egikaritzeari atxikitako pertsonen eta/edo kontratuaren xedea osatzen duten produktuen edo zerbitzuen ekoizpen prozesuan parte hartzen duten pertsonen osasuna sustatzea eta babestea errazteko". Kataluniako AKKB, 18/2014.



## I.- KLAUSULA SOZIALA, INGURUMENEOA EDO BESTELAKO POLITIKA PUBLIKOEI LOTUTAKOA AUKERATZERAKO ORDUAN KONTUAN HARTU BEHAR DIREN PRINTZIOIOAK

### a) Klausularen xedea<sup>6</sup>

Gida hau interpretatu eta aplikatzeko ondorioekin, kontratazio prozeduretan gehitu ahal izango den klausularen xedeak honakoak izan ahalko dira:

- Lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen enplegua sustatzea,
- langabeziari aurre egitea
- gizarte bazterketa egoeran dauden edo egoera horretan egoteko arriskuan dauden pertsonak gizartean eta lanean txertatzea erraztea,
- oinarrizko lan eskubideak errespetatzen direla bermatzea,
- enpleguaren kalitatea sustatzea,
- laneko segurtasuna eta osasuna sustatzea,
- ingurumena babestea,
- ingurua errespetatzen duten ekoizpen sistemak sustatzea,
- herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea,
- eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra sustatzea.

Irizpideak kontratuatan txertatzeko proposamena egingo dute baldintza teknikoen pleguak eta/edo administrazio klausula berezien pleguak idazten dituztenek, eta irizpideok ahalik eta kontratu gehienetan txertatzea izango dute helburu.

Kontratazio prozeduretako administrazio klausula berezien pleguetan eta hala dagokionean baldintza teknikoen pleguetan izaera sozialeko, ingurumeneko eta bestelako politika publikoei lotutako klausula zehatzak egongo dira, eta horiek **aplikatu egin beharko dira adjudikazio prozesuan eta kontratuaren xedea egikaritzean**. Hori guztia Sektore publikoko kontratuen urriaren 19ko 9/2017 Legearekin, Kontratazioan klausula sozial zehatz batzuk gehitzeko apirilaren 7ko 3/2016 EAEko Legearekin eta gida honetan aurreikusitako irizpideekin bat eginez.

Era berean, **lizitazio iragarkian** eta administrazio klausula berezien pleguetako azalean azpialat bat edo gehiago jarri beharko dira, eta horietan adierazi beharko da kontratazio horrek gida honetan zehaztutako baldintza

---

<sup>6</sup>“... Adibidez, bidezko merkataritzako eta erosketako publiko etikoko irizpideak dituen xedearen kasuan ez da zaila modu egokian eta botere adjudikatzaileri aintzatetsitako askatasunaren esparruaren barnean kontratuaren xedea honela definituta duten lizitazioak aurkitzea: «Vending makinak zerbitzuak bidezko merkataritzako kafearekin, tearekin eta azukrearekin», «Horniduran merkataritza ekitatiboko produktuak dituzten catering zerbitzuak», etab. Beste adibide batzuk, besteak beste txostenaren eskarian adierazitakoak «XXXX zerbitzua, X kolektiboaren gizarte eta laneko txertaketa programak garatzen dituena», edo «xxx kontratuaren eta generoari buruzko ekintza positiboak garatzean xedea da», kontratuen xedean gizartearen ardurak modu formalean gehituta dituzte, baina egiaz horiek egikaritzean Administrazio Klausula Berezien Pleguetan baldintza berezi bezala jasoko diren betebeharren aurrerapena dira”.

Aragoiko AKKB, 16/2015 txostena.



sozialak, ingurumenekoak eta bestelako politika publiko batzuei lotutakoak bete beharko dituela. **Hori guztia SPKLren 145. eta 202. artikuluekin bat eginez.**

**b) Printzipio informatzaileak**

- a) Klausula sozialak, ingurumenekoak edo bestelako politika publikoei lotutakoak gehitzean bete egin beharko dira Europar Batasunak kontratazio publikoari buruz duen araubideko oinarriko printzipioak eta gainerako ordenamendu juridikoa. Hau da, klausulak gehitzean gorde egin beharko dira prozeduren lehiakortasun printzipioak, lizitazioetan parte hartzeko askatasuna, publizitatea eta gardentasuna, eta hautagaiak ez diskriminatzeko eta berdín tratatzeko printzipioak. Kanpo geratu dira berariaz enpresa lizitatzailaren lurraldetasuna edo nazionalitate irizpideak kontuan hartuz gehitu diren klausulak.

Berdintasun, diskriminazio ezaren eta gardentasun printzipioek adjudikazio irizpideak objektiboak izatea eskatzen dute, eta horrek bermatu egiten du eskaintzak erkatu eta ebaluatzean modu eraginkorrean jardungo dela, eta beraz, bete egingo direla lehiakortasun eraginkorreko baldintzak.

Printzipio horien arabera, kontratazio organoak adjudikazio prozeduraren fase guztietan kontratu publikoa izan beharko du.

- b) Kontratuaren klausulak eta xedekak lotura izan beharko dute. Adjudikazio irizpideak kontratuaren xedekin lotura du kontratu hori betez (edozein alderdietan edo bizi zikloaren etapa edozein dela ere) egin behar diren prestazioei buruz ari denean edo horiek integratzen direnean, honako prozesuetan esku hartzen duten faktoreak barne:

- 1.- Ekoizpenaren, prestazioaren edo merkaturatzearen prozesu espezifikoan (hau da, obrena, hornidura edo zerbitzuena), erreferentzia berezia izango dutelarik ingurumenari lotuta dauden eta sozialki iraunkorrak eta bidezkoak diren ekoizpen, prestazio eta merkaturatze moduek.
- 2.- edo bere bizi zikloaren beste etapa bateko prozesu espezifikoan, faktore horiek bere oinarri materialaren parte ez direnean baita ere.

- c) **Neurritasuna egon beharko da** klausula sozialaren, ingurumenekoaren edo bestelako politika publikoei lotutakoaren eta kontratuaren xedeen artean. Horretarako, klausularen definizioa kontratuaren xedera, zenbatekora, iraupenera, kontratua garatzen den jarduera sektorerara, helburura, izaerara eta kontratu bakoitzaren edukira egokitu beharko da.

## II.- XEDAPEN OROKORRAK

### A) ENPRESA KONTRATISTA AUKERATZEKO FASEAN GEHITZEA KLAUSULAK

#### Kontsiderazio orokorrak



1. Ahal den heinean, administrazio klausula berezien pleguetan kalitatea eta prezioaren arteko lotura onena oinarri hartuta adjudikazio irizpide bat edo gehiago egongo dira, eta irizpide horiek kontratuaren xedearekin lotutako alderdi sozialak, ingurumenekoak edo bestelako politika publikoei lotutakoak baloratuko dituzte.

Kalitatearen eta prezioaren arteko lotura onena ebaluatzeko irizpide ekonomikoak eta kualitatiboak kontuan hartuko dira. Kalitatearen eta prezioaren arteko lotura onena ebaluatzeko kontratazio organoak ezartzen dituen irizpide kualitatiboen barne egon ahal izango dira ingurumen alderdiak edo alderdi sozialak. Azken horiek kontratuaren xedearekin lotura izango dute, eta hauek izan ahalko dira besteak beste:

1. Kalitatea. Horren barne egongo dira balio teknikoa, ezaugarri estetikoak eta funtzionalak, irisgarritasuna, diseinu unibertsala edo erabiltzaile guztientzako diseinua, ezaugarri sozialak, ingurumenekoak eta berritzaileak eta merkaturatzea eta horren baldintzak;

**Ingurumen ezaugarriak** izango dira besteak beste berotegi efektuko gasen emititze maila gutxitzea, aurrezpen eta eraginkortasun energetikoko neurriak erabiltzea, kontratua egikaritzean iturri berriztagarrietako energia erabiltzea, eta kontratua egikaritzean eraginak jasan ditzaketen baliabide naturalak mantentzea edo hobetzea.

Kontratuaren **ezaugarri sozialek**, besteak beste helburu hauek izango dituzte: Kontratua egikaritzeko esleitutako enpresen artean desgaitasuna eta aniztasun funtzionala duten pertsonak, egoera ahulean dauden pertsonak edo talde zaurgarrietan dauden pertsonak gizartean integratzea sustatzeko helburuak, eta orokorrean aniztasun funtzionala dutenak edo gizarte bazterketa egoeran daudenak edo egoera horretan egoteko arriskuan daudenak gizartean eta lanean txertatzeko helburuak; Enpleguko Zentro Bereziekin edo Laneratze Enpresekin azpikontratazioak egitea; kontratua egikaritzean aplikatzen diren genero berdintasunerako planak, eta orokorrean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna; emakumeak kontratatzea sustatzea; laneko bizitza, bizitza pribatua eta familiako bizitza kontziliatzea; enpleguan egonkortasuna egotea; kontratua egikaritzean ahalik eta langile gehien kontratatzea; prestakuntza, osasuna eta segurtasuna babestea lanean; kontratuaren prestazioan irizpide etikoak eta erantzukizun sozialekoak aplikatzea; edo kontratua egikaritzean bidezko merkataritzan oinarritutako produktuak hornitzea edo erabiltzeari buruzko irizpideak.

2. Kontratua egikaritzeko duten langileen **antolamendua, kualifikazioa eta esperientzia**, betiere langile horien kalitateak eragin handiak sortu ditzakeenean kontratua hobeto egikaritzeko.

3. Salmenta ondorengo zerbitzua, laguntza teknikoa eta entregatzeko baldintzak, besteak beste entregatzea gauzatzeko azken eguna, entregatzeko prozedura, entregatzeko epea edo egikaritzekoa eta horniduraren berraldaketari eta segurtasunari lotutako konpromisoak.

**Irizpide kualitatiboekin batera kostuekin lotutako irizpidea** egon beharko da. Azken hori, kontratazio organoak hala aukeratuta, prezioa ero errentagarritasunean oinarritutako planteamendu bat izan ahalko da, besteak beste bizi zikloaren kostua, SPKLren 148. artikuluan zehaztutakoarekin bat eginez kalkulaturakoa.

2. Aurreko atalean aipatutako adjudikazio irizpideak kontuan hartuko dira Bizkaiko Foru Aldundiak lizitatu beharreko kontratazioetan, kontratu txikiak salbuetsiz, betiere kontratuaren ezaugarriek ahalbidetzen dutenean.



3. Lizitatzailleak kontratazio organoak ezarritako adjudikazio irizpideekin lotutako alderdi sozialak proposamen teknikoan gehitzean, horiek kontratuaren edukiaren barne geratuko dira, kontratuaren betebeharretakoa bat baita.
4. Kalitate, ingurumen kudeaketa, lanean segurtasuna eta osasuna kudeatzeko eta erantzukizun sozial korporatiboko ziurtagiriak kaudimena egiaztatzekeo baliabideak dira, eta **ezin izango dira erabili adjudikazio irizpide bezala.**
5. Adjudikazio irizpide bat baino gehiago aplikatzea kontratu hauen adjudikazioan gauzatuko da:
  - a) Aurretiaz ezarri ezin izan diren **proiektuak edo aurrekontuak** dituztenak eta **lizitatzailleak aurkeztu behar dituztenak.**
  - b) Kontratazio organoak uste duenean prestazioaren definizioa hobetu egin daitekeela beste irtenbide batzuekin edo egikaritze epeak murriztuz.
  - c) Egikaritzeko organo edo erakunde kontratatzaileak materialak edo baliabide laguntzaileak eman dituzten kontratuak, eta horiek ondo erabiltzeko kontratistek berme bereziak izan behar dituztenean.
  - d) **Berariaz aurreratua den teknologia erabiltzea behar duten kontratuak** edo egikaritzea bereziki konplexua dutenak.
  - e) **Obra edo zerbitzu emakida kontratuak.**
  - f) **Hornidura kontratuak**, jaso beharreko produktuak modu perfektuan definituta daudenean salbu, eta ez denean posible emate epeak aldatzea eta kontratuan inolako aldaketarik egitea. Hala, prezioa faktore erabakigarri bakarra izango da adjudikaziorako.
  - g) **Zerbitzu kontratuak**, prestazioak modu perfektuan teknikoki definituta daudenean salbu, eta ez denean posible emate epeak aldatzea eta kontratuan inolako aldaketarik egitea. Hala, prezioa faktore erabakigarri bakarra izango da adjudikaziorako.

Edonola ere, izaera intelektualeko xedea duten zerbitzu kontratuetan <sup>7</sup>, besteak beste ingeniariaritz eta arkitektura zerbitzuak, eta kontratua egikaritzeko pertsonen artean gizarte egoera ahulean dauden edo talde zaurgarrien barne dauden pertsonen gizarteratzea sustatzen duten gizarte zerbitzuak emateko kontratuetan, lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituztenen enplegua sustatzen baldin bada edo SPKLren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarriak adierazitako gizarte, osasun edo hezkuntza zerbitzuak emateko kontratuetan edo eskulanekeo zerbitzu intentsibokoetan, prezioa ezin izango da izan adjudikaziorako faktore erabakigarri bakarra. Era berean, segurtasun pribatuko zerbitzu kontratuetan adjudikazio irizpide bat baino gehiago aplikatu beharko dira.

---

<sup>7</sup> SPKLren 41. Xedapen gehigarrian zehaztuta dago hau: "Legean jasotako aurreikuspenetatik eratorritako ondorioekin, izaera intelektualeko prestazioen izaera izango dute arkitektura, ingeniariaritz, aholkularitz eta hirigintza zerbitzuek".



- h) **Egikaritzean ingurumenean inpaktu nabarmena izan dezaketen kontratuak.** Kontratu horiek adjudikatzean neurtu daitezkeen ingurumen baldintzak baloratuko dira, besteak beste ingurumen inpaktu baxuena, ura, energia eta materialak aurrezte eta eraginkortasunez erabiltzea, bizi zikloaren ingurumen kostua, ekoizpen prozedura eta metodo ekologikoak, hondakinak sortzea eta kudeatzea edo material birziklatuak, berriz ere erabilitakoak edo material ekologikoz eginak erabiltzea.

**Adjudikazio irizpide sozialak, ingurumenekoak edo bestelakoak aukeratzea eta neurtzea:**

1. Adjudikazio irizpideek baloratutako alderdiak zehaztasunez adieraziko dira, eta balorazioa modu objektiboan egingo da. Hala, lizitatuak guztiek baloratu beharreko alderdiak berdintasunean ezagutuko dituzte eta adjudikazio irizpidea eta balorazio modua homogeneouski interpretatuko dituzte.

Adjudikazio irizpideak kontratazio publikoa arautzen duten tratu berdintasuneko, diskriminazio ezeko eta neurritasun eta gardentasuneko printzipioekin bat eginez adieraziko dira.

2. Aukeratutako adjudikazio irizpideak edo irizpideek baloratu daitezkeen alderdi bat edo gehiago izan ahalko dituzte, aurreko atalean xedatutakoarekin bat etorritik.
3. Atal honetan adierazitako adjudikazio irizpideek **gutxienezko % 10eko neurritasuna izango dute**. Obra kontratuetako gutxienezko neurritasuna guztizko puntuazioaren % 5 izango da.

Kontratazio organoak salbuespenez eta kontratuaren ezaugarriak kontuan hartuta, horiek gizarte eta ingurumenaren adjudikazio irizpideak ala beste batzuk sartzeko egokiak ez direla erabaki dezakete. Bestela, aurreko atalean aurrez ikusitako gutxienezkoak baino haztapen txikiagoa eman diezaiekete. Horrelakoetan, txosten arrazoituaren bidez egokitasunik eza justifikatu da eta espedienteari erantsiko zaio.

4. Kontratazio organoak eskaintza ukatuko du egiaztatzen baldin badu ohikoa ez den bezala baxua dela **ingurumen, gizarte edo lan** alorretan aplikatu beharreko betebeharrak ez betetzearren. Hori guztia Erkidegoko zuzenbidean, nazio mailako zuzenbidean, indarrean dauden sektore hitzarmen kolektiboetan edo nazioarteko zuzenbideko ingurumen, gizarte eta lan xedapenetan zehaztutakoaren arabera. Ukatzeko beste arrazoi bat izango da azpikontratazioari buruzko araubidea ez betetzea. Aurrekoaren ildoari jarraituz, **neurritz kanpokotzat edo ezohikotzat jo daitezkeen proposamenen bat**



**identifikatzen denean**, hura aurkeztu duen lizitatuazileari entzunaldia eman beharko zaio, eskaintzaren balorazioa justifikatu eta haren baldintzak azaldu ditzan, honako inguruabar hauek bereziki zehaztuz: kontratua gauzatzeko prozedurak dakarren aurrezpena, lizitatuazileak prestazioa gauzatzeko dauzkan baldintza guztiz onuragarriak, proposatutako prestazioen originaltasuna, prestazioa egingo den lekuan indarrean dauden enplegu babesari buruzko xedapenen eta lan baldintzen errespetua edo Estatuaren laguntza bat jasotzeko aukera.

Edonola ere, justifikatu gabetzat joko da eskaintzetan ezohiko balioak edo neurririk gabekoak daudenean egindako jaitziera, eta beraz, eskaintza kanporatu egingo da egiaztatzen baldin bada langileen orduko soldata aplikatu beharreko indarrean dagoen sektore hitzarmen kolektiboan jasotakoa baino baxuagoa dela.

5. Halaber, beren beregi eskatuko zaio justifika dezala, eskaintzen dituen produktuak edo zerbitzuak egitean, bete egin dituela EBen edo, beste herrialde batzuetako produktuak direnean, EBek izenpeturiko nazioarteko hitzarmenetan indarrean dauden xedapenak, baita honako hau ere kontratua gauzatzean: Espainiako lanaren, gizarte segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloko araudia bete dezala, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboaren ondoriozkoa barne, egikaritze materialean jardungo duten langile guztiei dagokienez (bereak edo azpikontratek jarritakoak), SPKLren 201. artikularekin bat eginez.
6. Adjudikazio irizpideak aplikatu ondoren eskaintza biren edo gehiagoren artean berdinketa gertatzen baldin bada, hurrengo epigrafeetan adierazitako berdinketak hausteko adjudikazio irizpide espezifikoak aplikatuko dira.

Atal honetan aipatutakoarekin bat berdinketa hausteko irizpideei dagokienez, <sup>8</sup>egiaztatzeko dokumentazioa lizitatuazileek berdinketa gertatzen denean aurkeztuko dute, baina ez alde zuzenetik. Dena den, baldintzak betetzen direla antzemateko une erabakigarria proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean izango da. Berdinketa gertatu eta Foru Aldundiak hala eskatuz gero, aurkeztuko duen dokumentazioari buruz lizitatuazileak erantzukizunpeko adierazpena egingo du (2. ERANSKINA):

---

<sup>8</sup> "Adjudikazio irizpide osagarri bezala ezarri daiteke (indarrean dagoen araubide juridikoarekin bat eginez) lehentasuna izango dutela kontratuak adjudikatzean langileentzat laneko arriskuak prebenitzeko neurri osagarriak edo legez ezarritakoak baino gehiagokoak edo ohitura osasuntsuak sustatzeko neurriak edo garapen pertsonala sustatzeko neurriak eskaintzen dituzten enpresen proposamenek, betiere aipatutako proposamenak adjudikaziorako oinarri diren irizpideak kontuan hartuz eskaintza onenaren pare baldin badaude, indarrean dagoen araudiarekin bat eginez".

Kataluniako AKKB, 18/2014.

"SPKLTBren laugarren xedapen gehigarrian ez dago berdinketa hausteko irizpide bakarra, eta bertan ez dira zehazten ezta ere laguntzaz aplikatzen doazen antolatutako irizpideak. Aldiz, aukerak dira, kontratazio organoaren esku geratzen direnak. Gainera, eraginkortasun praktikoa zalantzan duten aurreikuspenak dira, ekonomikoko onuragarriena den eskaintza zehazteko orduan berdinketa egotea gertatzea zaila baita, eta horien aplikazioa egoera horri mugatuta edo baldintzatuta baitago.

Aragoiko AKKB, 16/2015 txostena.





**Lehenik eta behin**, desgaitasuna duten langileei dagokionez, plantillan araubideak ezarritako ehuneko baina (% 2) gehiago dituen enpresak aurkeztutako proposamena lehenetsiko da.

Proposamen onuragarriari dagokionez berdinketa egon bada, enpresa lizitatuak horiek egiaztatzen badute desgaitasuna duten pertsonekin araubideak ezarritako %2tik gorako neurrian lan harremana dutela, kontratua adjudikatzerakoan lehentasuna izango du plantillan desgaitasuna duten langile finkoen ehuneko handiena duen enpresak.

**Bigarrenik**, lehenetsi egingo dira Laneratze enpresen araubidea zehazteko abenduaren 13ko 44/2007 Legean araututako laneratze enpresek aurkeztutako proposamenak, izendapen hori izateko araubidean zehaztutako baldintzak betetzen dituztenek alegia.

**Hirugarrenik**, lehentasuna izango dute plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duten enpresek aurkeztutako proposamenek.

**Laugarrenik**, lehentasuna izango dute plantillan emakumeen ehuneko kopuru handienak dituzten enpresek aurkeztutako proposamenek.

**Bosgarrenik**, lehentasuna izango dute adjudikazio irizpidean puntuazio altuena jasotzen duten enpresek aurkeztutako proposamenek neurketan pisu gehiago izatean, eta berdintasunak jarraituko balu, irizpide bakoitzari egotzitako garrantzia ordena hartuko da kontuan.

**Bukatzeko**, aurreko irizpideak aplikatuz berdinketak jarraituko balu, zozketa bidez ebaztuko da.

#### 6.1.-Izaera sozialeko prestazioetako berdinketa hauste irizpideak

Izaera soziala edo laguntzazkoa duten prestazioak emateko kontratuetan, lehentasuna izango dute **lehenik eta behin** irabazi asmorik gabeko erakundeek aurkeztutako proposamenek, izaera juridikoa dutenek, betiere helburuak edo jarduerak harreman zuzena baldin badu kontratuaren xedearekin, estatutuetan edo fundazioko araubideetan ezarritakoaren arabera, eta erakundeok dagokion erregistro ofizialean izena emanda baldin badaude.

**Bigarrenik**, 6. puntuaren xedatu diren berdinketak hausteko irizpideak aplikatuko dira.

#### 6.2.-Berdinketak hausteko irizpideak bidezko merkataritzako produktuetan

Bidezko merkataritzako produktuen aukerak dauden kontratuetan, lehentasuna izango dute **lehenik eta behin** Bidezko Merkataritza Erakunde bezala aintzatetsita dauden erakundeek aurkeztutako proposamenek.

**Bigarrenik**, 6. puntuaren xedatu diren berdinketak hausteko irizpideak aplikatuko dira.

#### Berdinketak hausteko irizpideen egiaztaketa dokumentazioa.

Berdinketak hausteko irizpideak egiaztatzeko dokumentazioa hauxe izan ahalko da:

- a) **Desgaitasuna duten langileen ehuneko baxuena eta plantillan emakume gehien dituen enpresaren ehuneko altuena** horretarako emandako ziurtagiriaren bidez edo dagokion inguruabarrari buruzko dokumentazioaren bidez egiaztatu beharko dira.
- b) **Laneratze enpresak**- Laneratze enpresei dagokienez, baldintza hori egiaztatzeko emandako ziurtagiria edo dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dira.
- c) **Irabazi asmorik gabeko erakundeak**- Irabazi asmorik gabeko erakundeek, izaera juridiko propioa dutenek (helburuak edo jarduerak kontratuaren xedearekin harreman zuzena baldin badu eta kontratua izaera sozial edo laguntzaileko prestazioek osatzen baldin badute), inguruabar hori egiaztatu beharko dute dagokion erregistro ofizialean izena emandako estatutuen edo fundazio arauen bitartez.
- d) **Bidezko merkataritza**- Bidezko Merkataritzako Erakundeak bezala aintzatetsitako erakundeek, xede bezala irtenbide hori jasota dagoen produktuak dituzten kontratuetan, izendapen hori egiaztatu beharko dute horretarako ziurtagiria aurkeztuz.



## Egiaztapena eta jarraipena

Irabazi asmorik gabeko erakundeek aurkeztutako proposamenek lehenetsuna duten izaera sozial edo laguntzako prestazioen kontratuei dagokionez, kontratuaren arduradunak erakunde horiei eskatu ahal izango die eskaintako prezioa kostuen arabera banatuta xehetasunez adierazteko.

## Hobekuntzak edo aldaerak

Kontratazio organoak izaera sozialeko, ingurumeneko edo bestelako politika publikoei lotutako alderdiei buruzko hobekuntzak edo/eta aldaerak kontuan hartu ahal izango ditu, lizitatuzaileek eskaintakoak hain zuzen ere eta kontratuaren xedearekin lotura dutenak, Sektore publikoko kontratuen Legearekin bat eginez.

Administrazio klausulen pleguan berariaz adierazi beharko da proposamen teknikoetan izaera sozialeko edo ingurumeneko proposamen teknikoen aldaerak edo/eta hobekuntzak gehitzeko aukera dagoela, eta zehaztu egin beharko da horien aurkezpena zein elementuetan eta baldintzetan baimenduta egongo den.

Era berean, lizitazio iragarkian ere adierazi egin beharko da zein elementutan egongo diren baimenduta aldaerak edo/eta hobekuntzak, eta zein baldintzetan egongo den baimenduta horien aurkezpena.

## Betebeharrak ez betetzea<sup>9</sup>

Lizitatuzailearen proposamenean jasotako izaera sozial edo ingurumenekoei lotutako konpromisoak edo hobekuntza edo aldaerei lotutako konpromisoak betetzen ez baldin badira, kontratua indargabetuko da **konpromiso horiek ezinbestekoak direnean**, SPKLren 211 f) artikuluan xedatutakoarekin bat eginez edo aipatutako arauaren 192. artikuluan aurreikusitako zehapena ezarriko da, eta zehapen bakoitzaren zenbatekoa ezin izango da kontratuaren prezioaren % 10 baino gehiagokoa izan (BEZ kanpo), eta zenbatekoen guztizkoak era berean ezin izango du kontratuaren prezioaren % 50 gainditu.

---

### <sup>9</sup> Administrazio Kontratazioaren Kontsulta Batzordearen 2012ko uztailaren 17ko 63/11 txostena:

*"Azaldutakoagatik, Administrazio Kontratazioaren Kontsulta Batzordeak hauxe ondorioztatu du: 1. SPKLTBren 223, f) eta 224. artikuluetan xedatutakoarekin bat eginez, kontratuan aurreikusitako betebeharrak bat oinarritzat izateko bi baldintza bete behar dira. Lehenengoa, halaxe ezarrita egotea berariaz, eta bigarrena halaxe jasota egotea kontratuaren pleguan. Administrazio klausula berezien pleguan kontratuko betebeharrak bat oinarritzat jotzen ez bada, hori ez betetzea ez da izango administrazio publikoak aukeraz kontratua indargabetzea justifikatzen duen arrazoi bat, SPKLTBren 223, f) eta 224. artikuluekin bat eginez, agindu horiek, APKLren Araubide Orokorren 67.2.p) artikuluekin batera, eskatzen dutelako horiek ez betetzea kontratua indargabetzeko arrazoi izateko kontratuaren betebeharrak oinarritzat jasota egon behar direla pleguan edo kontratuan.*

*Ez da onargarria administrazio publikoak hautazko moduan kontratua indargabetzeko arrazoiak izatea edozein betebeharrak ez betetzea, eta beraz, kontratazio organoak SPKLTBren 223 h) artikuluan jasotako legezko xedapenak neurritik erabili behar ditu, eta ondorioz, pleguan eta kontratuan aukerazko indargabetzeko zehapena ondorio duten betebeharrak ez betetzearen kontratuaren betebeharren zerrenda zehatza, argia eta zalantzarik gabekoa egin beharko da, eta gainera, egiaztatu egin beharko da izendatzen diren betebeharrak oinarritzat ez diren arren nahikoa garrantzitsuak direla kontratuaren errealitatearekin bat eginez kontratua indargabetzea posible egiteko, hau da, ez dira garrantzirik gabeko betebeharrak edo betebeharrak txikiak.*



## B) KLAUSULAK EGIKARITZE FASEAN GEHITZEA<sup>10</sup>

### Kontsiderazio orokorrak

Kontratazio organoek baldintza bereziak ezarri ahal izango dituzte kontratuaren egikaritzeari dagokionez, betiere kontratuaren xedearekin lotura baldin badute SPKLren 145.6. artikulua arabera, zuzenean edo zeharka diskriminatzaileak ez baldin badira, erkidegoko zuzenbidearekin bateragarriak baldin badira eta lizitazio iragarkian eta pleguetan adierazita baldin badaude.

**Edonola ere, administrazio klausula berezien pleguetan derrigorrez ezarri beharko da gutxienez** hurrengo atalean zehaztutako egikaritze baldintza berezietako bat, GIDAn zehar garatzen direnak hain zuzen ere:

- **Ingurumenari lotutako gogoetak, helburu hauek dituztenak:** Berotegi efektuko gasen emisioa murriztea Ekonomia Iraunkorreko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 88. artikuluan zehaztutako helburua betez; kontratua egikaritzean eraginak jasan ditzaketen ingurumen balioak mantentzea edo hobetzea; ura modu iraunkorragoan kudeatzea; energia berriztagarriak erabiltzea sustatzea; produktuak birziklatzea sustatzea eta berrerabilgarriak diren ontziak erabiltzea; produktuak soltean entregatzea sustatzea eta ekoizpen ekologikoa sustatzea.
- **Gogoeta sozialak edo enpleguari buruzkoak honako helburuekin gehitu ahal izango dira, besteak beste:** Desgaitasuna duten pertsonen buruz Nazio Batuen Bileran aintzatetsitako eskubideak eraginkor egitea; nazio mailako legeriak eskatutako desgaitasun maila gainditzen duten pertsona batzuk kontratatzea; lan merkatuan txertatzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegua sustatzea, bereziki desgaitasuna dutenak edo gizarte bazterketa egoeran daudenak edo egoera horretan egoteko arriskuan daudenak Laneratze Enpresen bitartez; merkatu horretan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak deuseztatzea, lanean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna egotea sustatzen duten neurriak aplikatzea erraztuz; emakumeak lan merkatuan parte hartze gehiago izatea erraztea eta lana eta familiako bitzta kontziliatzea erraztea; langabeziari aurre egitea, bereziki gazteen arteko langabeziari, emakumei eragiten dienari eta epe luzeko langabeziari; laneko lekuko prestakuntza erraztea; laneko lekuan segurtasuna eta osasunaren babesa bermatzea eta aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo sektorialak eta lurraldekoak babestea; laneko ezbehar kopurua prebenitzeko neurriak; enplegurako koordinatutako estrategiari erreferentzia eginez ezartzen diren gainerako helburuak, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 145. artikuluan definitutakoak; edo ekoizpen katean zehar oinarritzko lan eskubideak errespetatzen direla bermatzea Laneko Nazioarteko Erakundearen oinarritzko konbentzioak betetzeko eskatuz, garapen bidean dauden herrialdeetako ekoizle txikiei onurak sortzea helburu dutenak barne, zeintzuekin onuragarriak diren merkataritza harremanak mantentzen diren, besteak beste gutxieneko prezio bat eta prima bat ordaintzea ekoizleei edo merkataritza kate guztia gardenagoa eta trazabilitate gehiagokoa izatea.

Kontratazio organoak salbuespenez, kontratuaren ezaugarriak kontuan hartuz GIDAn adierazitako ehuneko edo betebeharrak baxuagoak ezarri ahal izango ditu. Horrelakoetan, txosten arrazoituaren bidez egokitasunik eza justifikatu da eta espedienteari erantsiko zaio.

<sup>10</sup> Aragoiko AKKB, 14/2015 txostena.

*“Kontratuaren egikaritze baldintzek, SPKLBen egikaritze baldintza bereziak izendatuek, helburu dute egikaritzeari lotutako baldintza bereziak ezartzea, eta hala, adjudikazio irizpideekin gertatzen ez den bezala (horiek eskaintzen kalitateari buruzko konparazio ebaluazioa egiteko oinarria ezartzen dute) kontratu baten egikaritze baldintzak baldintza objektibo finkoak dira, eskaintzen ebaluazioan eraginik ez dutenak”.*



Pertsona edo erakunde lizitatzailleek agiri bat aurkeztu beharko dute, eta horren bidez ezarriko diren izaera sozialeko, ingurumeneko edo bestelako politika publikoei lotutako egikaritze baldintza bereziak beteko dituztela adieraziko dute.

Bukatzeko, kontratuaren barneko egikaritze baldintza berezi guztiak kontratuaren egikaritzean parte hartzen duten azpikontratista guztiei eskatuko zaizkie, SPKLren adierazitakoarekin bat eginez.

#### Egikaritze baldintza bereziak ez betetzearen ondorioak.

1. Administrazio klausula berezien pleguetan aurreikusitako egikaritze baldintza bereziak betetzen ez baldin badira kontratua indargabetuko da SPKLren 211. artikuluko f) hizkian zehaztutakoaren arabera, hain zuzen ere egikaritze baldintza berezia oinarritzkoa denean.

Gainerako kasuetan, SPKLren 192. artikuluan aurreikusitako zehapena ezarri ahal izango da, eta zehapen bakoitzaren prezioak ezin izango du kontratuaren prezioaren % 10 gainditu ez betetzearen larritasun mailaren arabera, eta zehapen guztiek ezin izango dute kontratuaren prezioaren % 50 gainditu.

2. Ez betetzea pleguetan edo kontratuaren arau hauste larria bezala definituta baldin badago, enpresariari iruzurra, errua edo zabarkeria egotzi ahal baldin bazaio eta zehapenak ezarri baldin badira edo kalte ordainak indemnitzatu baldin badira, ezin izango da SPKLren terminoetan kontrataziorik egin.
3. Egikaritze baldintza bereziak **zuzen betetzea** ere kontuan hartuko dute kontratazio organoek administrazio klausula berezietako pleguetan aurreikusitako luzapenak ebazterako orduan.

Bereziki, ez dira luzapenak sinatuko kontratua adjudikatzerako orduan hitzarmenean edo aplikatu beharreko akordioan jasotako kontratuari atxikitako langileen lan baldintzak alde bakarretik murriztu dituzten erakundeekin.

Era berean, eskulanaren kostuei lotutako alde bakarreko lan erabakiak hartu baldin badira eta ondorioz sinatutako kontratuaren langileei aplikatu izan zaizkien laneko oinarritzko baldintzak murrizten baldin badira (horien arabera ezarri denean kontratuaren prezioa), *indarrean dagoen kontratuaren prezioak berriz ere egokitzeko kalkulua egiteko beharrezko neurriak hartuko dira, betiere administrazioaren klausula berezien pleguetan aurreikusitakoa betez.*

### III.- KONTRATUKO BETEBEHARREN EZ BETETZE BATZUEN NEURKETA, KLAUSULA SOZIALEKIN, INGURUMENEKOEKIN ETA BESTELAKO POLITIKA PUBLIKOEI LOTUTAKOEKIN DAUDENAK.

1. Administrazio klausula berezien pleguetan zehaztuko da kontratua adjudikatzerako orduan ezarritako klausula sozialekin, ingurumenekoekin eta bestelako politika publikoekin lotutako kontratuko betebeharrak ez betetzeari buruzko zerrenda, zehapenak ezartzeko ondorioetarako.

Ez dira zehapenak jarriko, baina kontratua indargabetuko da oinarritzko betebeharrak betetzen ez baldin badira.

2. Ez betetzeak **arinak, larriak** edo **oso larriak** izango dira.

Edonola ere, honako betebeharrak ez betetzea **oso larritzat** joko da:



- a) **Genero ikuspegia** kontratuaren xedearen ezaugarri tekniko bat denean, kontratua prestatzeko dokumentazioan oinarritzeko bezala jo diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako zehaztutako helburuak lortzeko aurkeztutako lanerako planeko ekintzak ez betetzea, eta enpresa edo erakunde adjudikaziodunak ez betetzea kontratua egikaritzeko plantillari atxikitako edo plantilla horretako arduradun lanpostuetarako emakumeen ehuneko kopuru zehatz bat kontratatzeko konpromisoa.
- b) Kontratuaren xedean **lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen enplegua sustatzea** baldin badago, enpresa edo erakunde adjudikaziodunak ez betetzea kontratua egikaritzeko kontratatzeko konpromisoa hartu duen profil horretako pertsonen ehunekoa.
- c) Kontratuaren xedean **gizarte bazterketa egoeran dauden edo egoera horretan egoteko arriskuan dauden pertsonen enplegua sustatzea** baldin badago, enpresa edo erakunde adjudikaziodunak ez betetzea kontratua egikaritzeko kontratatzeko konpromisoa hartu duen profil horretako pertsonen ehunekoa, eta langile tekniko espezializatuak gauzatu beharreko laneratze laguntzaren betebeharra guztiz edo partzialki ez betetzea.

#### IV.- ZEHAPENAK ZEHAZTEA ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN PLEGUETAN

1. Administrazio klausula berezien pleguetan aurreikusi ahal izango da adjudikaziodunek betebeharrak ez betetzearen ondoriozko zehapenak ezartzea, eta ezarriko diren zehapenen gutxieneko eta gehieneko kopuruak adieraziko dira. Hala, horiek ezin izango dute inolaz ere kontratuaren prezioaren % 10 gainditu, eta guztiek ezin izango dute kontratuaren prezioaren % 50 gainditu.

Pleguetan hala aurreikusten denean, enpresa kontratistak betebeharrak betetzen ez baldin baditu honako zehapen ekonomikoak jarriko dira, kontratua indargabetzea ez dagokion kasuetan:

- Ez betetze arinen zehapenak ezin izango du kontratuaren prezioaren % 4 gainditu.
  - Zehapen larriei kontratuaren prezioaren % 4tik gorako zehapena ezarriko zaie, baina ezin izango du kontratuaren prezioaren % 7 gainditu.
  - Zehapen oso larriei kontratuaren prezioaren % 7tik gorako zehapena ezarriko zaie, baina ezin izango du kontratuaren prezioaren % 10 gainditu.
2. Era berean, administrazio klausula berezien pleguetan ezarriko dira kontratistari ordainketa guztiaren edo partzialaren kontzeptuan ordaindu behar zaizkion kopuruak kenduz, edo eratuko zen bermearen gainean (aipatutako ziurtagirietatik kendu ezin direnean) ezarriko diren zehapenak.



## V.- KONTRATUAREN JARRAIPENA.<sup>11</sup>

1. Kontratuaren egikaritzea berrikusteko eta prestazioa zuzen ematen dela bermatzeko kontratazio organoak izendatutako arduradunak egingo du enpresa edo erakunde adjudikaziodunak hartutako kontratu betebeharrak betetzen dituenaren jarraipena, kontratuan eta GIDA honetan zehaztutakoa betez.

Kontratuaren arduradunak kontratazio organoari kontratuan aurrez ikusiak dauden eginbeharrak ez betetzearen berri emango dio eta, bidezkoa bada, zehapenak jartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea proposatuko du.

2. Egikaritze baldintza bereziak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharra kontratuaren barneko betebeharrak bezala jasoko da administrazio klausula berezien pleguetan eta/edo kontratuan.

3. Edonola ere, egiaztatu egin beharko da enpresa kontratistak eta hala dagokionean azpikontratistak bete egiten duela plantillan 50 pertsona edo gehiago baldin badaude % 2 desgaitasuna dutenak kontratatuzko betebeharrak, eta Berdintasun Plan bat ezarri duela 250 langile baino gehiago dauden enpresa baldin bada, Emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitakoa betez.

4.- Bizkaiko Foru Aldundiak gardentasuna bermatu ahal izateko (publizitate aktiboko eta informazio publiko eskuratzeko eskubideko dimentsio bikoitzean) enpresa adjudikaziodunak, aurretik hala eskatzen baldin bazaio, organo kontratazioari horri buruzko informazioa emateko betebeharrak izango du.

5.- Kontratazio publikoan zenbait klausula sozial gehitzeko apirilaren 7ko Euskal Autonomia Erkidegoko 3/2016 Legearen 5.4. artikuluan zehaztutakoaren ondorioetarako, adjudikazio ebazpenean gehituko da eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da enpresa adjudikaziodunak kontratuaren jardura gauzatzeko aplikatu behar dela adierazten duen hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa.

## VI.- KONTRATUAK GORDETZEA

1.- Horri dagokionez adierazi behar da GIDA honetan zehaztutakoaz gain, SPKLren laugarren xedapen gehigarrian eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duen eta Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina garatzen duen abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretua aldatzen duen ekainaren 14ko Bizkaiko Foru Aldundiaren 108/2016 Foru Dekretuarekin bat eginez, Bizkaiko Foru Aldundiak honakoak gorde beharko dituela:

- Ekimen sozialeko Enplegurako Zentro Bereziek eta araututako laneratze enpresek (Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan eta Laneratze enpresak

---

<sup>11</sup> Aragoiko AKKB, 16/2014 txostena.

*“Aukera horien artean, proposamenean bi aukeratu dira modu gradualean:*

*Zehapenak ezartzea, eta hala badagokio kontratua indargabetzea, hasiera batean indarrean dagoen araubide esparruarekin bat datorren printzipio edukiarekin. Noski, ondorioz administrazioak kontrol garrantzitsu eta arduratsua egin behar du kontratuaren egikaritze fasean, eta horren ondorioz zehaztasunez aplikatuko da klausula eta horren ondorioak, eta ez da ezerezean geratuko. “Hala, administrazio kontratatzaileak kontratuaren egikaritze faseko baldintza bereziari dagokionez hartu beharreko lehenengo neurria izango da kontrola eta jarraipena zuzenak izatea, eta horretarako, oinarritzkoa izango da kontratuaren arduraduna. Hau da, ez du ezertarako balio lizitazioaren dokumentazioan jasota egotea kontratuari lotutako langileen laneko baldintzak mantendu egin behar direla adierazten duen egikaritze baldintza berezi bat, kontratua ematerakoan horiek betetzen direla ez baldin bada administrazioak egiaztatzen eta ez baldin badira horiek ez betetzearen egongo diren ondorioak kontratuan aurreikusten”.*



arautzeko abenduaren 13ko 44/2007 Legean araututakoak) zenbait kontratuen edo kontratu horien loteen adjudikazioetan parte hartzeko duten eskubidea, izendapen hori izateko araubide horietan jasotako baldintzak betetzen baldin badituzte,

- Babestutako enplegu programen esparruan kontratu horien egikaritzeko gutxieneko gordetze ehunekoa, Enplegurako Zentro Bereziatiko, laneratze enpresetako edo erreferentziako araubidean aurreikusitako programetako desgaitasuna duten langileen ehunekoa gutxienez % 30ekoa baldin bada.

2.- Gordetze adierazpena lizitazio zehatz bakoitzarengatik egin beharko da eta gordetako kontratuaren izendapena administrazio espedientean eta kontratuaren xedean eta izenburuan agertu beharko da, baita lizitazio iragarkian ere. Azken horrek berariaz adierazi beharko du laugarren xedapen gehigarria, eta ez da bete beharko SPKLren 107. artikulua adierazitako behin betiko bermea, kontratazio organoak salbuespeneko kasuak direla eta beharrezkotzat jotzen ez baldin badu behintzat, eta espedientean arrazoituz aurrekoa justifikatzen baldin badu betiere.

Atal honetan aurreikusitako kontratuak lizitzatzeko ondorioetarako, indarrean dagoen araubidean eskatutako gainerako gaitasun baldintzak betetzeaz gain, beharrezkoa izango da aniztasun funtzionala duten eta gizarte egoera ahulean edo desabantailan dauden pertsonen gizarteko integrazioa eta integrazio profesionala helburu nagusizat duten erakunde bezala legez erata, sailkatuta eta hala badagokio erregistratuta egotea, horiek arautzen dituzten legediaren xedapenak kontuan hartuz.

## VII.-INGURUMEN KLAUSULAK

### GAI OROKORRAK

Energia eta uraren kontsumoari buruzko **aurretiatzko analisiak** ondorioztatu dezake irtenbiderik ekologikoena era berean merkeena izan daitekeela bizi ziklo osoan zehar.

Zenbait kasuetan, aukerarik ekologikoena **ordezkapenera arteko aldia maximizatzeko sortu dena edo beharrezko mantentze lanen kopurua gutxitzeko** dena izango da. Adibidez, eraikin baten edo zubi baten kanpoko aldeko materialak aukeratzeak ondorio nabarmenak izan ditzake mantentze eta garbitasun lanen maiztasunean. Aukerarik iraunkorrena kostu horiek saihesten dituen izan daiteke.

Hirugarrenek emandako **etiketek eta gainerako proba bitartekoek** lagundu egin dezakete lizitatzailer batek aukeratutako adjudikazio irizpideak zein mailatan betetzen dituen ebaluatzeko, baita lizitatzaileraren adierazpenak egiaztatzeko ere.

**Kontratuen xedea definitzean** eta baldintza teknikoaren pleguetan eta/edo proiektu edo memorietan berariaz jasoko da betebeharrak HAU

*“Kontratuaren xedeko ondasunak edo zerbitzuak **Euskadin, Espainiako estatuan eta Europar Batasunean ingurumenaren alorrean indarrean dauden arauak betez** sortu dira, baita Bizkaiko Foru Aldundiak sinatutako akordio eta/edo hitzarmenetatik eratorritako arauak betez ere. Arau horiek betetzen ez dituzten enpresek sortuta egon daitezkeen produktuak edo ekoizpen sistemak eskuratzea berariaz saihestuko da. Horri dagokionez, kontu berezia izango da EBren lurraldetik kanpo guztiz edo partzialki ekoiztutakoekin. Baldintza honen egiaztatpena **ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN** baten bitartez egingo da”.*



Kontratazio prozedurako hurrengo faseetan ingurumen klausulak eta kontratuaren xedea eta izenburua kontuan hartu daitezten, gomendagarria da horiek berariaz aipatzea.

Adibideak:

- *Ingurumena errespetatzen duten garbitasun zerbitzuen kontratuak.*<sup>12</sup>
- *Haurtzaindegi publikoetan janari ekologikoa hornitzeko kontratua.*
- *Eraikin publikoa eraginkortasun energetikoarekin egitea.*
- *Energetikoki eraginkorrak diren ekipamendu informatikoekin egindako kontratua.*
- *Klororik gabeko birziklatutako paperaren hornidura.*
- *Baso kudeaketa iraunkorreko egurrarekin egindako bulegoko altzariak hornitzea.*
- *Bulegoak irizpide bioklimatikoekin diseinatzea eta eraikitzea.*
- *Garbitasun zerbitzua produktu ekologikoekin.*
- *Ibilgailuak alokatzeko zerbitzuak ingurumen inpaktu txikiena izatea.*

Proiektuak, memoriak, azterketa ekonomikoak, preskripzio teknikoaren pleguak eta kontratuaren xedea definitzen duten bestelako agiriak idaztean, arreta berezia jarriko da ekoizpen prozesuan eta/edo kontratuaren egikaritze materialean ingurumenari buruzko araubidea betetzen dela ziurtatzean.

Eskakizun horiek derrigorrezkoak izango dira baita ere kanpoko teknikariek idazten dituzten proiektuetarako.

Kontratuaren xedea definitzen duten **agiri teknikoan jasoko da berau sortzeko berariaz kontuan hartu diren arauen zerrenda.**

Baldintza teknikoak, ahal den heinean eta kontratuaren xedeak ingurumenari eragiten dionean edo eragin ahal dionean, **iraunkortasun irizpideak aplikatuz** definituko dira.

Proiektuetan eta/edo pleguetan jasota egon beharko da Bizkaiko Foru Aldundiak eman beharreko produktuetan edo hornitu beharreko zerbitzuetan ingurumen kalitatea bermatzen duten zigiluak egon beharko direla (ISO, EMAS, EB Ekoetiketa, Aingeru Urdina, Zisne Zuria edo Nordikoa, etab.), **baina berariaz jakinaraziko da onargarriak izango direla ziurtagiri BALIOKIDEAK.** Baliokidetasun hori egiaztatzeko proba egokiak erabili beharko dira, besteak beste aintzatetsitako erakunde batek egindako entsegu baten txostena edo fabrikatzailearen txosten teknikoa. Kasu horretan, lizitatzailleak eskaintzan adierazi beharko ditu ziurtagiriaren ezaugarriak, zigilua edo bestelako proba eta/edo entseguak.

Orokorrean, kontratu guztietan gutxieneko ingurumen eskakizunak ezarriko dira, eta adjudikaziodunak horiek bete beharko ditu egikaritzeak irauten duen bitartean. Hala, horiek kontratuaren xedearekin zuzenean lotuta egongo dira eta intentsitate altuagokoak edo baxuagokoak izango dira, kontratuaren egikaritze materialeko lanek ingurumenean duten eraginaren arabera.

Adjudikaziodunak bere eskaintzan jasotako ingurumen konpromisoak zehatz-mehatz betetzea kontratuaren oinarrizko betebeharra izan daiteke, edo ingurumenaren alorrean kontratuko ez betetzeen tipifikazioari buruzko araubide mailakatu ezarri ahal izango da, baita horiei lotutako zehapenak adierazi ere.

Eskatutako edo eskainitako ingurumeneko alderdiak egikaritzea kontrolatzeari dagokionez, kontratuaren arduradunak edo obra zuzendariak (mota horretako kontratuetan) aldizka berrikusiko du adjudikaziodunak zuzenean pleguetan jarri dituen edo eskaini dituen ingurumenaren arloko betebeharrak betetzen direla, baita indarrean dagoen ingurumen legeriatik eratorritakoak ere.

---

<sup>12</sup> *Ingurumen alderdiak gehitu nahi baldin baditugu, kontratuaren egikaritze fasean egin beharko dugu, erabilitako materialak kontuan hartuta ingurumenari kalte gutxiago eragiten dion kontratuaren egikaritze modua aukeratu ahal izango baita. Hala, kontratuarentzat izenburu ekologiko bat aukeratu dugu, eta lizitatzailleek zailtasun intelektual gehiegirik gabe jakin ahal izango dute zer eskatzen den, eta aldi berean ingurumen irizpide bat identifikatu da.*





**Interesa duen edonork** detektatzen baldin badu kontratistaren batek ingurumen araubidea edo aplikatu beharreko kontratuaren betebeharrak betetzen ez dituela, salaketa edo erreklamazioa egin ahal izango du. Salaketa horiek egin ondoren egiaztaketa materiala egingo da, eta kontratuaren arduradunak berariazko txostena egingo du.

Erreferentziako dokumentazioa

- **Ihobe-k EAEko administrazioarentzat garatutako ingurumen irizpideak**

<http://www.ihobe.eus/ContenidosPlanos/Ficha.aspx?IdMenu=2FAE09B5-FBB4-4CC2-8655-49D53CBBDF01&Idioma=es-ES>

**Irizpide horiek besteak beste honako produktu, zerbitzu eta obra kategorientzat garatu dira:**

Papera, ekipamendu informatikoak (ordenagailuak eta inprimagailuak), bulegoko altzariak, eraikinen garbiketa, ibilgailuak, ekimenak, lorezaintza, elikagai zerbitzuak (vending, aldizkako catering-a eta jantokiak), mezularitza, argitalpenak, ehungintza (laneko arropa, zapatak, osagarriak eta barneko arropak), bidaiak, aholkularitza zerbitzuak, bulegorako materiala, material xurgatzailea, argiztapena, eraikuntza, hirigintza obrak, barneko estaldurak, inguratzaileak eraikuntza obretan, obra zibilak, errepideen garbiketa eta hondakinen bilketa, errepide bidezko garraio publikoko zerbitzua.

- **Kontratazio publiko ekologikoari buruzko eskuliburua, 3. edizioa**

[http://ec.europa.eu/environment/gpp/pdf/handbook\\_2016\\_es.pdf](http://ec.europa.eu/environment/gpp/pdf/handbook_2016_es.pdf)

- **Ibilgailuak modu berdean erosteko gida**

[http://economia.gencat.cat/web/.content/70\\_contractacio\\_icca/documents/informes\\_i\\_altra\\_documentacio/GUIA\\_compra-verde-vehiculos.pdf](http://economia.gencat.cat/web/.content/70_contractacio_icca/documents/informes_i_altra_documentacio/GUIA_compra-verde-vehiculos.pdf)



I. ERANSKINA	
Agiri zk.	Klausularen esparrua
(01) agiria	Laneko baldintzak hobetzen dituzten proposamenetarako adjudikazio irizpidea
(02) agiria	Egikaritze baldintza berezia araubide soziala, lanekoa eta ingurumenekoa betetzeko alorrean
(03) agiria	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko adjudikazio irizpidea
(04) agiria	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko egikaritze baldintza berezia
(05) agiria	Familiako eta laneko bizitza kontziliatzeko neurri berezien adjudikazio irizpidea
(06) agiria	Familiako eta laneko bizitza kontziliatzea sustatzeko egikaritze baldintza berezia
(07) agiria	Genero ikuspegia. Baldintza teknikoen plegua
(08) agiria	Egikaritze baldintza berezia. Hizkuntzari buruzko araubide juridikoa betetzea
(09) agiria	Egikaritze baldintza berezia bereziki langabeziak eragiten dien kolektiboetako pertsonen enplegua sustatzeko alorrean
(10) agiria	Egikaritze baldintza berezia. Klausula subrogatorioa eta enplegua eta plantilla mantentzekoa
(11) agiria	Azpikontratazioa
(12) agiria	Egikaritze baldintza berezia. Irizpide etikoak eta bidezko merkataritzaren ingurukoak
(13) agiria	Egikaritze baldintza berezia elikagaien erosketa publikoa irizpide ekologikoen egitea sustatzeko
(14) agiria	Egikaritze baldintza berezia. Compliance penala



(15) agiria	Egikaritze baldintza berezia laneko arriskuak prebenitzeko alorrean
(16) agiria	Ingurumeneko adjudikazio irizpidea
(17) agiria	Ingurumeneko egikaritze baldintza berezia
II. ERANSKINA	
ETE-AK	



I. ERANSKINA



(01) AGIRIA. LANEKO BALDINTZAK HOBETZEN  
DITUZTEN PROPOSAMENETARAKO ADJUDIKAZIO  
IRIZPIDEA

(02) AGIRIA. EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIA  
ARAUBIDE SOZIALA, LANEKOA ETA  
INGURUMENEKOA BETETZEKO ALORREAN.



**(O1) AGIRIA. LANEKO BALDINTZAK HOBETZEN <sup>13</sup> DITUZTEN PROPOSAMENETARAKO ADJUDIKAZIO IRIZPIDEA**

**KONTRATUETAN GEHITZEKO:** Obra, zerbitzu, obra emakida eta zerbitzu emakida kontratueta, kontratuaren egikaritzean baliabide pertsonalak atxikita dituztenetan.

**GEHITZEKO AGIRIA:** Administrazio Klausula Berezien Plegua. Adjudikazio irizpidea.

**1.-SOLDATAK HOBETZEKO KONPROMISOA.**

**2.-KONTRATUA EGIKARITUKO DUEN PLANTILLA KONTRATU MUGAGABEEKIN LANERATZEKO KONPROMISIOA.**

**3.-ADJUDIKAZIO ZENBATEKOAREN EHUNEKO ALTUAGOA LANGILE AUTONOMOEKIN AZPIKONTRATATZEKO KONPROMISOA.**

**4.-JARRAIPENA.**

**1.-SOLDATAK HOBETZEKO KONPROMISOA.**

Gehenez ere (XX)<sup>14</sup> punturekin baloratuko dira EHUNEKOETAN xedatutakoarekin alderatuz baldintza bereziak gehien hobetzen dituzten lizitatzaileren proposamenak. (KASU BAKOITZEAN xedatutakoa ZEHAZTU EGINGO DA, baina guztientzako erreferentzia bakarra egongo da, adibidez: SEKTORE HITZARMENA, ESKUALDEKOA, AUTONOMIKOA, ESTATUKOA...) <sup>15</sup> . Enpresa lizitatzailak kontratua egikarituko duten langileei aplikatzeko konpromisoa hartuko du. Aurrekoa baloratzeko, enpresa lizitatzailak soldata hobekuntza zehatzak zehazten dituen proposamena aurkeztu beharko du. Gainerako lizitatzaileren proposamenak modu beherakorrean eta proportzionalen baloratuko dira, formula honi jarraituz:

$$P = (EA/LEO) X (XX)$$

Hala, > **P** (Jasotako puntuazioa) = **EA** (lizitatzailak kontratua egikaritzeko eskaini duen hobekuntza ehuneko altuena) / **LEO** (Lizitatzaileren eskaintza onena) x **XX** (klausulan zehaztutako gehieneko puntuazioa)

Gijóngo Udaleko adibidea.

GIJÓNGO UDALEKO KULTURA, HEZKUNTZA ETA HERRI UNIBERTSITATEKO UDAL FUNDAZIOAREN MENPEKO EKIPAMENDUAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN PLEGUA, ENPLEGUAREN KALITATEA ETA EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO AUKERA BERDINTASUNA SUSTATUZ. PROZEDURA IREKIA.

"(...)

<sup>13</sup> SPKLTBren 150.2. artikularekin bat eginez: "Kontratuaren adjudikaziorako oinarrizko irizpideak kontratazio organoak zehaztuko ditu eta iragarkian, administrazio klausula berezien pleguetan edo deskribapen agirian jasoko dira.

<sup>14</sup> Gogoratu gutxienez % 10eko neurketa ezartzea gomendatzen dela. Obra kontratuetako gutxieneko neurritasuna guztizko puntuazioaren % 5 izatea gomendatzen da.

<sup>15</sup> Lizitatzailak guztientzako "neurri" zehatza eta berdina banatu beharko da. Klausula idatzita dagoen moduan, lizitatzailak guztiek modu homogeneoan interpretatu ahal izango dute eta puntuazioaren kalkulu zehatza egin ahal izango dute.



## 2.2. Kalitatea enpleguan:

**2.2.1. Lan baldintzak hobetzea** (Orik 25 puntura): CCP honen hasierako "C" atalean ezarritako aplikazioko hitzarmen kolektiboan zehaztuta dauden soldata baldintzak hobetzeari buruzko txosten teknikoan proposamen zehatzak eta xehatuak dituzten eskaintzak baloratuko dira. Horren ondorioetarako, hobekuntza egongo da langileak eraginkortasunez soldata altuagoa jasotzen duenean. Gehieneko puntuazioa emango zaio soldata gordin altuena eskaintzen duen enpresari, eta gainerako eskaintzak modu beherakorrean eta proportzionalean puntuatuko dira, hitzarmen kolektiboan ezarritako gutxienekoa gainditzen baldin badute betiere. (12.3, D. artikulua), 1. puntua, Gijón/Xixónko Udalean eta bere Erakunde Autonomoetan kontratazio publikoa ezartzeko instrukziorako, 2016ko urtarrilaren 28koa, Gobernu Batzarraren 2016ko otsailaren 2ko erabaki bidez onetsia, BOPA 49, 2016ko otsailak 29).

## 2.-KONTRATUA EGIKARITUKO DUEN PLANTILLA KONTRATU MUGAGABEEKIN LANERATZEKO KONPROMISIOA.

Gehenez (XX) punturekin baloratuko dira lizitatuzaileen proposamenak, kontratua gauzatzeko langileek kontratu mugagabeak badituzte. Kontratazio mugagabeari dagokionez, gehieneko puntuak emango zaizkio konpromiso handiena hartzen duen enpresari eta gainerako proposamenei modu beherakor eta proportzionalean puntu gutxiago emango zaizkie, betiere egikaritze baldintza berezi bezala zehaztutako gutxienekoa gainditzen badute, formula honen arabera:

$$P = (KM/LEO) \times (XX)$$

Hala, > P (Jasotako puntuazioa) = KM (lizitatuzaileak kontratua egikaritzeko eskaini duen kontratazio mugagabea) / LEO (Lizitatuzaileen eskaintza onena) x XX (klausulan zehaztutako gehieneko puntuazioa)

## 3.-ADJUDIKAZIO ZENBATEKOAREN EHUNeko ALTUAGOA LANGILE AUTONOMOEKIN AZPIKONTRATATZEKO KONPROMISIOA.

"Gehenez ere (XX) puntu emango zaizkie adjudikazio zenbatekoaren ehuneko altuagoa langile autonomoekin kontratatze konpromisoa hartu duten lizitatuzaileen proposamenei, eta puntuazio altuena emango zaio konpromiso altuenari; gainerako proposamenak modu beherakor eta proportzionalean baloratuko dira".

$$P = (AA/LOO) \times (XX)$$

Hala, > P (Jasotako puntuazioa) = AA (lizitatuzaileak kontratua egikaritzeko autonomoak azpikontratatze duen konpromisoa) / LOO (Lizitatuzaileen eskaintza onena) x XX (klausulan zehaztutako gehieneko puntuazioa)

### "Adibidez: Castellónko Udala

Castellónko Udalaren kontratazio publikoan irizpide sozialak gehitzeko instrukzioaren 10 d) artikuluan, enpleguaren kalitateari buruzkoan, klausula hauxe dago: "3. Lizitazio aurrekontuaren ehuneko altuagoa autonomoekin azpikontratatze konpromisoa puntuazio altuagoarekin baloratuko da, eta gainerako proposamenak modu proportzionalean baloratuko dira. Langile emakume autonomoak azpikontratatze konpromisoa baldin badago, azpikontratazioaren ehuneko birekin biderkatutako da".

## 4.-JARRAIPENA.

1. Kontratuaren egikaritzea berrikusteko eta prestazioa zuzen ematen dela bermatzeko kontratazio organoak izendatutako arduradunak egingo du enpresa edo erakunde adjudikaziodunak hartutako kontratu betebeharrak betetzen dituenaren jarraipena, kontratu honetan zehaztutakoa betez.

Kontratuaren enpresa edo erakunde adjudikaziodunak proposamen teknikoan hartutako konpromisoak betetzen direla egiaztatuko du, eta horretarako honako agiriak aurkeztuko dizkio kontratuaren arduradunari:



- a) Kontratua formalizatu eta **hilabeteko epean** enpresa edo erakunde adjudikaziodunak kontratatutako pertsoneri buruzko datuak jakinaraziko ditu eta horretarako Gizarte Segurantzari altan eman izanaren kopia eta laneko kontratua aurkeztuko ditu.

Kontratuaren arduradunak enpresa edo erakunde adjudikazioduneari eskuratu ahal izango ditu kontratua betetzen dela kontrolatu eta ebaluatzeko dituen eskumenak betetzeko egoki deritzen agiriak, eta horrez gain, jarraipen bilerak edo ebaluazioko aldizkako txostenak egiteko eskatu ahal izango du.

Agiri horiek aurkezteko betebeharra kontratuaren barneko betebeharra izango da eta administrazio klausula berezien pleguetan edo kontratua arautzen duen dokumentazio baliokidean hala jasota agertu beharko da.

2.-Kontratuaren arduradunak kontratazio organoari kontratuan aurrez ikusiak dauden eginbeharrak ez betetzearen berri emango dio eta, bidezkoa bada, zehapenak jartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hasia proposatuko du.

3.- Kontratatzaileak azken fakturarekin batera aurkeztu beharko du **erantzukizunpeko adierazpena/zinpekoa**, eta horren bitartez egiaztatuko da legez edo kontratuz eskatu ahal zaizkion egikaritze konpromisoak eta baldintza berezi guztiak bete dituela, neurri horiekin lotuta. Adierazpen horrekin batera aurkeztuko du kontratuaren arduradunak horri buruz egindako txostena, eta bertan aztertuko da eraginkortasunez bete direla aintzatetsitakoa eta kontratuaren gainerako betebeharrak.





## (02) AGIRIA. EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIA ARAUBIDE SOZIALA, LANEKOA ETA INGURUMENEKOA BETETZEKO ALORREAN.

**KONTRATUETAN GEHITZEKO:** Obra, zerbitzu, obra emakida eta zerbitzu emakida kontratuetan, kontratuaren egikaritzean baliabide pertsonalak atxikita dituztenetan.

**GEHITZEKO AGIRIA:** Administrazio Klausula Berezien Plegua. Egikaritze baldintza berezia.

1. ARAUBIDE SOZIALA, LANEKOA ETA INGURUMENEKOA BETETZEARI BURUZKO ESKAKIZUNA.
2. HITZARMEN KOLEKTIBO AADIERAZTEKO BETEBEHARRA.
3. HITZARMEN JASOTAKO SOLDATA ORDAINTZEKO BETEBEHARRA.
4. PLANTILLA MUGAGABEKO EHUNEKO BAT ENPLEGATZEKO BETEBEHARRA.
5. ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREKIN LOTURA DUEN HARREMANETARAKO PERTSONA BAT IZANDATZEKO BETEBEHARRA. PERTSONA HORREK SEGURTASUN ETA LANEKO OSASUNAREN ALORREAN LAN EGINGO DU, SORTU DAITEZKEEN ARAZOAK DETEKTATZEKO.
6. LANEAN PRESTAKUNTZA EMATEKO BETEBEHARRA.
7. JARRAIPENA

### **1.-ARAUBIDE SOZIALA, LANEKOA ETA INGURUMENEKOA BETETZEARI BURUZKO ESKAKIZUNA.**

“Kontratastak, kontratua gauzatzen duen bitartean, ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloan aplikagarriak diren eskakizunak beteko ditu. Horietarako guztietarako Europar Batasuneko zuzenbidean, nazioko zuzenbidean, hitzarmen kolektiboetan edo ingurumenean, gizartean eta lanean Estatuak lotzen badituzte, nazioarteko zuzenbidearen xedapenei erreparatu behar zaie. Era berean, araubide hori bete, dagokion erantzukizunpeko adierazpena egingo du eskaintza gauzatzekoan, atxikitako ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREKIN bat eginez.

Edonola ere, enpresa kontratatzaileak langileen % 2 desgaitasuna dutenak izateko betebeharrak bete beharko du enpresan 50 langile edo gehiago baldin badaude, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 42. artikularekin bat eginez, edo apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuan jasotako bestelako neurriak hartu beharko ditu<sup>16</sup> eta, hala badagokio, Berdintasunerako Plan bat egin beharko dute legez edo ohiko moduan agiri hori izateko betebeharrak duten enpresek”.

---

<sup>16</sup> Aukerazko neurrien jatorriak gutxienez bi inguruabar hauek izan daitezke:

- 1) Enpleguko zerbitzu publikoek ezin izan diotela eskaintzari erantzunik eman arrazoi ezberdinak direla eta.
- 2) Ekoizpen, antolakuntza, izaera teknikodun edo ekonomikodun zailtasunak daudelako eta hala egiaztatuta daudelako dagokion enpleguko zerbitzuan.

Kasu horietan, desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko betebeharrak duten enpresek enpleguko zerbitzu publikoen zerbitzuetan eskatu beharko DUTE SALBUESPENEZKO ADIERAZPENA bestelako neurriak hartu aurretik.

1) egoeran, salbuespenezko adierazpena betetzea ezinezkoa izan den langileentzat libre dagoen kopuruaren menpe egongo da.

2) egoeran, eskumena duten enpleguko zerbitzu publikoek ebatziko dute eskarian alegatutako arrazoen aldebereotasuna.

SALBUESPENEZKO ADIERAZPENA HIRU URTEZ IZANGO DA BALIOZKOA, horri buruzko ebazpenetik aurrera kontatzen hasita. Salbuespenezko adierazpenaren baliozkotasun epea igarotakoan, enpresek adierazpen berri bat eskatu beharko dute hasierako betebeharrak mantentzen baldin bada.

Hauek dira bestelako neurriak:



## 2.- HITZARMEN KOLEKTIBOA ADIERAZTEKO BETEBEHARRA<sup>17</sup>

“Kontratazioan klausula sozial zehatz batzuk gehitzeko apirilaren 7ko 3/2016 EAeko Legearen 5.2. artikuluan eta Sektore publikoko kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 122.2. artikuluan jasotakoarekin bat eginez, **adjudikaziodunak izanez gero**, lizitatzailleek kontratuaren xede den jarduera gauzatu duten langileei aplikatu beharreko **hitzarmen kolektiboa** adieraziko dute, eta kontratua adjudikatu ondoren, eraginkortasunez langile horiei aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruzko beharrezko informazio guztia eman beharko dute. Era berean, dagokion erantzukizunpeko adierazpena egingo da, eta adjudikazioduna izanez gero, hitzarmen kolektiboa adierazi beharko da eta eskaintza egitean lan baldintzei buruz eskatzen den informazio guztia emateko betebeharrak egongo da, atxikitako ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN arabera”.

## 3.-SEKTORE-HITZARMENEAN JASOTAKO SOLDATA ORDAINTZEKO BETEBEHARRA<sup>18</sup>

- Merkataritzaren kontratu bat edo kontratu zibil bat egitea enplegurako zentro berezi batekin edo desgaitasuna duen langile autonomo batekin.
- Merkataritzaren kontratu bat edo kontratu zibil bat egitea enplegurako zentro berezi batekin edo desgaitasuna duen langile autonomo batekin zerbitzuak emateko eta enpresaren jarduerarekiko osagarriak direnak emateko.
- Dohaintzak eta babes ekintzak egitea, betiere diruzkoak, desgaitasuna duten pertsonen laneratzeko jarduerak eta enplegua sortzekoak garatzeko, lankidetzaren ekintza horien erakunde onuraduna erabilera publikodun fundazioa edo elkartearen denean eta bere helburu soziala besteak beste prestakuntza profesionala, laneratzeko edo enplegua sortzeko denean desgaitasuna duten pertsonen alde, horientzat lanpostuak sortzen direnean eta bukatzeko, lan merkatuan pertsona horiek integratzen dituztenean.

Lanerako toki bat sortzea aurretik kontratua sinatuz enplegurako zentro berezi batekin, otsailaren 20ko 290/2004 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat eginez. Horren bitartez arautzen dira lanerako tokiak desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko neurri bezala.

<sup>17</sup> Kontratazio publikoan klausula sozial zehatz batzuk txertatzeari buruzko apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 5. artikuluan xedatuta dago: *Administrazio-klausula berezien agiritan jasoko da lizitatzailleek adierazi beharko dutela, esleipena jaso ezker, kontratuaren xede den jardueraren arituko diren langileei aplikatuko zaie hitzarmen kolektiboa eta, halaber, eskatzen den informazio guztia eman beharko dela, behin kontratua esleitu eta gero, langileei benetan aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruz.*

*Administrazio klausula berezien pleguetan adieraziko da adjudikaziodunak kontratuak iraun bitartean, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan bildutako soldata ordaintzea hitzartzen duela, langileari dagokion lanbide kategoriaren arabera, baina ordaindu beharreko soldata ezin izan daitekeela inola ere hitzarmen kolektibokoa baino txikiagoa izan.*

*Enpresa adjudikaziodunak kontratuaren xede den jardueran langileei aplikatuko dien hitzarmen kolektiboa aitortu ostean, informazioa adjudikaziodunaren ebazpenaren sartuko da eta kontratatzailearen profilean argitaratu ere bai”.*

<sup>18</sup> [Madrilgo Kontratazio Publikoaren Administrazio Auzitegia. 196/2017 ebazpena.](#)

*“Honako klausula pleguetan gehitzea aurkaratu da. Administrazio klausula berezien pleguaren I. eranskinaren 3. atalean jasota dago hauxe: “Eskaintza ekonomikoa egokitu egin beharko da adjudikaziodunak dagokion hitzarmen kolektiboa (enpresarena edo segurtasun enpresentzako estatu mailako hitzarmen kolektiboa) aplikatzearen ondorioz sortutako kostu guztiei aurre egin ahal izateko, eta edonola ere, **aurreikusitako soldaten orduko prezioak ezin izango dira izan segurtasunerako enpresentzat estatu mailako hitzarmen kolektiboan ezarritako orduko prezioak baino baxuagoak gehi Gizarte Segurantzako kostuak”.***

*Gure ebazpenetan adierazi genuen bezala, ez du balio soilik mota horretako klausula sozialak aplikatzea. Horrez gain, kasuaren analisi zehatza egin behar da eta horretarako egokia da Aragoiko Administrazio Kontratazioen Kontsulta Batzordeak martxoaren 17an egindako 1/2015 txostena aipatzea. Horren bitartez kontratazio publikoan alderdi sozialak, lanekoak eta ingurumenekoak gehitzeko gaia jorratu zen, eta mota horretako klausula sozialak gehitzeari buruzko kontsiderazio orokor batzuk egin ziren, onartzeko ildo nagusi hauek ezarri:*

*“a) Lehenik eta behin, ezinbestekoa da nolabait aplikazio eremua mugatzea, proposatutakoa bezalako klausulek bakarrik zentzua baitute prestazioen oinarritzko osagarri ekonomikoa eskulanaren kostuak eratzen duenean edo langileen subrogazio klausulak dituztenean.*



"Kontratazioan klausula sozial zehatz batzuk gehitzeko apirilaren 7ko 3/2016 EAeko Legearen 5.3. artikuluan eta Sektore publikoko kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 122.2. eta 202.2. artikuluetan jasotakoarekin bat eginez, adjudikaziodunak izanez gero, lizitatuak bete beharreko **egikaritze baldintza berezia** izango da aplikatu beharreko sektore sektore-hitzarmen kolektiboan ezarritako lan baldintzak ezartzea kontratua egikaritzeko duen plantillari. Hitzarmen hori esparru horretan indarrean egon beharko da eta kontratuaren prestazioak garatu beharko ditu, eta hori guztia bertan xedatutakoan egin daitezkeen hobekuntzak albo batera utzi gabe. Berezi, aplikatzeko den aipatutako sektore-hitzarmen kolektiboan jasotzen den soldata ordaindu beharko du kontratatzaileak, langile bakoitzari dagokion **kategoria profesionalaren arabera**, eta **soldata ezin izango da izan hura baino baxuagoa**. Era berean enpresak, adjudikazioduna baldin bada, hitzarmenean jasotako soldata ordaintzeko konpromisoa hartuko du, atxikitako ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN arabera".

SPKLren 201. artikuluekin bat eginez, soldaten ordainketak betetzen ez badira, etengabe atzerakuntzak baldin badaude edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritako soldata baldintza baxuagoen ordainketa larria eta iruzurrezkoa baldin bada, zehapenak ezarriko dira, eta ez betetzearen larritasunaren arabera zehapenetako bakoitza ezin izango da izan kontratuaren prezioaren % 10 baino altuagoa, BEZ kanpo.

Egikaritze baldintza berezi hori kontratuaren egikaritzean parte hartzen duten enpresa azpikontrata guztiek bete beharko dute era berean.

#### 4.-PLANTILLA MUGAGABEKO EHUNEKO BAT ENPLEGATZEKO BETEBEHARRA.

"**Egikaritze baldintza berezia izango da** kontratua egikaritzen duten langile mugagabe guztien gutxieneko ehuneko % 25-50ekoa izatea.<sup>19</sup> Eraikuntza sektoreko obrak egiteko ohiko moduan kontratatuak edo azpikontratuak diren enpresetako kontratu mugagabedun langileen kopurua ezin izango da izan Eraikuntza sektoreko azpikontratazioa arautzen duen urriaren 18ko 32/2006<sup>20</sup> Legearen 4.4. artikuluan ezarritako ehunekoak baino baxuagoa".

#### 5.-ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREKIN LOTURA DUEN HARREMANETARAKO PERTSONA BAT IZANDATZEKO BETEBEHARRA. PERTSONA HORREK SEGURTASUN ETA LANEKO OSASUNAREN ALORREAN LAN EGINGO DU, ALOR HORRETAN SORTU DAITEZKEEN ARAZOAK DETEKTATZEKO.

---

b) Bigarrenik, eta garrantzi berarekin, kontratuaren xedearen eta motaren arabera egokitzeaz gain, horiek gehitzean aurretiazko ebaluazio bat egin behar da egokitasuna zehazteko eta horien aldi baterako irismena ere zehazteko. Aragoiko Gobernuak nolabaiteko araudi tresnarik izan ezean horien derrigortasuna ezartzeko edo hala badagokio horiek lizitazioetan gehitzea gomendatzeko, klausula horiek kasu bakoitzean txertatzea kontratazio organo eskudunaren erabakiaren menpe egongo da, lizitazioko inguruabar zehatzak baloratuko dituztelarik.

c) Hirugarrenik, klausularen barne egon beharko dira beharrezko parametro objektiboak betebeharra noiz bete den zehaztu ahal izateko; kontratua egikaritzeko fasean administrazioak kontrol garrantzitsu eta arduratsua egitea ezarri beharko da, eta horri esker klausula zorrotzaz aplikatu ahal izango da; eta ondorioak (luzapena «kentzea» edo kontratua indargabetzea) kasu bakoitzean aztertu beharko dira baita ere".

Auzitegiak egiaztatu du kontratuaren prestakuntza dokumentazioan eta errekursoaren erantzun txostenean **justifikatuta dagoela Madrid Destino-ren menpeko instalazioetan zaintza eta segurtasun zerbitzuak egotearen betebeharra eta kontratuaren barne dauden klausula sozialak egoteko betebeharra, zerbitzuaren oinarritzko kostua eskulana baita. Hala, lan baldintzak bermatu nahi dira, kontratua egikaritzeko langileak subrogatzeko ohiko betebeharra baitago.**

Orain jorratzen ari garen kasuan, auzitegi honen arabera eta aurreko guztia kontuan hartuta, ez dago eragozpenik (kostu horiek estaltzeko lizitazio zenbatekoa nahikoa delarik) egikaritze baldintza bezala ezartzeko gutxienez langileei ordaindu beharreko soldataren erreferentzia. "

Horren ondorioetarako, lan elkartuko kooperatibetan, langile bazkideak besteen konturako langileak neurtzen diren moduan neurtuko dira, araubidez ezarritako terminoetan.

Horren ondorioetarako, lan elkartuko kooperatibetan, langile bazkideak besteen konturako langileak neurtzen diren moduan neurtuko dira, araubidez ezarritako terminoetan.



“Kontratua egikaritzean langileak atxikita dituzten obra edo zerbitzu kontratueta adjudikaziodun suertatzen badira, lizitatuzaileek, egikaritze baldintza berezi gisa, beren gain hartuko dute harremanetarako pertsona bat izendatzeko beharra. Pertsona hori enpresari lotutakoa izango da eta berariazko prestakuntza izan beharko du gai horretan; bere helburu nagusia eskatu daitezkeen laneko osasun eta segurtasuneko baldintzak aplikatu direla kontrolatu eta berrikustea izango da, baita esparru horretan sortu daitezkeen gorabeherak antzematea ere. Hori guztia segurtasun eta osasun koordinatzaileari agindutako funtzioei kalterik egin gabe, langile hori nahitaezkoa den kontratueta”.

## 6.- LANEAN PRESTAKUNTZA EMATEKO BETEBEHARRA

“Adjudikaziodunak izanez gero, lizitatuzaileek, egikaritze baldintza berezi bezala, lanpostuetan prestakuntza profesionaleko ekintzak antolatzeke betebeharrak izango dute, (XX) iraupenekoak, eta horien bitartez kontratuaren egikaritzeari atxikitako langileen lana, moldakortasuna, gaitasunak eta kalifikazioa hobetuko dira”.

## 7.-JARRAIPENA

1.- Kontratuaren egikaritzea berrikusteko eta prestazioa zuzen ematen dela bermatzeko kontratazio organoak izendatutako arduradunak egingo du enpresa edo erakunde adjudikaziodunak hartutako kontratu betebeharrak betetzen dituenaren jarraipena, kontratu honetan zehaztutakoa betez.

Era berean, kontratuaren enpresa edo erakunde adjudikaziodunak proposamen teknikoan hartutako konpromisoak betetzen direla egiaztatuko du, eta horretarako honako agiriak aurkeztuko dizkio kontratuaren arduradunari:

Kontratua formalizatu eta hilabete igarotakoan, enpresak edo erakunde adjudikaziodunak kontratatutako langileen datuak emango ditu, eta horretarako Gizarte Segurantzaren alta ematearen ziurtagiriak eta laneko kontratuak aurkeztuko ditu, mugagabe kontratatutako plantillaren ehunekoak egiaztatzeke, eta horrez gain enpresa adjudikazioduneko segurtasun eta laneko osasun alorrean lan egingo duen harremanetarako pertsona zein den jakinaraziko du, alor horretan gertatu daitezkeen arazoak detektatuko dituen hain zuzen ere.

Hilabeteko epean, enpresa adjudikaziodunak LANEAN PRESTAKUNTZA JASOTZEKO planaren egutegia jakinaraziko du, (XX) iraupenekoak. Prestakuntza horren bitartez kontratuaren egikaritzeari atxikitako langileen lana, moldakortasuna, gaitasunak eta kalifikazioa hobetuko dira.

Urtero<sup>21</sup>, enpresa adjudikaziodunak kontratuaren arduradunari memoria bat aurkeztu beharko dio eta bertan jasoko dira PRESTAKUNTZA planari buruzko parte hartze eta betetze datuak.

Kontratuaren arduradunak enpresa edo erakunde adjudikazioduneari eskuratu ahal izango ditu kontratua betetzen dela kontrolatu eta ebaluatzeke dituen eskumenak betez egoki deritzon agiriak (aurretik adierazitakoak edo beste batzuk), eta horrez gain, jarraipen bilerak edo ebaluazioko aldizkako txostenak egiteko eskatu ahal izango du.

Agiri horiek aurkezteke betebeharrak kontratuaren barneko betebeharrak izango da eta administrazio klausula berezien pleguetan edo kontratua arautzen duen dokumentazio baliokidean hala jasota agertu beharko da.

---

<sup>21</sup> Aldizkakotasuna kontratuaren iraupenarekin bat eginez ezarriko da.



2.-Kontratuaren arduradunak kontratazio organoari kontratuan aurrez ikusiak dauden eginbeharrak ez betetzearen berri emango dio eta, bidezkoa bada, zehapenak jartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hasia proposatuko du.

3.- Kontratzaileak azken fakturarekin batera aurkeztu beharko du **erantzukizunpeko adierazpena/zinpekoa**, eta horren bitartez egiaztatuko da legez edo kontratuz eskatu ahal zaizkion egikaritze konpromisoak eta baldintza berezi guztiak bete dituela, neurri horiekin lotuta. Adierazpen horrekin batera aurkeztuko du kontratuaren arduradunak horri buruz egindako txostena, eta bertan aztertuko da eraginkortasunez bete direla aintzatetsitakoa eta kontratuaren gainerako betebeharrak.



(03) AGIRIA. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO ADJUDIKAZIO IRIZPIDEA (GENERO IKUSPEGIA KONTRATUAREN XEDEAREN EZAUGARRI TEKNIKOA DENEAN)

(04) AGIRIA. EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO



### (03) AGIRIA. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO ADJUDIKAZIO IRIZPIDEA (GENERO IKUSPEGIA KONTRATUAREN XEDEAREN EZAUGARRI TEKNIKOA DENEAN)

KONTRATUETAN GEHITZEKO: Mota guztietako kontratuetan.

GEHITZEKO AGIRIA: Administrazio Klausula Berezien Plegua. Adjudikazio irizpideak.

### EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO ADJUDIKAZIO IRIZPIDEA.

#### JARRAIPENA

Administrazio klausula berezien pleguetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko adjudikazio irizpide bat edo gehiago gehitu ahal izango dira genero ikuspegia kontratuaren xedearen ezaugarri teknikoak denean, eta honako eskainitako alderdiren batengatik edo batzuenengatik baloratzen denean:

**10 puntura arte emango zaizkio** kontratua egikaritzeko emakume gutxiago dauden sektoreetan emakume kopuru altuena **kontratatzeko konpromisoa hartzen duen lizitzaileari**, betiere kopuru hori egikaritze baldintza berezi bezala ezarritako kopurua baino altuagoa denean eta gutxienez Eustatek generoaren araberako eta jarduera adarraren araberako biztanle aktiboei buruz ematen dituen datu estatistikoen batez besteko ehunekoak baino altuagoa denean. Gainerakoek puntuazio beherakorra eta proportzionala izango dute, formula honen araberakoa:

$$P = (EK/EEO) \times 10$$

Hala, > P (jasotako puntuazioa) = EK (lizitzaileak kontratua egikaritzeko konpromisoa hartu duen emakume kopurua) / EEO (kontratatzeko konpromisoa hartu duen emakume kopuruari buruzko lizitzaileen eskaintza onena)

**10 puntura arte emango zaizkio** kontratua egikaritzeko azpiordetza duten sektoreetan ardura duten lanpostuetan emakume kopuru altuena **kontratatzeko konpromisoa hartzen duen lizitzaileari**, betiere kopuru hori egikaritze baldintza berezi bezala ezarritakoa baino altuagoa denean eta gutxienez Eustatek generoaren araberako eta jarduera adarraren araberako biztanle aktiboei buruz ematen dituen datu estatistikoen batez besteko ehunekoak baino altuagoa denean. Gainerako lizitzaileek puntuazio beherakorra eta proportzionala izango dute, formula honen araberakoa:

$$P = (AEK/AEO) \times 10$$

Hala, > P (jasotako puntuazioa) = AEK (ardura duten lanpostuetan kontratatze konpromisoa hartu duen emakume kopurua) / AEO (ardura duten lanpostuetan kontratatze konpromisoa hartutako lizitzaileen eskaintza onena).

#### 2.-JARRAIPENA

Kontratuaren arduradunak hauek egiaztatu beharko ditu:



0. Kontratua formalizatu eta hilabeteko epean enpresa edo erakunde adjudikaziodunak kontratatutako pertsoneri buruzko datuak jakinaraziko ditu eta horretarako Gizarte Segurantzari altan eman izanaren kopia eta laneko kontratua aurkeztuko ditu.
1. Kontratuaren egikaritzea berrikusteko eta prestazioa zuzen ematen dela bermatzeko kontratazio organoak izendatutako arduradunak egingo du enpresa edo erakunde adjudikaziodunak hartutako kontratu betebeharrak betetzen dituenaren jarraipena, kontratu honetan zehaztutakoa betez.
2. Kontratuaren arduradunak egiaztatu egin beharko du enpresa kontratistak bete egiten duela plantillan 50 pertsona edo gehiago baldin badaude % 2 desgaitasuna dutenak kontratazeko betebeharra, eta Berdintasun Plan bat ezarri duela 250 langile baino gehiago dauden enpresa baldin bada, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitakoa betez.
3. Kontratuaren arduradunak enpresa edo erakunde adjudikazioduneari eskuratu ahal izango ditu kontratua betetzen dela kontrolatu eta ebaluatzeko dituen eskumenak betez egoki deritzaion agiriak, eta horrez gain, jarraipen bilerak edo ebaluazioko aldizkako txostenak egiteko eskatu ahal izango du.
4. Kontratuaren arduradunak kontratazio organoari kontratuan aurrez ikusiak dauden eginbeharrak ez betetzearen berri emango dio eta, bidezkoa bada, zehapenak jartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea proposatuko du.
5. Kontratatzaileak azken fakturarekin batera aurkeztu beharko du **erantzukizunpeko adierazpena/zinpekoa**, eta horren bitartez egiaztatuko da legez edo kontratuz eskatu ahal zaizkion egikaritze konpromisoak eta baldintza berezi guztiak bete dituela, neurri horiekin lotuta. Adierazpen horrekin batera aurkeztuko du kontratuaren arduradunak horri buruz egindako txostena, eta bertan aztertuko da eraginkortasunez bete direla aintzatetsitakoa eta kontratuaren gainerako betebeharrak.





#### (04) AGIRIA. EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO

**KONTRATUETAN GEHITZEKO:** Obra, zerbitzu, obra emakida eta zerbitzu emakida kontratueta, kontratuaren egikaritzean baliabide pertsonalak atxikita dituztenetan.

**GEHITZEKO AGIRIA:** Administrazio Klausula Berezien Plegua. Egikaritze baldintza berezia.

1. ENPLEGUA LORTZEKO, SUSTAPEN PROFESIONALERAKO ETA FAMILIAKO ETA LANEKO BIZITZA SUSTATZEKO BERDINTASUNA DAGOELA BERMATZEKO BETEBEHARRA
2. ESTEREOTIPO SEXISTAK SAIHESTEKO BETEBEHARRA
3. AZPIORDEZKARITZA DUTEN SEKTOREETAN EMAKUMEAK EGOTEA SUSTATZEA
4. AZPIORDEKARITZA DUTEN SEKTORETAN ARDURA DUTEN LANPOSTUETAN EMAKUMEAK EGOTEA SUSTATZEA
5. DESOREKATUTAKO PLANTILLETAN EMAKUMEAK EGOTEA SUSTATZEA
6. SEXU ARRAZOIENGATIKO JAZARPENA SAIHESTEKO NEURRIAK
7. BERDINTASUN PLANA BETETZEA
8. ENPLEGUA LORTZEKO ZAILTASUN BEREZIAK DITUZTEN LANGABETUAK KONTRATATZEA SUSTATZEA
9. JARRAIPENA

#### **1.-ENPLEGUA LORTZEKO, SUSTAPEN PROFESIONALERAKO ETA FAMILIAKO ETA LANEKO BIZITZA SUSTATZEKO BERDINTASUNA DAGOELA BERMATZEKO BETEBEHARRA**

Kontratua betetzerakoan, enpresa kontratistak edo azpikontrastak emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatuko du tratuan, enplegua lortzeko aukeran, sailkapen profesionalean, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, iraungitzean, ordainsarrietan, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupenean eta antolaketa. Era berean, kontratua gauzatzean enpresa kontratistak edo azpikontrastak neurriak hartuko ditu kontratua gauzatzeko atxikitako pertsonen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateragarri egiten laguntzeko.

Enpresak **ebaluazio memoria** bat egin beharko du, eta bertan jaso beharko du kontratuaren egikaritzean aurrez adierazitako neurriak aplikatzeari buruzko informazioa. Horrez gain, **alde batetik** tratuan, enplegua lortzean, sailkapen profesionalean, sustapenean, iraupenean, prestakuntzan, iraungitzean, ordainsarrietan, kalitatean eta laneko egonkortasunean, iraupenean eta lanaldiaren antolakuntzan emakumeen eta gizonen artean berdintasuna egoteko hartutako neurriak adierazi beharko dira, **eta beste aldetik**, kontratuaren egikaritzeari atxikitako pertsonen bizitza pertsonala, familiako eta lanekoa kontziliatzeko hartutako neurriak adierazi beharko dira.

#### **2.-ESTEREOTIPO SEXISTAK SAIHESTEKO BETEBEHARRA**

Kontratua gauzatzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan, enpresa edo erakunde adjudikaziodunak eta, hala badagokio, azpikontrastak hizkuntzaren erabilera ez-sexista egingo du, emakumeen edozein diskriminazio irudi edo estereotipo sexista saihestearekin batera. Modu berean, irudiak honakoak sustatuko ditu: berdintasun baloreak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukizun partekatua eta rolen nahiz genero nortasunen pluraltasuna.

Aipatutako dokumentazio guztia kontratazio organoak izendatutako kontratu arduradunak aztertuko du erabili eta zabaldu baino lehen.

#### **3.-AZPIORDEZKARITZA DUTEN SEKTOREETAN EMAKUMEAK EGOTEA SUSTATZEA**



Emakumeen azpiordezkaritzako jarduera sektoreetan, enpresa adjudikaziodunak eta azpikontratatistak (hala badagokio) kontratua egikaritzeko Eustatek dagokion sektorerako generoaren eta jarduera adarraren arabera jasotako datu estatistikoaren ehuneko batez bestekoa (XX) puntutan gainditzen duen kopurua kontratatu beharko du.<sup>22</sup>

#### **4.- AZPIORDEZKARITZA DUTEN SEKTOREETAN ARDURA DUTEN LANPOSTUETAN EMAKUMEAK EGOTEA SUSTATZEA**

Enpresa adjudikaziodunak, posible den guztietan eta emakumeen azpiordezkaritzako jarduera sektoreetarako, kontratua egikaritzeko ardura duten lanpostuetan aurreko urtean Eustatek dagokion sektorerako generoaren eta jarduera adarraren arabera jasotako datu estatistikoaren ehuneko batez bestekoa (XX) puntutan gainditzen duen kopurua kontratatu beharko du.

#### **5.-DESOREKATUTAKO PLANTILLETAN EMAKUMEAK EGOTEA SUSTATZEA<sup>23</sup>**

Kontratua egikaritzeko langileak kontratatu behar baldin badira eta enpresa kontratistan kontratua egikaritzeko plantillako emakume kopurua desorekatuta baldin badago, egingo diren kontratazio guztien % 50 emakumeak izango dira. Plantilla desorekatua dela ulertuko da baldin eta plantillako % 40 baino gutxiago emakumeak badira.

#### **6.-SEXU ARRAZOIENGATIKO JAZARPENA SAIHESTEKO NEURRIAK**

Kontratistak edo azpikontratatistak kontratua gauzatzen ari den bitartean lanean sexu jazarpena eta sexuarengatiko jazarpena prebenitzeko neurriak hartzen dituela bermatuko du.

Kontratistak edo azpikontratatistak kontratuaren indarraldian informazio kanpainak edo prestakuntza ekintzak egingo ditu, kontratua gauzatzeko atxikiak dauden langileei dagokienez, sexu jazarpena eta sexuarengatiko jazarpena prebenitu, saihestu eta deuseztatzeke.

#### **7.-BERDINTASUN PLANA BETETZEA**

250 langiletik gorako enpresek Berdintasun Plana dutela justifikatu behar dute betiere emakumeen eta gizonen berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoen ezarritako edukiarekin.

#### **8.-ENPLEGUA LORTZEKO ZAILTASUN BEREZIAK DITUZTEN LANGABETUAK KONTRATATZEA SUSTATZEA**

Enpresa adjudikaziodunak kontratatutako prestazioa egikaritzean enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten gutxienez % 20 langabetu kontratatzeke konpromisoa hartuko du. Laneratze ehunekoa zenbatesteko, kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren langileen zenbateko osoa hartuko da oinarritzat, enpresa kontratatistakoak edo, azpikontratatistakoak, hala badagokio. Jarraian aipatuko diren pertsonak dira enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituztenak:

1.- 30 urtetik gorako emakumeak, kontratazio hau lehenengo lan esperientzia izango luketenak, bai eta jarduerarik gabe bost urte eman ondoren kontratatzen direnak ere (lan bizitzaren txosten bidez egiaztatuta).

2.- Etxeko indarkeriaren biktima izan direnak, eta, egoera horretan sartuko da beren ezkontidearen eskutik edo afektibitate harreman antzeko baten bitartez berarekin modu egonkorrean lotuta egon den pertsona baten eskutik, edo bere arbaso, ondorengo edo neba-arreben eskutik indarkeria fisiko edo psikikoa jasan duen pertsona, betiere gertaera horiek kondena epai bidez edo biktimaren aldeko babes agindu bidez egiaztatu badira, edo, salbuespen kasuetan, Ministerio Fiskalaren txosten bidez, bertan adierazten delarik pertsona salatzailea aipatutako indarkeriaren biktima dela dioten zantzuak daudela, babes agindua izapidetu bitartean.

---

<sup>22</sup> Kasu honetan, pleguan bertan adierazi beharko da dagokion egunerako sektore jarduera horretako emakumeen batez besteko ehunekoa, Eustaten datu estatistikoekin bat eginez.



## 9.-JARRAIPENA

1.- Kontratuaren egikaritzea berrikusteko eta prestazioa zuzen ematen dela bermatzeko kontratazio organoak izendatutako arduradunak egingo du enpresa edo erakunde adjudikaziodunak hartutako kontratu betebeharrak betetzen dituenaren jarraipena, kontratu honetan zehaztutakoa betez.

2.-Kontratuaren arduradunak kontratazio organoari kontratuan aurrez ikusiak dauden eginbeharrak ez betetzearen berri emango dio eta, bidezkoa bada, zehapenak jartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea proposatuko du.

3.- Era berean, kontratuaren enpresa edo erakunde adjudikaziodunak proposamen teknikoan hartutako konpromisoak betetzen direla egiaztatuko du, eta horretarako honako agiriak aurkeztuko dizkio kontratuaren arduradunari:

Kontratua formalizatu eta **hilabeteko epean** enpresa edo erakunde adjudikaziodunak aukeratutako pertsoneri buruzko datuak jakinaraziko ditu eta horretarako Gizarte Segurantzaren altan eman izanaren kopia eta laneko kontratua aurkeztuko ditu.

4.- Kontratuaren arduradunak enpresa edo erakunde adjudikazioduneari eskuratu ahal izango ditu kontratua betetzen dela kontrolatu eta ebaluatzeko dituen eskumenak betez egoki deritzon agiriak, eta horrez gain, jarraipen bilerak edo ebaluazioko aldizkako txostenak egiteko eskatu ahal izango du, bereziki hauek.

- **Urteroko ebaluazio memoria**, eskaintzan jasotako berdintasun eta kontziliazio neurriak aplikatzeari buruzkoa.
- Kontratu prestazioan erabilitako materialen, agirien eta publizitatearen kopiak, **horiek hedatu aurretik**.
- **Hilabeteko epean** aplikatutako prebentzio planaren kopia (sexu arrazoiengatik jazarpenari buruzkoa), eta urtero planaren ebaluazioa, egindako ekintzak eta lortutako emaitzak zehaztuz.
- **Hilabeteko epean**, Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitako edukia jasotzen duen Berdintasunerako Plana

5.-Kontratuaren arduradunak kontratazio organoari kontratuan aurrez ikusiak dauden eginbeharrak ez betetzearen berri emango dio eta, bidezkoa bada, zehapenak jartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea proposatuko du.

6.-Kontratuaren arduradunak egiaztatu egin beharko du enpresa kontratistak bete egiten duela plantillan 50 pertsona edo gehiago baldin badaude % 2 desgaitasuna dutenak kontratatzeke betebeharra, eta Berdintasun Plan bat ezarri duela 250 langile baino gehiago dauden enpresa baldin bada, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitakoa betez.

7.- Kontratatzailerak azken fakturarekin batera aurkeztu beharko du **erantzukizunpeko adierazpena/zinpekoa**, eta horren bitartez egiaztatuko da legez edo kontratuz eskatu ahal zaizkion egikaritze konpromisoak eta baldintza berezi guztiak bete dituela, neurri horiekin lotuta. Adierazpen horrekin batera aurkeztuko du kontratuaren arduradunak horri buruz egindako txostena, eta bertan aztertuko da eraginkortasunez bete direla aintzatetsitakoa eta kontratuaren gainerako betebeharrak.



(05) AGIRIA. ADJUDIKAZIO IRIZPIDEA. FAMILIAKO ETA  
LANEKO BIZITZA KONTZILIATZEKO NEURRI  
ZEHATZAK

(06) AGIRIA. EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIA  
FAMILIAKO ETA LANEKO BIZITZA KONTZILIATZEKO  
SUSTAPENAREN ARLOAN



(05) AGIRIA. ADJUDIKAZIO IRIZPIDEA. FAMILIAKO ETA LANEKO BIZITZA KONTZILIATZEKO NEURRI ZEHATZAK<sup>24</sup>

**KONTRATUETAN GEHITZEKO:** Obra, zerbitzu, obra emakida eta zerbitzu emakida kontratueta, kontratuaren egikaritzean baliabide pertsonalak atxikita dituztenetan.

**GEHITZEKO AGIRIA:** Administrazio Klausula Berezien Plegua. Egikaritze baldintza berezia.

FAMILIAKO ETA LANEKO BIZITZA KONTZILIATZEKO NEURRI ZEHATZEN ADJUDIKAZIO IRIZPIDEA

JARRAIPENA

1.- FAMILIAKO ETA LANEKO BIZITZA KONTZILIATZEKO NEURRI ZEHATZAK SUSTATZEKO ADJUDIKAZIO IRIZPIDEA

Administrazio klausula berezien pleguetan jaso ahal izango dira kontratua egikaritzeko langileen familiako eta laneko bizitzak kontziliatzeko neurri zehatzak sustatzeko adjudikazio irizpide bat edo gehiago, betiere kontratuaren xedearekin lotura baldin badute, eta eskaintzaren alderdi hauetako batengatik edo batzuegatik baloratuak baldin badira:

(XX) puntura arte emango zaizkie lizitatzailak kontratua egikaritzen duen plantillari aplikatzeko konpromisoa hartzen duen bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa kontziliatzeko neurri zehatzei. Hala, neurri horiek **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Legean ezarritako gutxienekoak hobetu beharko dituzte**, eta bereziki adingabekoei eta menpekotasuna dutenei arreta ematea errazten duten baliabide propioak, pribatuak edo soziokomunitarioak ezartzea baloratuko da, besteak beste zerbitzu txekak, jantokiak, haurtzaindegia, eguneko zentroak edo ludotekak, lanaldien hobekuntzak, eszedentziak, lizentziak edo baimenak, ordutegi malguak edo zerbitzuen egokitzea edo zerbitzuak berriz ere esleitzea. Neurri gehien hobetzen dituen lizitatzailari emango zaizkio puntu gehien, eta gainerakoek puntuazio beherakorra eta proportzionala izango dute, formula honi jarraiki:

$$P = (NK/NEO) \times (XX)$$

Hala, > P (jasotako puntuazioa) = NK (kontratua egikaritzeko lizitatzailak hartuko dituen neurri kopurua) / NEO (hobetuko dituzten neurri buruz lizitatzailak duten eskaintza onena) eta (XX) kontratazio organoak zehaztuko duen gehieneko puntuazioa

<sup>24</sup> Madrilgo KPAAren 150/2017 Ebazpena: "Aztertzen ari garen kasuan eta errekurtsogileak adierazitako irizpideei dagokienez, **berdintasun plana, kontziliazio plana eta praktika onen kodea**, auzitegi honek uste du **badagoela nahikoa arrazoi C-368/2010 kontuan emandako epaiak bultzatzen duen irizpidea aplikatzeko**, -horren bitartez, **adjudikazio irizpide bezala ezarri daiteke hornitu beharreko produktuaren kalitatea zehazten ez duen elementu bat, besteak beste bidezko merkataritzatik etortzea**-, SPKLTBren 150. artikulua interpretazio ondorioetarako.

Mota horretako kontratueta, **garbiketa zerbitzuak, zerbitzuak ematen dituzten langileen baldintzek garrantzia nabarmena eta erabakigarria dute prestazioaren kalitateari dagokionez**. Beraz, aipatutako adjudikazio irizpideen edukiek eragin nabarmena dute horretan. Gainera, irizpide horiek publikoak eta ez diskriminatzaileak direnez, ez da egin behar horien edukiei buruzko oharrik, SPKLTBekin bat eginez eta Europako zuzentarauak eta jurisprudentzia interpretatuz. Horrez gain, ez da enpresaren askatasuna urratzen (2016ko abuztuaren 30eko AKPAAren Erabakia)".



## 2.-JARRAIPENA

1.- Kontratuaren egikaritzea berrikusteko eta prestazioa zuzen ematen dela bermatzeko kontratazio organoak izendatutako arduradunak egingo du enpresa edo erakunde adjudikaziodunak hartutako kontratu betebeharrak betetzen dituenaren jarraipena, kontratu honetan zehaztutakoa betez. Horretarako, kontratuaren egikaritze fasean gutxienez **hiru ikuskapen espezifiko** egingo dira adjudikazioduna izan den enpresa lizitatzailerak bere eskaintzan jasotako baldintza bereziak betetzeari buruz adierazitako datuen egiazkotasuna bermatzeko, baita Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Legean ezarritakoak bete direla bermatzeko ere.

2.-Kontratuaren arduradunak kontratazio organoari kontratuan aurrez ikusiak dauden eginbeharrak ez betetzearen berri emango dio eta, bidezkoa bada, zehapenak jartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hasia proposatuko du.

3.-Edonola ere, kontratuaren arduradunak egiaztatu egin beharko du enpresa kontratistak bete egiten duela plantillan 50 pertsona edo gehiago baldin badaude % 2 desgaitasuna dutenak kontratatzeke betebeharra, eta Berdintasun Plan bat ezarri duela 250 langile baino gehiago dauden enpresa baldin bada, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitakoa betez.

4.-Kontratuaren arduradunak enpresa edo erakunde adjudikazioduneari eskuratu ahal izango ditu kontratua betetzen dela kontrolatu eta ebaluatzeko dituen eskumenak betez egoki deritzon agiriak, eta horrez gain, jarraipen bilerak edo ebaluazioko aldizkako txostenak egiteko eskatu ahal izango du.

5.- Kontratatzailerak azken fakturarekin batera aurkeztu beharko du **erantzukizunpeko adierazpena/zinpekoa**, eta horren bitartez egiaztatuko da legez edo kontratuz eskatu ahal zaizkion egikaritze konpromisoak eta baldintza berezi guztiak bete dituela, neurri horiekin lotuta. Adierazpen horrekin batera aurkeztuko du kontratuaren arduradunak horri buruz egindako txostena, eta bertan aztertuko da eraginkortasunez bete direla aintzatetsitakoa eta kontratuaren gainerako betebeharrak.



## (06) AGIRIA. EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIA FAMILIAKO ETA LANEKO BIZITZA KONTZILIATZEKO SUSTAPENAREN ARLOAN

**KONTRATUETAN GEHITZEKO:** Obra, zerbitzu, obra emakida eta zerbitzu emakida kontratuetan, kontratuaren egikaritzean baliabide pertsonalak atxikita dituztenetan.

**GEHITZEKO AGIRIA:** Administrazio Klausula Berezien Plegua. Egikaritze baldintza berezia.

### LANEKO ETA FAMILIAKO BIZITZA KONTZILIATZEA ERRAZTEN DUTEN EKINTZAK SUSTATZEA JARRAIPENA

#### 1.-LANEKO ETA FAMILIAKO BIZITZA KONTZILIATZEA ERRAZTEN DUTEN EKINTZAK SUSTATZEA

a) Enpresa kontratistak eta azpikontratistak, kontratua gauzatzean, lanaldiaren barruan sentsibilizazio, prestakuntza eta orientazio ekintzak egingo dituzte, langileen lan eta familia bizia kontziliatzearen arloan legeak edo hitzarmen kolektibo aplikagarriak xedatutako eskubideak ezagutzeko.

b) Enpresa kontratistak eta azpikontratistak neurriak ezarriko dituzte kontratuari atxikitako langileen laneko bizitza, bizitza pertsonala eta familiakoa kontziliatzea errazteko, eta honakoak izan ahalko dira neurri horiek:

Lan ordutegiak malguak izatea lanera sartu eta ateratzeko, etenaldietarako, edo jateko, kafea hartzeko, eta abar egiteko atsedendietarako.

Ordutegiak langileen eguneroko erritmoetara egokitzea: lan ordutegiak garraioen, eskolen, saltokien, eta abarren ordutegietara egokitzea.

Telelana: urrutitik egiten den lana, beti lanpostuan bertan egon gabe eta teknologia berriak erabiliz.

Babes ekonomikoa haur eskoletako eta mendekotasuna duten pertsonen arreta ematen dien beste zentro batzuetako gastuak ordaintzeko.

Laneko erakundearen inguruan dauden haur eskoletan plazak erreserbatzea edo haurtzaindegi propioak izatea.

Erakundearen barne prestakuntza lan ordutegian edo lan ordutegiaren zati baten barne egitea.

Bilerak atsedendietan ez jartzea.

#### 2.-JARRAIPENA

1.- Kontratuaren egikaritzea berrikusteko eta prestazioa zuzen ematen dela bermatzeko kontratazio organoak izendatutako arduradunak egingo du enpresa edo erakunde adjudikaziodunak hartutako kontratu betebeharrak betetzen dituenaren jarraipena, kontratu honetan zehaztutakoa betez. Horretarako, kontratuaren egikaritze fasean gutxienez **hiru ikuskapen espezifiko** egingo dira Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako pleguan ezarritako egikaritze baldintza bereziak betetzen direla bermatzeko.

2.-Kontratuaren arduradunak kontratazio organoari kontratuan aurrez ikusiak dauden eginbeharrak ez betetzearen berri emango dio eta, bidezkoa bada, zehapenak jartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea proposatuko du.

3.- Kontratuaren arduradunak egiaztatu egin beharko du enpresa adjudikaziodunak txosten bat duela, eta txosten horren bidez egiaztatzen dela enpresak neurriak ezartzeko betebeharra duela kontratua egikaritzen duen langileen kontziliazioa errazteko.



4.-Edonola ere, kontratuaren arduradunak egiaztatu egin beharko du enpresa kontratistak bete egiten duela plantillan 50 pertsona edo gehiago baldin badaude % 2 desgaitasuna dutenak kontratatzeke betebeharra, eta berdintasun Plan bat ezarri duela 250 langile baino gehiago dauden enpresa baldin bada, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitakoa betez.

5.-Kontratuaren arduradunak enpresa edo erakunde adjudikaziodunean eskuratu ahal izango ditu kontratua betetzen dela kontrolatu eta ebaluatzeko dituen eskumenak betez egoki deritzon agiriak, eta horrez gain, jarraipen bilerak edo ebaluazioko aldizkako txostenak egiteko eskatu ahal izango du.

6.- Kontratzaileak azken fakturarekin batera aurkeztu beharko du **erantzukizunpeko adierazpena/zinpekoa**, eta horren bitartez egiaztatuko da legez edo kontratuz eskatu ahal zaizkion egikaritze konpromisoak eta baldintza berezi guztiak bete dituela, neurri horiekin lotuta. Adierazpen horrekin batera aurkeztuko du kontratuaren arduradunak horri buruz egindako txostena, eta bertan aztertuko da eraginkortasunez bete direla aintzatetsitakoa eta kontratuaren gainerako betebeharrak.





(07) AGIRIA. GENERO IKUSPEGIA. BALDINTZA  
TEKNIKOEN PLEGUA



## (07) AGIRIA. GENERO IKUSPEGIA. BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

**KONTRATUAK GEHITZEKO:** Mota guztietako kontratuetan.

**GEHITZEKO AGIRIA:** Baldintza teknikoaren plegua.

1. **BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUEN EDUKIA**
2. **JARRAIPENA**

### **1.- BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUEN EDUKIA**

Enpresa lizitatzailerik beren proposamenetan eta haien aurkezpenean ezingo dute erabili hizkera sexistarik. Halaber, enpresa adjudikaziodunak, kontratuak indarrean iraun bitartean, ez du hizkera sexistarik erabiliko idatzizko behin betiko ezein dokumentutan edo dokumentu digitaletan, eta gainera, datuak sexuaren arabera banatuta eman beharko ditu pertsonen buruz sortuko den edozein estatistikatan, hori guztia Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 2.3 artikuluan xedaturikoaren itzalpean. Bertan ezarri dira errespetatu beharreko printzipio orokorrak.

Enpresa adjudikaziodunak kontratuaren xede den prestazioaren azken justifikazioaren kontratazioaren genero inpaktuari buruzko txostena gehituko du hala badagokio, eta pertsona erabiltzaileen edo onuradunen nahiz zerbitzua eskaintzen duten langileen inguruan adierazleak eta datuak sexuka bereizita aurkeztuko ditu. Helburua aplikatutako berdintasun neurrien eraginkortasuna ebaluatu ahal izatea da.

### **2.-JARRAIPENA.**

1. Kontratazio organoak izendatutako arduradunak egiaztatu beharko du kontratuaren xede den prestazioaren azken justifikazioaren kontratazioaren genero inpaktuari buruzko txostena izango duela eta pertsona erabiltzaileen edo onuradunen nahiz zerbitzua eskaintzen duten langileen inguruan adierazleak eta datuak sexuaren arabera bereiziko direla. Helburua aplikatutako berdintasun neurrien eraginkortasuna ebaluatu ahal izatea da.
2. Kontratuaren arduradunak kontratazio organoari kontratuan aurrez ikusiak dauden eginbeharrak ez betetzearen berri emango dio eta, bidezkoa bada, zehapenak jartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea proposatuko du.
3. Kontratuaren arduradunak egiaztatu egin beharko du enpresa kontratistak bete egiten duela plantillan 50 pertsona edo gehiago baldin badaude %2 desgaitasuna dutenak kontratatzeke betebeharra, eta Berdintasun Plan bat ezarri duela 250 langile baino gehiago dauden enpresa baldin bada, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitakoa betez.
4. Kontratuaren arduradunak enpresa edo erakunde adjudikaziodunean eskuratu ahal izango ditu kontratua betetzen dela kontrolatu eta ebaluatzeke dituen eskumenak betez egoki deritzaon agiriak, eta horrez gain, jarraipen bilerak edo ebaluazioko aldizkako txostenak egiteko eskatu ahal izango du, bereziki hauek:



5. Kontratatzaileak azken fakturarekin batera aurkeztu beharko du **erantzukizunpeko adierazpena/zinpekoa**, eta horren bitartez egiaztatuko da legez edo kontratuz eskatu ahal zaizkion egikaritze konpromisoak eta baldintza berezi guztiak bete dituela, neurri horiekin lotuta. Adierazpen horrekin batera aurkeztuko du kontratuaren arduradunak horri buruz egindako txostena, eta bertan aztertuko da eraginkortasunez bete direla aintzatetsitakoa eta kontratuaren gainerako betebeharrak.



(08) AGIRIA. INDARREAN DAGOEN HIZKUNTZA  
ARAUBIDETIK ERATORRITAKO BETEBEHARRAK  
BETETZEN DIRENAREN AGIRIA.



(08) AGIRIA. INDARREAN DAGOEN HIZKUNTZA ARAUBIDETIK ERATORRITAKO BETEBEHARRAK BETETZEN DIRENAREN AGIRIA.

KONTRATUETAN GEHITZEKO: Kontratu mota guztietan, tipologiaren arabera.

GEHITZEKO AGIRIA: Baldintza teknikoen plegua.

INDARREAN DAGOEN HIZKUNTZA ARAUBIDETIK ERATORRITAKO EGINBEHARRAK  
BETETZEKO BEHARRA

JARRAIPENA

1.- INDARREAN DAGOEN HIZKUNTZA ARAUBIDETIK ERATORRITAKO EGINBEHARRAK BETETZEKO BEHARRA

22/2009 Foru Dekretuak, otsailaren 17koak, Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduera eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko arauak ematen dituenak, 16. artikuluan xedatutakoarekin bat eta, zehazki, hizkuntza araubidea kontuan hartuta, honakoa adierazten da:

"2. -Kontratazioaren xede den zerbitzua eskaintzean herritarrek zuzeneko harremana izan behar bada, hurrengo baldintzak beteko dira:

*Enpresa adjudikaziodunak eskaintzeko orduan bi hizkuntza ofizialetan arreta jasotzeko herritarren eskubidea errespetatu beharko du.*

*Erabilera publikoko inprimakiak, idazkiak eta jakinarazpenak enpresa adjudikaziodunak euskaraz nahiz gaztelaniaz egingo ditu.*

*Foru Aldundiaren kontratu baten enpresa adjudikaziodunek kontratuaren xede den jarduerari lotutako esku-hartze publiko guztietan euskara erabili beharko dute.*

*Lanen zuzendaria den neurrian, kontratuaren sail sustatzaileak enpresa adjudikaziodunek artikuluko honetan xedatzen dena betetzen dutela eta hizkuntza ofizialak behar bezala erabiltzen dituztela zainduko du.*

3.- Adjudikazioaren xedea obra publiko bat denean, seinaleak, adierazleak eta ohar publikoak bi hizkuntza ofizialetan egon beharko dira.

4. - Kontratuaren xedea aholkularitza edo laguntza (zerbitzua) denean, honako baldintzak beteko dira:

a) Baldintza teknikoen pleguek honako betebeharrak zehaztuko dute: enpresa adjudikaziodunek lanak bi hizkuntza ofizialetan aurkeztea, berariaz bestelakoa esaten denean izan ezik. Bizkaiko Foru Aldundiak aholkularitza eta laguntza kontratuaren babesean sortutako idatzizko agirien itzulpena ez du inolaz ere bere gain hartuko.

b) Lanen zuzendariaren bitartez, kontratuaren sail sustatzailearen erantzukizuna izango da hizkuntza ofizialak behar bezala erabiltzen direla zaintzea eta, horretarako, Itzulpen, Terminologia eta Hizkuntza Teknologia Atalaren laguntza eta aholkularitza izango du".

Hautabidez, enpresa edo erakunde lizitatzailerak hizkuntza gaitasunaren eta kaudimenaren baldintzak betetzen dituela frogatu ahal izango du, edozein frogabide erabiliz. Enpresa edo entitate adjudikaziodunak kontratuaren egikaritze fasean frogatu beharko du gaitasun hori.



## 2.-JARRAIPENA.

1.- Aurreko ataletan zehaztutako hizkuntza irizpideak kontratuaren sail sustatzaileak zehaztu eta adierazi beharko ditu dagozkion baldintza teknikoen pleguetan, eta kontratazio organoak horiek betetzen direla zaindu beharko du.

2.-Kontratuaren arduradunak une oro zaindu beharko du hizkuntza ofizialak erabiltzen direla, eta horretarako, Itzulpen, Terminologia eta Hizkuntza Teknologiako Atalaren laguntza eta aholkularitza izango ditu.

3.- Zehazki, kontratuaren arduradunak argitaratu beharreko dokumentazioa hedatu aurretik aztertu egin beharko du, bermatuz hizkuntza betebeharrei dagokion izapidetzeak betez egin dela. Horretarako, eta aurrekoa albo batera utzi gabe, hilero enpresa adjudikaziodunak argitaratutako dokumentazio guztiaren kopia bat bidaliko dio hala badagokio kontratuaren arduradunari.

4.-Kontratuaren arduradunak kontratazio organoari kontratuan aurrez ikusiak dauden eginbeharrak ez betetzearen berri emango dio eta, bidezkoa bada, zehapenak jartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea proposatuko du.

5.- Edonola ere, kontratuaren arduradunak egiaztatuko du enpresa kontratistak bete egiten duela plantillan 50 langile edo gehiago baldin badaude langileen % 2 desgaitasuna dutenak izateko betebeharra eta berdintasun Plan bat izateko legezko edo ohiko betebeharra duten enpresek plan hori xedatu dutela ere egiaztatu beharko du.

6.-Kontratuaren arduradunak enpresa edo erakunde adjudikaziodunean eskuratu ahal izango ditu kontratua betetzen dela kontrolatu eta ebaluatzeko dituen eskumenak betez egoki deritzon agiriak, eta horrez gain, jarraipen bilerak edo ebaluazioko aldizkako txostenak egiteko eskatu ahal izango du.

7.-Kontratatzaileak azken fakturarekin batera aurkeztu beharko du **erantzukizunpeko adierazpena/zinpekoa**, eta horren bitartez egiaztatuko da legez edo kontratuz eskatu ahal zaizkion egikaritze konpromisoak eta baldintza berezi guztiak bete dituela, neurri horiekin lotuta. Adierazpen horrekin batera aurkeztuko du kontratuaren arduradunak horri buruz egindako txostena, eta bertan aztertuko da eraginkortasunez bete direla aintzatetsitakoa eta kontratuaren gainerako betebeharrak.



(09) AGIRIA. LANGABEZIAK BEREZIKI ERAGITEN DIEN  
KOLEKTIBOETAKO PERTSONEN ENPLEGUA  
SUSTATZEKO EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIA



## (09) AGIRIA. LANGABEZIAK BEREZIKI ERAGITEN DIEN KOLEKTIBOETAKO PERTSONEN ENPLEGUA SUSTATZEKO EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIA

**KONTRATUETAN GEHITZEKO:** Obra, zerbitzu, obra emakida eta zerbitzu emakida kontratueta, kontratuaren egikaritzean baliabide pertsonalak atxikita dituztenetan.

**GEHITZEKO AGIRIA:** Administrazio Klausula Berezien Plegua. Egikaritze baldintza berezia.

1.-LANGABEZIAK BEREZIKI ERAGITEN DIEN KOLEKTIBOETAKO PERTSONAK KONTRATATZEA.

2.-AZPIKONTRATATZEKO KONPROMISOA

3.-JARRAIPENA

4.-ERANSKINA

1.-LANGABEZIAK BEREZIKI ERAGITEN DIEN KOLEKTIBOETAKO PERTSONAK KONTRATATZEA.<sup>25</sup>

Adjudikaziodunak, kontratua egikaritzean (kontratazio berrietan, bajetan eta langileen ordezkapenetan) langabeziak bereziki eragindako kolektiboetako pertsonak lehenetsi beharko ditu, eta hala, egin beharreko lan kontratuaren ezaugarrien arabera ezintasuna dutela egiaztatu ezean, honako hau bermatuko da: egindako kontratazio berrien % 10 gutxienez talde horietakoak izatea. **Neurketa horretan kontuan hartuko dira baita ere prestazioaren zati bat egiteko azpikontratutako enpresa edo erakundeek egindako kontratuak.** Konpromisoa atxikitako ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN honen bitartez hartuko da.

Kontratua egikaritzeko unean langileak subrogatzeko betebeharra edo aipatutako ehuneko bat betetzea eragozten duten inguruabarrak baldin badaude, enpresak profil hori duten langileak kontratatu beharko ditu kontratazio berri, baja eta ordezkapen guztietan, horiek behar baldin badira edo kontratuaren indarraldian gertatzen baldin badira, ehuneko horretara iritsi arte.

Aurreko ataletan zehaztutakoaren ondorioetarako, kolektibo honen barneko pertsonak izango dira lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituztenak:

Lanik gabe luzaroan egon diren pertsonak

45 urtetik gorako pertsonak

30 urtetik beherakoak

Langabezian dauden DSBE jasotzaileak

---

<sup>25</sup> (...)

3/2009 txostenak hizpidera ekartzen du 53/2008 txostena. Azken horretan, Kataluniako AKKBak esan zuen orokorrean ez dela zuzenbidean onargarria izaera sozialeko zenbait baldintza jasotzen dituen langileen kontratazioa baloratzen duen adjudikazio irizpide bat administrazio klausula berezien pleguetan gehitzea. Hori guztia hitzez hitz kontuan hartuta. Beraz, langabetuak direnen eskulana erabiltzea irizpide soziala dela adierazi zuen, eta hori kontratuaren egikaritze baldintza berezien bitartez bete daitekeela.

Era berean, Kataluniako AKKBaren 2011ko urriaren 28ko 12/11 txostenean hauxe dago jasota: "Gaur egun indarrean dagoen Sektore publikoko kontratuen Legearen 102.-118 gaur egungoa- artikulua arabera, onargarria da langabeziaren aurka lan egitea errazten duten egikaritze baldintzak ezartzea, betiere diskriminatzaileak ez baldin badira".





Etixerik ez duten pertsonak eta baliabide publikoen bitartez gizarte laguntza jasotzen dutenak.

Adin nagusiko gazteak, aurretik Bizkaiko Foru Aldundiaren tutoretzapean egon direnak.

Desgaitasun fisikoa, intelektuala, sentsoriala, bisuala edo mentala duten pertsonak.

Errefuxiatu izaera duten pertsonak.

Bere unean gida honetara atxikitzen direnak.

## 2.-AZPIKONTRATATZEKO KONPROMISOA

Adjudikaziodunak kontratua egikaritzean kontratuaren zati bat azpikontratatzeko baldin badu, kontratuaren % (10)<sup>26</sup> Enplegurako Zentro Berezien Erregistroan edo Laneratze Enpresen Erregistroan izena emanda dauden enpresekin kontratatuko du, betiere kontratuaren xedeko espezifikotasunek hori ahalbidetzen baldin badute.

## 3.-JARRAIPENA

1.- Kontratuaren enpresa edo erakunde adjudikaziodunak proposamenean hartutako konpromisoak betetzen direla egiaztatuko du, eta horretarako honako agiriak aurkeztuko ditu:

**Kontratua formalizatu ondorengo** hilabeteko epean, enpresa edo erakunde adjudikaziodunak kontratatutako pertsonen buruzko datuak jakinaraziko ditu eta horretarako Gizarte Segurantzaren altan eman izanaren kopia eta laneko kontratua aurkeztuko dizkio kontratuaren arduradunari.

2.- Kontratuaren arduradunak enpresa adjudikazioduneari eskuratu ahal izango ditu kontratua betetzen dela kontrolatu eta ebaluatzeko dituen eskumenak betetzeko egoki deritzen agiriak (aurretik adierazitakoak edo beste batzuk), eta horrez gain, jarraipen bilerak edo ebaluazioko aldizkako txostenak egiteko eskatu ahal izango du.

3.-Kontratuaren arduradunak egiaztatu egin beharko du enpresa kontratistak bete egiten duela plantillan 50 pertsona edo gehiago baldin badaude %2 desgaitasuna dutenak kontratatzeke betebeharra, eta Berdintasun Plan bat ezarri duela 250 langile baino gehiago dauden enpresa baldin bada, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitakoa betez.

4.-Kontratatzailerak azken fakturarekin batera aurkeztu beharko du **erantzukizunpeko adierazpena/zinpekoa**, eta horren bitartez egiaztatuko da legez edo kontratuz eskatu ahal zaizkion egikaritze konpromisoak eta baldintza berezi guztiak bete dituela, neurri horiekin lotuta. Adierazpen horrekin batera aurkeztuko du kontratuaren arduradunak horri buruz egindako txostena, eta bertan aztertuko da eraginkortasunez bete direla aintzatetsitakoa eta kontratuaren gainerako betebeharrak.

---

<sup>26</sup> Kontratazio organoak zehaztuko du





**“LANGABEZIAK BEREZIKI ERAGITEN DIEN KOLEKTIBOETAKO PERTSONAK KONTRATATZEA”  
EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIA EZARRI BALDIN BADA, II. ERANSKINEAN GEHITU BEHARREKO  
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

Hala dagokionean, egikaritze baldintza berezia izango da (adjudikazioduna izanez gero) kontratua egikaritzeko egiten diren kontratazio berrietan, bajetan edo ordezkapenetan lehenetsua ematea langabeziak berariaz eragiten dien kolektiboetako pertsonenak izatea. **Modu horretan**, bermatu egingo du gutxienez egiten diren kontratazio berrien (XX) kolektibo horretako pertsonenak izatea. **Neurketa horretan kontuan hartuko dira baita ere prestazioaren zati bat egiteko azpikontratutako enpresa edo erakundeek egindako kontratuak.**



(10) AGIRIA. EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIA.  
SUBROGAZIOKO ETA ENPLEGUA ETA PLANTILLA  
MANTENTZEKO KLAUSULA.



## (10) AGIRIA. EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIA. SUBROGAZIOKO ETA ENPLEGUA ETA PLANTILLA MANTENTZEKO KLAUSULA.

**KONTRATUETAN GEHITZEKO:** Obrak, zerbitzuak, obra emakida eta zerbitzu emakida.

**GEHITZEKO AGIRIA:** Administrazio Klausula Berezien Plegua. Egikaritze baldintza berezia.

### SUBROGAZIOA

### ENPLEGUA ETA PLANTILLA MANTENTZEKO BETEBEHARRA

### EGONKORTASUNA ENPLEGUAN JARRAIPENA

#### 1.- SUBROGAZIOA

Hitzarmen kolektiboaren arabera adjudikaziodunak zenbait lan harremanetan enplegatzaile bezala subrogatzeko betebeharra baldin badu, honako klausulen arabera arautuko da, Sektore publikoko kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 130. artikuluaen arabera:

1.-Kontratazioak langile guztien lan kontratuak subrogatu behar dituela ohartarazten da, betebeharra sortzen den arauan aurrez ikusitako gutxieneko antzinatasunarekin. Hala egin beharko da, nahiz eta beste kontrata batekoa izan, kontratuaren xede den jarduera gauzatzen badute. Ildo horri eutsiz, enpresaburu berria lan eta Gizarte Segurantzaren eskubide eta betebeharretan subrogatua geldituko da.

Adjudikatu beharreko kontratuaren xedearen prestazioa gauzatzen ari den enpresa Enplegurako Zentro Berezia denean, enpresa adjudikaziodunak aipatutako kontrata egikaritzen dauden eta desgaitasuna duten pertsonen enplegatzaile bezala subrogatzeko betebeharra izango du.

2.-Hitzarmen kolektiboa dela eta adjudikaziodunaren subrogazio neurriak izango dituen lan kostuak zehatz-mehatz ebaluatu ahal izateko, kontratu honek eragiten dien langileen kontratu baldintzei buruzko beharrezko informazioa dagokion eranskinean adierazitakoa da, eta idatziz jaso beharko da informazio hori Sektore publikoko kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 130. artikuluan aurreikusitakoarekin bat eginez eman dela.

Era berean adierazi behar da informazioa kontratuaren xedea eskaini duen enpresak eskuratutako informazioarekin egin dela, eraginpeko langileekiko enplegatzailearen baldintza baitu.

3. - Enpresa adjudikaziodunak kontratua zati batean egitea hirugarrenekin kontratatzen badu, kontratista nagusiak bere gain hartuko du kontratua gauzatzean administrazioaren aurrean egongo den erantzukizun osoa, administrazio klausula berezien pleguei eta kontratuaren baldintzei zorrozki erreparatuz. Aurrekoaren harira, gizarte eta lanaren arloko eskakizunak bete beharko dira.

4.- Subrogatu behar den kasuetan, adjudikaziodunak, zerbitzua eskaintzen hasi baino lehen, horretan jardungo duten pertsonen izenekin zerranda aurkeztuko du eskaintzan dagoen lanpostuen zerranda kontuan hartuta. Ildo horri eutsiz, kontratuaren arduradunak edozein unetan planifikatutako lanak gauzatzen dituzten pertsonak identifikatzeko aukera izango du. Era berean, enpresa kontratistak eskaintzako langileak ezingo ditu ordezkatu, ezta kontratazio berriak egin ere, Bizkaiko Foru Aldundiak berariaz baimentzen ez baditu.

5.- Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategineko 44. artikuluan jasotakoa aplikatzea albo batera utzi gabe, subrogazioak eragindako langileen ordaindu gabeko soldatak ordaintzeko betebeharra izango du kontratistak, baita sortutako Gizarte Segurantzarekiko kotizazioak ordaintzekoa ere, kontratua indargabetu eta horiek kontratista berriak subrogatu arren. Edonola ere, betebehar hori ez da izango azken horrena. Kasu horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak aipatutako soldatak ordaindu ez direla egiaztatu ondoren, soldata horiek ordaintzeko kontratistari zor zaizkion zenbatekoak gordeko ditu, eta behin betiko bermea ez du itzuliko soldatok ordaindu direla egiaztatu arte.



## 2.-ENPLEGUA ETA PLANTILLA MANTENTZEKO BETEBEHARRA<sup>27</sup>

SPKLren 202. artikularekin bat eginez, enpresa lizitatzailerak adjudikazioduna baldin bada baldintza teknikoen pleguetan horretarako ezarritako gutxienezko plantilla mantendu beharko du kontratuaren egitaritze aldi osoan zehar. Horretarako, lizitatzailerak erantzukizunpeko aitortzen bidez adierazi beharko du zenbat langile erabiliko dituzten kontratua gauzatzeko, baita izango duten lanaldia ere, urteko lanorduetan zehaztuta. Kontratuan zehar dagoen lantaldea homogeneoa ez bada, egutegi bat aurkeztu beharko da, eta zehatz adieraziko da bertan jardungo diren pertsona kopurua nahiz lanaldia (pertsona bakoitzaren lanorduetan banatuta), baita kontratuaren hasiera eta amaiera eguna ere. Konpromisoa ERANTSITAKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN arabera egingo da.

## 3.- EGONKORTASUNA ENPLEGUAN

SPKLren 202. artikuluan xedatutakoaren arabera, adjudikazioduna izanez gero, enpresa adjudikaziodunak kontratazio berrietan gutxienez % 30 kontratu mugagabeen bidez gauzatzeko konpromisoa hartuko du.

*“Adibidez: Gijóngo Udala.*

**GIJÓNGO UDALEKO KULTURA, HEZKUNTZA ETA HERRI UNIBERTSITATEKO UDAL FUNDAZIOAREN MENPEKO EKIPAMENDUAK GARBITZEKO ZERBITZUA, ENPLEGUAREN KALITATEA ETA EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO AUKERA BERDINTASUNA SUSTATUZ. PROZEDURA IREKIA**

*“Laneko egonkortasuna (20.2. artikulua, D hizkia) Kontratazio iraunkorreko instrukzioa): Enpresa adjudikaziodunak kontratuaren egitaritzean enpresan kontratu mugagabea duen gutxienez pertsona bat atxikitze konpromisoa hartzen du. Horretarako, enpresari indibiduala edo langile bazkidea baliokideak izango dira, betiere horiek baldin badira kontratuaren egitaritzeari atxikitakoak. Era berean, ondorio horietarako ez dira zenbatuko subrogatu behar diren langileak eta jada horrelako kontratua dutenak.*

***Zeregin horiek kontratuko oinarrizko betebeharrak izango dira”.***

## 4.-JARRAIPENA

1.- Kontratuaren enpresa edo erakunde adjudikaziodunak proposamenean hartutako konpromisoak betetzen direla egiaztatuko du, eta horretarako honako agiriak aurkeztuko ditu:

---

<sup>27</sup> Sektore publikoko kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 76. artikuluan hauxe dago zehaztuta: “Kontratazio organoek hautagaiei edo lizitatzailerak eskatu ahal izango diete eta halaxe jasota egon beharko da pleguetan, kaudimena edo hala badagokio sailkapena egiaztatzeaz gain, kontratuaren egitaritzean horretarako nahikoak diren giza baliabideak edo baliabide materialak emateko edo atxikitze konpromisoa hartzeko. Konpromiso horiek kontratuaren barne egongo dira, eta pleguetan edo kontratu agirian oinarrizko betebeharrak bezala agertuko dira 211. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, edo zehapenak ezarri beharko dira 192.2. artikularekin bat eginez, adjudikaziodunak horiek betetzen ez baldin baditu ezartzeko”.



**Kontratua formalizatu ondorengo** hilabeteko epean, enpresa edo erakunde adjudikaziodunak kontratatutako pertsonen buruzko datuak jakinaraziko ditu eta horretarako Gizarte Segurantzaren altan eman izanaren kopia eta laneko kontratua aurkeztuko dizkio kontratuaren arduradunari.

2.- Kontratuaren arduradunak enpresa adjudikaziodunean eskuratu ahal izango ditu kontratua betetzen dela kontrolatu eta ebaluatzeko dituen eskumenak betetzeko egoki deritzon agiriak (aurretik adierazitakoak edo beste batzuk), eta horrez gain, jarraipen bilerak edo ebaluazioko aldizkako txostenak egiteko eskatu ahal izango du.

3.-Kontratuaren arduradunak kontratazio organoari kontratuan aurrez ikusiak dauden eginbeharrak ez betetzearen berri emango dio eta, bidezkoa bada, zehapenak jartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea proposatuko du.

3.-Edonola ere, kontratuaren arduradunak egiaztatu egin beharko du enpresa kontratistak bete egiten duela plantillan 50 pertsona edo gehiago baldin badaude % 2 desgaitasuna dutenak kontratatzeke betebeharra, eta Berdintasun Plan bat ezarri duela 250 langile baino gehiago dauden enpresa baldin bada, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitakoa betetz.

4.-Kontratatzaileak azken fakturarekin batera aurkeztu beharko du **erantzukizunpeko adierazpena/zinpekoa**, eta horren bitartez egiaztatuko da legez edo kontratuz eskatu ahal zaizkion egikaritze konpromisoak eta baldintza berezi guztiak bete dituela, neurri horiekin lotuta. Adierazpen horrekin batera aurkeztuko du kontratuaren arduradunak horri buruz egindako txostena, eta bertan aztertuko da eraginkortasunez bete direla aintzatetsitakoa eta kontratuaren gainerako betebeharrak.



**"2.-ENPLEGUA ETA PLANTILLA MANTENTZEKO BETEBEHARRA" EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIA EZARTZEN DEN KASUETARAKO II. ERANSKINEAN GEHITU BEHARREKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

"Egikaritze baldintza berezia izango da adjudikaziodunak izanez gero kontratua egikaritzeko langile kopurua eta langile horien orduetan adierazitako lanaldia hauek izango direla:

Langile kop.	
Ordu kop.	

Kontratuan zehar lan egiten duen plantilla homogeneoa ez baldin bada, **egutegi bat aurkeztuko** duela adierazten du, eta bertan zehazki adieraziko ditu kontratuaren egikaritzean enplegatuko duen pertsona kopurua, pertsona bakoitzeko laneko orduen arabera urteko lanaldia indibidualizatuz, baita kontratuaren hasiera eta bukaera datak ere".

(e)n, 2018ko aren (e)an

Sin.





## (11) AGIRIA. AZPIKONTRATAZIOA



## (11) AGIRIA. AZPIKONTRATAZIOA

**KONTRATUETAN GEHITZEKO:** Kontratu mota guztietan.

**GEHITZEKO AGIRIA:** Administrazio Klausula Berezien Plegua

### **AZPIKONTRATAZIOA**

Kontratua zuzenduko duen azpikontratazioari buruzko berariazko arauak Administrazio Klausula Berezien Pleguen azalean zehaztuko dira, hala dagokionean.

Horri dagokionez, kontratistak zerbitzuaren zati bat hitzartu ahalko du hirugarrenekin, plegu honetako inprimaki azalak bestelakoa adierazi ezean edo, haren izaera eta baldintzak direla eta, adjudikaziodunak zuzenean gauzatu behar dela ondorioztatu ezean.

Pleguaren azalean ezarritako ehunekoa zenbatzeko ez dira kontuan hartuko kontratista nagusiari lotutako enpresekin egindako azpikontratuak; azpikontratu horiek izango dira Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aurreikusitako inguruabarren barne daudenak.

Lizitatzaileek Erantzukizunpeko adierazpenaren II. eranskinean adierazi beharko dute zein den azpikontratatzeko asmoa duten kontratuaren zatia, eta eskainitako prezioa oinarri hartuta horren ehunekoa eta enpresaren izena edo profila adierazi beharko dituzte, egikaritzea aginduko dien azpikontratisten gaitasun profesional edo teknikoaren baldintzen arabera definitutakoak.

Azpikontratuak egiteko SPKLren 215. artikuluan ezarritako arauak bete beharko dira. Edonola ere, adjudikaziodunak kontratuaren arduradunari jakinarazi beharko dio aurrez eta idatziz azpikontratuak egiteko asmoa duela. Hala, azpikontratatzeko asmoa duen prestazioaren zatia eta azpikontratatzen nortasuna adierazi beharko ditu, eta behar bezala justifikatu beharko du azken horrek egikaritzeko gaitasuna duela, dituen elementu teknikoak, giza baliabideak eta esperientzia oinarri hartuta. Azpikontratatzen xedeko kontratuaren zatia gauzatzeko sailkapen egokia baldin bada, inguruabar hori jakinaraztean, kontratistak ez du justifikatu beharko horretarako gaitasuna. Azpikontratatzen gaitasuna egiaztatzea azpikontratu egin eta berehala gauzatu ahal izango da, hori egitea beharrezkoa baldin bada larrialdiko egoeraren bati erantzuteko edo larrialdiko neurriak hartu baldin badira, eta hori nahikoa justifikatzen baldin bada.

SPKLren 215. artikuluan ezarritako arauen arabera azpikontratazioa izapidetu ondoren, kontratuaren arduradunak, ados dagoela adierazi eta gero, Kontratazio Zerbitzura bidaliko du honako dokumentazioa:

Azpikontratatzen identifikazioa eta azpikontratuaren ehunekoa adjudikazio zenbatekoaren arabera.

Azpikontratatzen gaitasuna egiaztatzen duen dokumentazioa.

Azpikontratatzen egindako erantzukizunpeko adierazpena, administrazioarekin kontratatzeko debeku arrazoien barne ez dagoela adierazten duena, SPKLren 71. artikulurekin bat eginez.

Azpikontratatzen zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Adjudikaziodunaren eta azpikontratatzen arteko kontratu agiria, azpikontratatzen ordainketak egingo zaizkion modua eta epeak adierazten dituenak.

Azpikontratatzen bakarrik kontratista nagusiaren aurrean izango dituzte betebeharrak, eta azken horrek, beraz, kontratuaren egikaritzearen ardura guztia izango du administrazioaren aurrean.

SPKLren 215. artikuluan azpikontratazioarako baldintzak ezarrita daude (azalean azpikontratatzeko ezarri daitezkeen gehienezko muga bereziari, azpikontratatzen gaitasuna duela ez egiaztatzeari, larrialdiko egoeraren inguruabar erabakigarriak ez egiaztatzeari edo azpikontratazioa berehala egin beharrezkoa egiten duten inguruabarrei buruzkoak), eta horiek ez betetzeak, SPKLren aurreikusitako beste ondorio batzuekin bat eginez eta kontratuaren egikaritzean izango duten eraginaren arabera, honako ondorioak izan ditzake:



- a) Kontratatari azpikontratuaren % 50era arteko zehapena ezarriko zaio edo,
- b) Kontratua indargabetuko da oinarritzko sailkapena baldin badu eta betiere 211. artikuluko 1. atalaren f) hizkiaren bigarren paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen baldin badira.

*Bukatzeko, kontratistak nahitaez ordaindu behar die azpikontraturiko enpresei edo enpresa hornitzaileei hitzartutako prezioa epe jakin batzuetan, baina epe hori ezin izan daiteke 198. artikuluan administrazioaren eta kontratistaren arteko harremanetarako ezarritakoa baino okerragoa. Kontratista nagusiak faktura onesten duen egunetik aurrera zenbatuko da epea, hain zuzen ere azpikontratatik edo hornitzaileak emandako faktura. Gainera, fakturaren data eta epealdia agerraraziko dira.*

### AZPIKONTRATAZIOAREN JARRAIPENA

1.- Bizkaiko Foru Aldundiak kontratuaren arduradunaren bitartez egiaztatu ahal izango du kontratista adjudikaziodunak kontratuan parte hartzen duten azpikontrata guztiei egin beharreko ordainketak zehatz-mehatz gauzatu dituela.

2.- Kasu horretan, kontratista adjudikaziodunak kontratuaren arduradunari bidaliko dio azken horrek hala eskatzen duenean (**adierazi gutxieneko aldizkakotasuna**)<sup>28</sup>, kontratuan parte hartzen duten azpikontraten zerrenda xehakaturik horien parte hartzea gauzatu denean, eta horrez gain, ordainketa epearekin zuzeneko harremana duten azpikontratazio baldintzak ere bidaliko dizkio. Halaber, kontratuaren arduradunak hala eskatuta, kontratistak SPKLren 216. artikulua eta 3/2004 Legeak, abenduaren 29koak, xedatutako legezko ordainketak epeetan, prestazioa amaitzen denean, bete dituela adierazten duen frogagiria aurkeztu beharko du. Egikaritze baldintza berezi hori ez betetzea OSO LARRITZAT joko da eta administrazioak azpikontratazioaren % 10era arteko zehapena ezarri ahal izango dio”.

3.-Edonola ere, kontratuaren arduradunak egiaztatu egin beharko du enpresa kontratistak bete egiten duela plantillan 50 pertsona edo gehiago baldin badaude % 2 desgaitasuna dutenak kontratatzeke betebeharra, eta Berdintasun Plan bat ezarri duela 250 langile baino gehiago dauden enpresa baldin bada, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitakoa betez.

4.- Kontratuaren arduradunak enpresa edo erakunde adjudikazioduneari eskuratu ahal izango ditu kontratua betetzen dela kontrolatu eta ebaluatzeko dituen eskumenak betez egoki deritzon agiriak, eta horrez gain, jarraipen bilerak edo ebaluazioko aldizkako txostenak egiteko eskatu ahal izango du, bereziki hauek.

5.- Kontratatzaileak azken fakturarekin batera aurkeztu beharko du **erantzukizunpeko adierazpena/zinpekoa**, eta horren bitartez egiaztatuko da legez edo kontratuz eskatu ahal zaizkion egikaritze konpromisoak eta baldintza berezi guztiak bete dituela, neurri horiekin lotuta. Adierazpen horrekin batera aurkeztuko du kontratuaren arduradunak horri buruz egindako txostena, eta bertan aztertuko da eraginkortasunez bete direla aintzatetsitakoa eta kontratuaren gainerako betebeharrak.

---

<sup>28</sup> Kontratazio organoak, kontratuaren iraupena kontuan hartuz zehaztu beharko du adjudikaziodun kontratistak arduradunari kontratuari buruzko informazioa bidaltzeko aldizkakotasuna.



(12) AGIRIA.	EGIKARITZE	BALDINTZA	BEREZIA.
IRIZPIDE	ETIKOAK	ETA	BIDEZKO
MERKATARITZAKOAK.			



## (12) AGIRIA. EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIA. IRIZPIDE ETIKOAK ETA BIDEZKO MERKATARITZAKOAK.

**KONTRATUETAN GEHITZEKO:** Kontratu mota guztietan.

**GEHITZEKO AGIRIA:** Administrazio Klausula Berezien Plegua. Egikaritze baldintza berezia.

### **BIDEZKO MERKATARITZAKO PRODUKTUAK GEHITZEKO BETEBEHARRA**

### **OINARRIZKO LAN BALDINTZAK ETA LANE-REN OINARRIZKO ARAUAK BETETZEKO BETEBEHARRA**

#### **JARRAIPENA**

“Bidezko merkataritza merkataritza elkartrukeko harremana da, elkarriketan, gardentasunean eta errespetuan oinarritutakoa, nazioarteko merkataritzan ekitate gehiago egotea bilatzen duena. Garapen iraunkorrari ekarpenak egiten dizkio merkataritza baldintza hobek eskainiz eta ekoizle eta langile txiki baztertuen eskubideak bermatuz, bereziki hegoaldekoenak. Bidezko merkataritza erakundeek, kontsumitzaileen laguntzarekin, lan aktiboa egiten dute ekoizleei lagunduz, jendartea sentsibilizatuz eta kanpainak eginez ohiko nazioarteko merkataritzako arauak eta praktikak aldatzea lortzeko”.

FINE, Bidezko merkataritzako printzipioen gutuna, 2009

### **1.- BIDEZKO MERKATARITZAKO PRODUKTUAK GEHITZEKO BETEBEHARRA.**

Prestazioan bidezko merkataritzako produktuak gehitzeko aukera duten kontratueta eta betiere kontratazio organoak berariaz aukera hori dagoela zehazten baldin badu, administrazio baldintza berezien pleguetan egikaritze baldintza berezi bat gehituko da, eta horren arabera, kontratuaren enpresa edo erakunde adjudikaziodunak zerbitzua ematean edo horniduren edukian bidezko merkataritzako produktuak gehitu beharko ditu.

Betebehar hori produktu zehatz batzuk erabiltzeari buruzkoa izan daiteke, besteak beste kafea, tea, infusioak, kakaoa, ehunezko produktuak edo bestelakoak. Era berean, zenbait produkturen zenbatekoak edo ehunekoak bidezko merkataritzakoak izatea eskatu ahal izango da.

Inportatutako eta banatutako produktuak bidezko merkataritzakoak direla onartuko da produktu horiek Europako Parlamentuak Bidezko Merkataritza eta Garapenari buruz emandako 2005/2245 Ebazpeneko (INI) 2. artikuluan jasotako estandarrak betetzen baldin badituzte. Horrez gain, nazioarteko mailan onetsitako berme sistema hauek egiaztatu beharko du: WFTOren egiaztapena, erakundeak bermatzen dituen Bidezko Merkataritzako Mundu Erakundeak emana edo Fairtrade zigilua, Bidezko Merkataritzako Zigiluaren Erakundeak emana, produktuak egiaztatzen dituen eta ohiko enpresen eskura dagoena edo pareko ziurtagiria.

Betebehar hori ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREKIN bat eginez gauzatuko da.

### **2.- OINARRIZKO LAN BALDINTZAK ETA LANE-REN OINARRIZKO ARAUAK BETETZEKO BETEBEHARRA**

Administrazio klausula berezien pleguan egikaritze baldintza berezi bat gehituko da, eta horren arabera, ekoizpen kate osoan zehar oinarrizko lan baldintzak errespetatzeko betebeharra ezarriko da, eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko arauak bete beharko dira, bereziki hauek:



29. eta 105. arauak, behartutako lana deuseztatzeari buruzkoak.

87. eta 98. arauak, sindikatze eta elkartze askatasunari nahiz negoziazio kolektiboari buruzkoak.

100. araua, gizonen eta emakumeen eskulanaren artean ordainsarien berdintasunari buruzkoa, lanak balio bera badu.

111. araua, enplegua lortzeko orduan eta lan baldintzetan arraza, kolore, sexu, erlijio, iritzi publiko, jatorri nazional edo gizarte jatorriarengatiko diskriminazioaren aurkakoa.

138. araua, haurren ustiapen eta lana ezeztatzeari buruzkoa.

182. araua, haurren lan modu okerrenak debekatzeari eta deuseztatze beralako ekintzari buruzkoa.

Betebehar hori **ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREKIN** bat eginez gauzatuko da.

### **3.-JARRAIPENA.**

Enpresa edo erakunde kontratatzaileak jasotako produktuen fakturak egiaztatzea (faktura horietan adieraziko dira xehetasun zehatzak eta zenbatekoak) eta horien jatorria egiaztatzea WFTOren egiaztapenaren, FairTrade zigiluaren edo ziurtagiri baliokidearen bitartez.

Oinarrizko lan baldintzak errespetatzeko betebeharra eta LANE-ren oinarrizko arauak betetzea hauen bitartez egiaztatuko da:

SA 8000/Fair Wear Foundation, Made in Green, edo baliokidea den jokaera kodeko ziurtagiriaren bidez.

Kanpoko enpresek egindako ikuskaritza sozialeko ziurtagiriaren bitartez, edo

Zinpeko deklarazioaren edo zuzenbidean onartutako edozein probaren bitartez, egiaztatzen baldin badu Europako Parlamentuak Bidezko Merkataritza eta Garapenari buruz emandako 2005/2245 Ebazpeneko (INI) 2. artikuluan jasotako estandarrak betetzen direla.

3. Kontratuaren egikaritzea berrikusteko eta prestazioa zuzen ematen dela bermatzeko kontratazio organoak izendatutako arduradunak egingo du enpresa edo erakunde adjudikaziodunak hartutako kontratu betebeharrak betetzen dituenaren jarraipena, kontratu honetan zehaztutakoa betez. (Jarraipenaren aldizkakotasuna eta kontratuaren arduradunaren erantzukizuna).
4. Kontratuaren arduradunak kontratazio organoari kontratuan aurrez ikusiak dauden eginbeharrak ez betetzearen berri emango dio eta, bidezkoa bada, zehapenak jartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea proposatuko du.
5. Edonola ere, kontratuaren arduradunak egiaztatuko du enpresa kontratistak bete egiten duela plantillan 50 langile edo gehiago baldin badaude langileen %2 desgaitasuna dutenak izateko betebeharra eta Berdintasun Plan bat izateko legezko edo ohiko betebeharra duten enpresek plan hori xedatu dutela ere egiaztatu beharko du.



6. Interesa duen edonork detektatzen baldin badu kontratistaren batek ingurumen araubidea edo aplikatu beharreko kontratuaren betebeharrak betetzen ez dituela, salaketa edo erreklamazioa egin ahal izango du. Salaketa horiek egin ondoren egiaztaketa materiala egingo da, eta kontratuaren arduradunak berariazko txostena egingo du.
7. Kontratatzaileak azken fakturarekin batera aurkeztu beharko du **erantzukizunpeko adierazpena/zinpekoa**, eta horren bitartez egiaztatuko da legez edo kontratuz eskatu ahal zaizkion egikaritze konpromisoak eta baldintza berezi guztiak bete dituela, neurri horiekin lotuta. Adierazpen horrekin batera aurkeztuko du kontratuaren arduradunak horri buruz egindako txostena, eta bertan aztertuko da eraginkortasunez bete direla aintzatetsitakoa eta kontratuaren gainerako betebeharrak.



(13) AGIRIA. EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIA  
IRIZPIDE EKOLOGIKOAK BETETZEN DITUZTEN  
ELIKAGAIEN EROSKETA PUBLIKOA SUSTATZEKO





### (13) AGIRIA. EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIA IRIZPIDE EKOLOGIKOAK BETETZEN DITUZTEN ELIKAGAIEN EROSKETA PUBLIKOA SUSTATZEKO

**KONTRATUETAN GEHITZEKO:** Zerbitzu kontratuak, hornidura kontratuak eta zerbitzu emakida kontratuak.

**GEHITZEKO AGIRIA:** Administrazio Klausula Berezien Plegua. Egikaritze baldintza berezia.

### ZENBAIT PRODUKTU EKOLOGIKO, EKOIZPEN INTEGRATUDUNAK, FRESKOAK ETA/EDO DENBORALDIKOAK KONTSUMITZEKO BETEBEHARRA

#### 1. JARRAIPENA

##### 1.- ZENBAIT PRODUKTU KONTSUMITZEKO BETEBEHARRA.

Enpresa adjudikaziodunak kontratuaren xedea gauzatzean produktu ekologikoak, ekoizpen integratukoak, freskoak eta/edo denboraldikoak erabili beharko ditu, baita Babestutako Jatorrizko Izendapena dutenak, Babestutako Marka Geografikoak dituztenak edo horien baliokideak ere, zerbitzua ematean edo horniduraren edukian.

Betebehar hori kontratazio organoak zehaztuko du eta zenbait produktu zehatzei buruzkoa (adibidez: barazkiak, fruta, haragia, esnekiak edo arraina), zenbateko zehatz bati buruzkoa edo prezioaren ehuneko bati buruzkoa izan daiteke, lehenengo paragrafoan adierazitako produktuak lortzeko aurrekontuaren gutzitzkoaren arabera kalkulatuta hain zuzen ere.

Horri buruz, ikusi IHOBEn zehaztutako elikagaiak modu berdean erosteko irizpideak (jantokiaren, aldizkako catering-aren eta vending-aren arabera banatuta) honako estekan:

<http://www.ihobe.eus/ContenidosPlanos/Ficha.aspx?IdMenu=2FAE09B5-FBB4-4CC2-8655-49D53CBBDF01&Idioma=es-ES>

Betebehar hori ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN bat aurkeztuz egiaztatuko da.

Helburu horietarako, **nekazaritza ekologikoa** nekazaritza laborantza sistema bat da, oinarria modu iraunkor eta orekatuan baliabide naturalak modu onenean erabiltzea duena, produktu kimikorik edo genetikoki aldatutako organismorik erabili gabe ez ongarrientzat, ezta izurriteak saihesteko ere. Modu horretan, produktu organikoak lortzen dira eta era berean luraren emankortasuna kontserbatzen da eta ingurumena errespetatzen da, Produktu ekologikoak ekoizteari eta etiketatzeari buruzko 2007ko ekainaren 28ko CE 834/2007 zuzentarauaren arabera.

Ekoizpen integratuko produktuak ekoizpen mekanismoak, metodo biologikoak eta kontrolako metodo kimikoak erabiliz hazitako produktuak dira, eta hala, nekazaritzako ingurumen eraginak gutxitzea lortu nahi da 1201/2002 Errege Dekretuarekin bat eginez. Horren bitartez arautzen dira nekazaritza produktuen ekoizpen integratua eta eratorritako arau teknikoak.

**Produktu freskoa** Espainiako Elikagai Kodearen testua onesten duen irailaren 21eko 2484/1967 Dekretuan edo produktu bakoitzaren arau espezifikoen jasotako terminoekin bat eginez definitzen da.



**Denboraldiko produktuak** aire zabalean hazten direnak edo eskualdean denboraldi bakoitzean arrantzatzen direnak dira, eta hori guztia IHOBEn eresketa berdeko irizpide sinplifikatuetan jasotako denboraldiko produktuen egutegiarekin bat eginez:

[http://www.ihobe.eus/documentos/imagenpaginas/consumo/Alimentacionpermanente/CAS/9-COMEDORES\\_CRIT\\_SIMP\\_CAS.pdf](http://www.ihobe.eus/documentos/imagenpaginas/consumo/Alimentacionpermanente/CAS/9-COMEDORES_CRIT_SIMP_CAS.pdf)

Irizpide hori zerbitzatu beharreko menuetan dauden fruta, barazki eta arrain nagusietan aplikatuko da.

## **2.-JARRAIPENA.**

Kontratuaren enpresa edo erakunde adjudikaziodunak hiru hilero aurkeztu beharko ditu jasotako elikagaien fakturak ziurtagiriekin batera, guztizko pisua eta egiaztatzen duen kontrolako agintaritzza edo organismoa adieraziz.

Kontratuaren egikaritzea berrikusteko eta prestazioa zuzen ematen dela bermatzeko kontratazio organoak izendatutako arduradunak egingo du enpresa edo erakunde adjudikaziodunak hartutako kontratu betebeharrak betetzen dituenaren jarraipena, produktuak entregatzean kontratuan zehaztutakoa betez, eta bereziki ondoren zehazten diren alderdiei buruz **hauek daudela egiaztatu beharko du:**

Nekazaritza ekologikoko produktuei buruz. Ziurtagiria edo (ES-ECO-026-VAS) kodea duen etiketa espezifiko eta Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren (ENEK) zigitua, edo modu baliokidean produktuaren egiazkotasuna ziurtatzen duen erakundearen izena eta kodea.

ekoizpen integratuko produktuekin: Ziurtagiria edo Ekoizpen Integratuko etiketa espezifiko, Euskolabel edo baliokidea.

**Produktu freskoak.** Espainiako Elikagai Kodearen testua onesten duen irailaren 21eko 2484/1967 Dekretua betetzea edo produktu bakoitzaren arau espezifikoak betetzea.

**Denboraldiko produktuak.** Produktuen bilketa elikagaien eskuragarritasun egutegiari egokitzea, eta halabeharrez gehitu beharko da administrazio klausula berezien pleguetan, eta egiaztatu egin beharko da menuak sortzeko erabilitako elikagai nagusien hornidura aurretik adierazitako denboraldiko produktuen egutegiaren barne dagoela.

Edonola ere, kontratuaren arduradunak egiaztatu egin beharko du enpresa kontratistak bete egiten duela plantillan 50 pertsona edo gehiago baldin badaude % 2 desgaitasuna dutenak kontratatzeke betebeharra, eta berdintasun Plan bat ezarri duela 250 langile baino gehiago dauden enpresa baldin bada, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitakoa betez.

Kontratuaren arduradunak kontratazio organoari kontratuan aurrez ikusiak dauden eginbeharrak ez betetzearen berri emango dio eta, bidezkoa bada, zehapenak jartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea proposatuko du.

Kontratatzailerak azken fakturarekin batera aurkeztu beharko du **erantzukizunpeko adierazpena/zinpekoa**, eta horren bitartez egiaztatuko da legez edo kontratuz eskatu ahal zaizkion egikaritze konpromisoak eta baldintza berezi guztiak bete dituela, neurri horiekin lotuta. Adierazpen horrekin batera aurkeztuko du kontratuaren arduradunak horri buruz egindako txostena, eta bertan aztertuko da eraginkortasunez bete direla aintzatetsitakoa eta kontratuaren gainerako betebeharrak.



(14) AGIRIA. EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIA.  
COMPLIANCE PENALA



## (14) AGIRIA. EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIA. COMPLIANCE PENALA

**KONTRATUETAN GEHITZEKO: Milioi bat euro** edo gehiagoko balio estimatua duten zerbitzu emakida, zerbitzu eta hornidura kontratueta eta obra kontratueta eta obra publiko emakida kontratueta, balio estimatua **2 milioi euro** edo gehiagoko duteneta.

**GEHITZEKO AGIRIA:** Administrazio Klausula Berezien Plegua. Egikaritze baldintza berezia.

### COMPLIANCE PENALA

Kontratuaren erakunde adjudikaziodunak kontratua formalizatzean erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du bere antolakuntza eta kudeaketa eredu badagoela eta eraginkortasunez aplikatu dela adieraziz. Bertan gehitu beharko dira erakunde adjudikaziodunaren barnean delituak saihesteko zaintza eta kontroleko neurri egokienak. Erantzukizunpeko adierazpen hori batera bidaliko dute administrazio organoak (legez ordezkapen eta sinadura funtzioak egotzita dituen pertsonaren bitartez) eta ereduaren eragiketarako egotzitako ekimen eta kontroleko botere autonomoak dituen pertsona juridikoaren barneko organoak.

Erakunde adjudikaziodunari Kode Penaleko 3. ataleko 31bis artikuluan zehaztutakoa aplikatu behar zaionean, erantzukizunpeko adierazpen hori bakarrik bere administrazio organoak aurkeztu ahal izango du, Kode Penaleko 31bis artikulua 2. ataleko 2. baldintzak zehaztutako ikuskaritza funtzioak zuzenean jaso dituelako. Adierazpen horren bitartez bermatuko dute sinatzaileen erantzukizunpean edukia egiazkoa eta zehatza dela, eta hala, ziurtatutako alderdiak faltsuak edo zehatzak ez baldin badira eratorri daitezkeen legezko ondorioen kargu egingo dira.

Kontratuaren adjudikaziodunak kontratua formalizatzean Compliance Penaleko Kudeaketa Sistema bat jaso baldin badu UNE 19601 arauarekin batera, "Compliance Penaleko Kudeaketa Sistemak. Erabilerarako orientaziorako baldintzak" izenekoa, organo administrazioak erantzukizunpeko adierazpena bidali ordeztu eta ereduaren eragiketaren ardura duen barneko organoak egin ordeztu, ziurtagiri bat aurkeztu ahal izango du, eta horren bidez egiaztatuko du ENACEk ziurtatutako kanpoko erakunde baten sistema duela.

### JARRAIPENA

1.- Kontratuaren egikaritzea berrikusteko eta prestazioa zuzen ematen dela bermatzeko kontratazio organoak izendatutako arduradunak egingo du adjudikaziodunak hartutako kontratu betebeharrak betetzen dituenaren jarraipena, kontratu honetan zehaztutakoa betez.

2.- Organo kontratatzaileak kontratuaren egikaritzea berrikusteko eta hitzartutako prestazioa zuzen egiten dela bermatzeko izendatutako arduradunak kontuak ikuskatzeko eskubidea gordeko du, bakarrik edo hirugarrenen bidez. Hala, adjudikaziodunak egindako adierazpenak ikuskatu ahal izango ditu eta egiaztatu ahal izango du ziurtatutako terminoetan edo adjudikaziodunak aitortutakoetan eredu aplikatu dela.

3.-Kontratuaren arduradunak kontratazio organoari kontratuan aurrez ikusiak dauden eginbeharrak ez betetzearen berri emango dio eta, bidezkoa bada, zehapenak jartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea proposatuko du.

4.- Kontratuaren arduradunak edo obra zuzendariak (mota horretako kontratueta) aldizka berrikusiko du pleguan zuzenean adjudikaziodunari ezarri zaizkion betebeharrak edo adjudikaziodunak eskainitakoak bete direla, baita indarrean dagoen ingurumen legeriatik eratorritakoak ere.



5.-Kontratuaren arduradunak kontratazio organoari kontratuan aurrez ikusiak dauden eginbeharrak ez betetzearen berri emango dio eta, bidezkoa bada, zehapenak jartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hasia proposatuko du.

6.-Kontratatzaileak azken fakturarekin batera aurkeztu beharko du **erantzukizunpeko adierazpena/zinpekoa**, eta horren bitartez egiaztatuko da legez edo kontratuz eskatu ahal zaizkion egikaritze konpromisoak eta baldintza berezi guztiak bete dituela, neurri horiekin lotuta. Adierazpen horrekin batera aurkeztuko du kontratuaren arduradunak horri buruz egindako txostena, eta bertan aztertuko da eraginkortasunez bete direla aintzatetsitakoa eta kontratuaren gainerako betebeharrak.



(15) AGIRIA. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO  
EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIA



## (15) AGIRIA. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIA

**KONTRATUETAN GEHITZEKO:** Zerbitzu eta obra, zerbitzu emakida eta obra emakida kontratuetan

**GEHITZEKO AGIRIA:** Administrazio Klausula Berezien Plegua.

1. LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEKO ARAUBIDEA BETETZEA
2. ENPRESA BARNEKO ARDURADUN BAT IZENDATZEA SEGURTASUN ETA OSASUN ALORRETARAKO.

### 1.-LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEKO ARAUBIDEA BETETZEA

Kontratatutako lana gauzatzeko langileei dagokienez laneko arriskuak prebenitzeko indarreko araudia zehatz-mehatz bete beharko du, eta enpresa azpikontratistek **ere** hala badagokio, horiek betetzen dituztenaren konpromisoa hartuko dute.

**Zehazki enpresa kontratistak, eta hala badagokio azpikontratistak:**

Kontratatutako jarduera hasi aurretik **egiaztatu beharko du** honako betebeharrak betetzen direla, eta horretarako plegu honekin batera dauden hauek aurkeztu beharko ditu Kontratazio Zerbitzuan Laneko Arriskuak Saihesteko Eranskinarekin batera:

- a) Indarrean dagoen legeriaren arabeko antolakuntza prebentiboko modalitate bat hartu izana.
- b) Kontratatutako jarduerari dagokion arriskuen ebaluazioa eta jarduera prebentiboaren plangintza izatea.
- c) Jarduerak koordinatzeko sistema izatea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 24. artikuluekin bat eginez.
- d) Bere arriskuen ebaluazioa dela-eta prebentzioko baliabide bat egoteko eskatzen duten zeregin eta/edo jardueren zerrenda bat edukitzea.
- e) Kontratua egikarituko duten langile guztiek, bertakoek nahiz kanpokoek, bermatuta izan beharko dituzte honakoak:

- Laneko ekipamenduak 1215/1997 Errege Dekretuan jasotakoaren arabekoak izan beharko dira, eta makinek CE markatua izan beharko dute.



- Osasuna arriskuen arabera zaindu beharko da.
- Arriskuen eta prebentzio eta babes neurrien inguruko informazio eta prestakuntza egokia izan beharko da.
- Beharrezko babes neurri kolektiboak eta indibidualak.
- Kontratua egikaritzeko lekuan larrialdi neurriak.
- Arrisku larri eta berehalakoan aurrean neurriak hartu beharko dituzte.

- f) Adingabeko langileak, bereziki zaugarriak direnak eta amatasuna babesten dela bermatzea.
- g) Aplikatu behar baldin bada, laneko arriskuen prebentziorako legezko ikuskaritza gauzatu izana.

2.- Enpresak kontratuaren egikaritzearen zati bat azpikontratatu baldin bada, azpikontratatuakoei eskatu beharko die **betetako Laneko Arriskuak Prebenitzeko Eranskina**, eta kopia bat entregatuko dio Bizkaiko Foru Aldundiari azpikontratatuak jarduera hasi aurretik.

3.- Bizkaiko Foru Aldundiak beharrezko neurriak hartuko ditu **klausula hau** betetzen dela egiaztatzeko. Kontratistak klausula honetan jasotako betebeharrak betetzen ez baldin baditu, Bizkaiko Foru Aldundiak beharrezko neurriak hartzeko eskatu ahal izango du adierazitako betebeharrak guztiz ikuskatzen direla bermatzeko eta araubidean aurreikusitako ekintza guztiak egikaritzeko.

- Klausula honetan jasotako betebeharren bat betetzen ez baldin bada larritzat joko da eta zehapena ezarriko da, kontratuaren prezioaren % 7 eta % 10 bitartekoa BEZ kanpo. Hala, ezarritako zehapenen guztizkoak ezin izango du kontratuaren prezioaren % 50 gainditu.
- Egikaritze baldintza berezi hori OINARRIZKOA da eta ez baldin bada betetzen kontratua indargabetuko da, SPKLren 211.1 f) artikuluan zehaztutakoarekin bat eginez.

## 2.-ENPRESA BARNEKO ARDURADUN BAT IZENDATZEA SEGURTASUN ETA OSASUN ALORRETARAKO

Enpresa kontratistak prebentzio planaren arabera, zuzendaritza lanak betetzen dituzten eta laneko arriskuen prebentzioa beren jardueretan eta erabakietan barne hartzeko beharrezkoa den prestakuntza jaso duten pertsonak eduki beharko ditu.

Era berean, enpresa kontratistak enpresako langile bat segurtasunaren eta osasunaren arduradun izendatuko du. Hala, langile horrek prebentzioan espezializatutako prestakuntza izan beharko du eta laneko arriskuen prebentziorako plana kudeatuko du.





## JARRAIPENA.

1.-Eraikuntza obretako segurtasunaren eta osasunaren gutxieneko xedapenei buruzko 1627/1997 Errege Dekretua aplikatu behar den kontratuetan, enpresa kontratistak segurtasunari eta osasunari buruzko koordinazio jarraibideak jarraituko ditu. Hala, horiek segurtasunerako koordinatzaileak eta/edo obraren zuzendaritza fakultatiboak eman beharko ditu.

Gainerako kasuetan, enpresa kontratistak gutxienez sei hilean behin Segurtasuna eta Osasuna Koordinatzeko bilera bat antolatu beharko du eta horren akta idatzi beharko du. Bilera horretara deituak izango dira enpresa adjudikazioduna, kontratuaren ardura duen BFAko zerbitzua BFAko Lan Arriskuen Prebentziorako eta Lan Osasunerako Zerbitzuaren teknikari baten bitartez eta azpikontratutako enpresak, baldin badaude. Edonola ere, Segurtasuna eta Osasuna Koordinatzeko bilera horietako akten kopia bat bidaliko zaio BFAko Lan Arriskuen Prebentziorako eta Lan Osasunerako Zerbitzuari.

2.-Kontratuaren arduradunak enpresa edo erakunde adjudikaziodunean eskuratu ahal izango ditu kontratua betetzen dela kontrolatu eta ebaluatzeko dituen eskumenak betez egoki deritzon agiriak, eta horrez gain, jarraipen bilerak edo ebaluazioko aldizkako txostenak egiteko eskatu ahal izango du.

3.-Kontratuaren arduradunak kontratazio organoari kontratuan aurrez ikusiak dauden eginbeharrak ez betetzearen berri emango dio eta, bidezkoa bada, zehapenak jartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea proposatuko du.

4.-Edonola ere, kontratuaren arduradunak egiaztatuko du enpresa kontratistak bete egiten duela plantillan 50 langile edo gehiago baldin badaude langileen % 2 desgaitasuna dutenak izateko betebeharra eta berdintasun Plan bat izateko legezko edo ohiko betebeharra duten enpresek plan hori xedatu dutela ere egiaztatu beharko du.

5.-Kontratatzaileak azken fakturarekin batera aurkeztu beharko du **erantzukizunpeko adierazpena/zinpekoa**, eta horren bitartez egiaztatuko da legez edo kontratuz eskatu ahal zaizkion egikaritze konpromisoak eta baldintza berezi guztiak bete dituela, neurri horiekin lotuta. Adierazpen horrekin batera aurkeztuko du kontratuaren arduradunak horri buruz egindako txostena, eta bertan aztertuko da eraginkortasunez bete direla aintzatetsitakoa eta kontratuaren gainerako betebeharrak.



## (16) AGIRIA. INGURUMENEN ADJUDIKAZIO IRIZPIDEA

**KONTRATUETAN GEHITZEKO:** Kontratu mota guztietan.

**GEHITZEKO AGIRIA:** Administrazio Klausula Berezien Plegua.

Kontratuaren ezaugarriek ahalbidetzen dutenean, administrazio klausula berezien pleguetan gehitu ahal izango dira adjudikazio irizpide bat edo batzuk, eskainitako produktuaren edo zerbitzuaren ingurumen alderdiak baloratzeko, baldintza teknikoen pleguan edo aplikatu beharreko sektore arauetan zehaztutakoez haratago.

Eskainitako produktuari, zerbitzuari, produktuaren elaborazio prozesuari edo kontratuaren egikaritzeari buruzko ingurumen **adjudikazio irizpidea** hauen ingurukoa izan daiteke beste batzuen artean:

- a) Baliabide naturalen, lehengaien, erregaien eta uraren kontsumoa murriztea.
- b) Hondakin arriskutsuak eta ez arriskutsuak ahalik eta gutxien erabiltzea, eta horiek berriz ere erabiltzea edo birziklagarriak izatea.
- c) Eraginkortasun energetikoa eta energia iturri berriztagarriak erabiltzea.
- d) Kontratuaren xede den zerbitzuko ingurumen planak aurkeztea.
- e) CO<sub>2</sub>, HFC, PFC eta SF<sub>6</sub> berotegi efektuko gasak emititzea murriztea.
- f) PM<sub>10</sub>, PM<sub>2,5</sub> partikulak COV disolbagarriak eta nitrogeno oxidoak dituzten emisio kutsagarriak murriztea.
- g) Uren politikaren alorrean jarduteko erkidegoko esparrua ezartzen duen urriaren 23ko 2000/60/CE zuzentarauan lehenetsitako substantziak uretara isurtzea murriztea.
- h) Ugalketarako substantzia arriskutsu kantzerigeno, mutageniko edo toxikoak (CMR) dituzten produktuak edo substantziak erabiltzea deuseztatzea edo murriztea, eta bereziki R 50/53 arriskua dutenak.
- i) Azken produktuan material birziklatuak gehitzea eta kalterik ez eragitea.
- j) Azken produktua biodegradagarria izatea.

OHARRA: Adjudikazio irizpidea idaztean edonola ere ez dira erabiliko "ingurumenarekiko errespetuzkoak" bezalako esaldi generikoak edo antzekoak. Hala, horretarako **irizpide zehatzak** erabiliko dira, kontratuaren xedearekin lotura dutenak eta neurgarriak eta zehaztuta daudenak, lizitatzailerik guztiek modu homogeneoan interpretatu ahal izateko irizpidea eta balorazio modua. Horrez gain, "edo baliokidea" esaldia erabili beharko da ISO, UNE eta bestelako estandar kalitateei buruz ari bada.

### 2.-JARRAIPENA.

1.- Kontratuaren egikaritzea berrikusteko eta prestazioa zuzen ematen dela bermatzeko kontratazio organoak izendatutako arduradunak edo erakundeak egingo du enpresa edo erakunde adjudikaziodunak hartutako kontratu betebeharrak betetzen dituenaren jarraipena, kontratu honetan zehaztutakoa betez.

2.- Kontratuaren arduradunak edo obra zuzendariak (mota horretako kontratuetan) aldizka berrikusiko du pleguan zuzenean adjudikaziodunari ezarri zaizkion ingurumeneko betebeharrak edo adjudikaziodunak eskainitakoak bete direla, baita indarrean dagoen ingurumen legeriatik eratorritakoak ere.

3.-Kontratuaren arduradunak kontratazio organoari kontratuan aurrez ikusiak dauden eginbeharrak ez betetzearen berri emango dio eta, bidezkoa bada, zehapenak jartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea proposatuko du.



4.- Interesa duen edonork detektatzen baldin badu kontratistaren batek ingurumen araubidea edo aplikatu beharreko kontratuaren betebeharrak betetzen ez dituela, salaketa edo erreklamazioa egin ahal izango du. Salaketa horiek egin ondoren egiaztaketa materiala egingo da, eta kontratuaren arduradunak berariazko txostena egingo du.

5.- Edonola ere, kontratuaren arduradunak egiaztatuko du enpresa kontratistak bete egiten duela plantillan 50 langile edo gehiago baldin badaude langileen % 2 desgaitasuna dutenak izateko betebeharra eta berdintasun Plan bat izateko legezko edo ohiko betebeharra duten enpresek plan hori xedatu dutela ere egiaztatu beharko du.

6.-Kontratatzaileak azken fakturarekin batera aurkeztu beharko du **erantzukizunpeko adierazpena/zinpekoa**, eta horren bitartez egiaztatuko da legez edo kontratuz eskatu ahal zaizkion egikaritze konpromisoak eta baldintza berezi guztiak bete dituela, neurri horiekin lotuta. Adierazpen horrekin batera aurkeztuko du kontratuaren arduradunak horri buruz egindako txostena, eta bertan aztertuko da eraginkortasunez bete direla aintzatetsitakoa eta kontratuaren gainerako betebeharrak.



## (17) AGIRIA: INGURUMENEN EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIA

**KONTRATUETAN GEHITZEKO:** Kontratu mota guztietan.

**GEHITZEKO AGIRIA:** Administrazio Klausula Berezien Plegua.

**\*\* 1. oharra.** Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 202.2. artikuluan hauxe dago zehaztuta: “Berariaz, honako helburuak bilatzen dituzten ingurumen kontuak ezarri ahal izango dira besteak beste: Berotegi efektuko gasen emisioa murriztea Ekonomia Iraunkorreko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 88. artikuluan zehaztutako helburua betez; kontratua egikaritzean eraginak jasan ditzaketen ingurumen balioak mantentzea edo hobetzea; ura modu iraunkorragoan kudeatzea; energia berriztagarriak erabiltzea sustatzea; produktuak birziklatzea sustatzea eta berrerabilgarriak diren ontziak erabiltzea; produktuak soltean entregatzea sustatzea eta ekoizpen ekologikoa sustatzea”.

Aurretik adierazitako artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako eta kontratuen xede eta mota ezberdinei erantzunez proposatu da egikaritze baldintza berezi bezala gutxienez hauek gehitzea:

### HORNIDURA KONTRATUAK

Hornidura kontratueta ingurumen klausulak gehitu ahal izango dira emate baldintzetan. Kontratu baten ingurumen inpaktua murrizteko metodo sinpleen barne hauek daude:

- Produktuaren kantitate egokia hornitzea. Askotan kantitate handiko hornidurak izango dira, betiere kantitate handiak garraiatzeak ingurumena gehiago errespetatzen baldin badu kantitate gutxiagoko hornidurak maizago garraiatzearen orde. Astero edo hilero gehienez ere egingo diren emate kopuruak adieraztea emaitza bera lortzeko beste aukera bat izan daiteke.
- Eskatzea produktuak trafiko gehien egon ohi diren orduetatik kanpo hornitzea, hornidura horiek emateak ahalik eta gehien murrizteko trafikoaren gehikuntza.
- Eskatzea hornitzaileak produktuak dakarren enbalaje guztia jasotzea, birziklatzea eta berriz ere erabiltzea. Horren ondorioz, onura bikoitza egongo da, hain zuzen ere enbalaje hori zentralizatzea berrerabili edo birziklatu aurretik eta hornitzailea bultzatzea beharrezkoa ez den enbalaje guztia deuseztatzeko.
- Produktua hornitzean sortutako berotegi efektuko gasen emisioari buruzko informazio guztia ematera derrigortzea hornitzailea, eta kontratuak irauten duen bitartean emisio horiek gutxitzeko hartutako erabakiak adieraztera derrigortzea. Azken hori ez da aplikatuko hornidura puntual bakarra duten kontratuetan.

### KONTRATU MOTA GUZTIETAN

#### 1.- ONTZIAK ETA ENBALAJEAK BILTzea

“Adjudikaziodunak kontratua egikaritzean sortutako hondakinak **gaika biltzeko** ardurak izango du. Era berean, enbalaje eta ontzi hutsak kendu beharko ditu dagozkien edukiontzietan jartzeko, eta hala badagokio garbigunean edo baimendutako bestelako hondakinak kudeatzeko sisteman”.

#### 2.- ZABOR POLTSAK .

“Adjudikaziodunak kontratua egikaritzeko material biodegradagarriarekin edo birziklatuarekin egindako poltsak edo ingurumenari dagokionez onuragarriak diren beste materialez egindako poltsak erabili beharko ditu”.



### 3.- ENBALAJE BIRZIKLAGARRIAK.

"Enpresa adjudikaziodunak bermatu egingo du kontratuan beharrezkoak diren produktu guztiak material birziklagarriekin enbalatuta daudela".

### 4.- ALTZARIAK

"Enpresa adjudikaziodunak bermatu egin beharko du oinarritzko lan baldintza eskubideak betetzen direla horniduraren ekoizpen katean zehar eta lizitatzailleak Laneko Nazioarteko Erakundearen Hitzarmenak betetzea bermatzeko dituen kontroleko mekanismoetan. Horretarako, FSC, PEFC edo baliokideak diren ziurtagiriak aurkeztuz egiaztatu beharko du erabilitako egurra ziurtatutako kudeaketa iraunkorreko basoetatik eta/edo bidezko merkataritzatik datorrela".

### 5.-PAPERAREN ERABILERA

"Kontratua egikaritzean sortzen den dokumentazio guztia (txostenak, gorabeheren parteak, etab...) euskarri informatikoan egin eta hedatu beharko da, inprimatzea ahalik eta gehien murrizteko".

### 6.- OBRA KONTRATUETAN

- Obra hondakinak kudeatzea

"Obra edo mantentze jarduketa guztietan hondakinen kudeaketa bermatuko da. Hondakinak banatuko dira arauz ezarritako bilketa sistemaren arabera. Hondakin bereziak bilketa zentro batek edo baimendutako kudeatzaileak kudeatuko ditu".

### JARRAIPENA

1.- Kontratuaren egikaritzea berrikusteko eta prestazioa zuzen ematen dela bermatzeko kontratazio organoak izendatutako arduradunak edo erakundeak egingo du enpresa edo erakunde adjudikaziodunak hartutako kontratu betebeharrak betetzen dituenaren jarraipena, kontratu honetan zehaztutakoa betez.

2.- Kontratuaren arduradunak edo obra zuzendariak (mota horretako kontratuetan) aldizka berrikusiko du pleguan zuzenean adjudikaziodunari ezarri zaizkion ingurumeneko betebeharrak edo adjudikaziodunak eskainitakoak bete direla, baita indarrean dagoen ingurumen legeriatik eratorritakoak ere.

3.-Kontratuaren arduradunak kontratazio organoari kontratuan aurrez ikusiak dauden eginbeharrak ez betetzearen berri emango dio eta, bidezkoa bada, zehapenak jartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea proposatuko du.

4.- Interesa duen edonork detektatzen baldin badu kontratistaren batek ingurumen araubidea edo aplikatu beharreko kontratuaren betebeharrak betetzen ez dituela, salaketa edo erreklamazioa egin ahal izango du. Salaketa horiek egin ondoren egiaztaketa materiala egingo da, eta kontratuaren arduradunak berariazko txostena egingo du.

5.- Edonola ere, kontratuaren arduradunak egiaztatuko du enpresa kontratistak bete egiten duela plantillan 50 langile edo gehiago baldin badaude langileen % 2 desgaitasuna dutenak izateko betebeharra eta Berdintasun Plan bat izateko legezko edo ohiko betebeharra duten enpresek plan hori xedatu dutela ere egiaztatu beharko du.

6.- Kontratatzailleak azken fakturarekin batera aurkeztu beharko du **erantzukizunpeko adierazpena/zinpekoa**, eta horren bitartez egiaztatuko da legez edo kontratuz eskatu ahal zaizkion egikaritze konpromisoak eta baldintza berezi guztiak bete dituela, neurri horiekin lotuta. Adierazpen horrekin batera aurkeztuko du kontratuaren arduradunak horri buruz egindako txostena, eta bertan aztertuko da eraginkortasunez bete direla aintzatetsitakoa eta kontratuaren gainerako betebeharrak.



## II. ERANSKINA

### ETE-AK ETA AUTONOMOAK



SPKLren 1.3. artikuluan eta aplikatu beharreko gainerako araubidean xedatutakoarekin bat eginez, hizpidera ekarriko diren neurriak hauek dira:

- 1.- ETE-ek Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio prozeduretan parte hartzeko sustapenerako Foru Plana.

#### 1.1.-Prestakuntza ekintzak

#### 1.2.-ETE-entzako kontratazio gida

- 2.- Foru kontratazio jarduerari buruzko aurretzako eta egokitutako programazioa eta informazioa.
- 3.-Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio prozedurei buruzko dudak ebazteko sistema elektronikoa.
- 4.- Kontratuen tamaina egokitzea kontratuetan ETE-ek parte hartzea errazteko
- 5.-Kontratuen tamainari eta ETE-ek egokitutako gaitasun eta kaudimen irizpideak ezartzea.
- 6.-Kontratazioetan parte hartzeko informazioa zehatza, argia eta nahikoa izatea.
- 7.-Kargak murriztea behin betiko bermeetan.
- 8.-Kontratuetatik eratorritako fakturak 30 egunean ordaintzen direla bermatzea
- 9.-Adjudikaziodunak kontratistei epeen barne ordainketak egiten dizkiela bermatzeko neurriak.

### 1.- ETE-ek Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio prozeduretan parte hartzea sustatzea prestakuntza eta informazio neurrien bitartez

Bizkaiko Foru Aldundiak enpresa txiki eta ertainak, mikroeteak, kooperatibak eta/edo autonomoak batzen dituzten Bizkaiko enpresa elkarteekin batera sustatuko du prestakuntza ekintzak ezartzea ETE-ek kontratazio publikoko prozeduretan sartzeari buruzko orientazioa emateko, baita aldi baterako enpresa elkarteek (ABEE) kaudimen irizpideak betetzeko dituzten aukerei buruzkoa ere.

Bukatzeko, prestakuntzari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiak Kontratazio Gida bat **sortuko du** berriaz ETE-entzat, eta doan banatuko du.

### 2.- Foru kontratazio jarduerari buruzko aurretzako eta egokitutako programazioa eta informazioa.

SPKLren 28.4. artikulua sektore publikoko erakunde guztiei eskatzen die aurrekontu ekitaldian zehar edo urte anitzeko aldietan gauzatu duten kontratazio publikoko jarduera programatzeko.

**Aurrekoaren ondorioetarako**, urte natural bakoitzeko lehen hiruhilekoan edo, hala balegokio, laugarren hiruhilekoan, kontratatzailearen profileen edo Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio plana argitaratuko da. Bertan gutxienez jasota egon beharko dira araubide bateratuari lotuta egongo diren kontratuak aurrekontu ekitaldirako edo urte anitzeko aldietarako, SPKLren III. eranskinean jasotako edukiekin.



Era berean, bultzatu egingo da kontratazio prozedura guztietako jakinarazpen sistema automatizatua kontratatzailearen profilean txertatzea eta aurretik izena emanda mezu elektronikoko bidez bidaliko zaie esteka Bizkaiko Merkataritza eta Industria Ganberari, enpresari, ETE-en elkarteei eta eskatzen duten autonomoei.

### **3.-Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio prozedurei buruzko dudak ebazteko sistema elektronikoa.**

Bizkaiko Foru Aldundiak lizitazio prozeduran interesa duten guztiei bidaliko die gehienez ere eskaintzak aurkezteko epea bukatu aurretiko 6 egun aurretik horiek pleguei eta dokumentazio osagarriari buruz eskatutako informazio guztia, betiere proposamenak edo parte hartzeko proposamenak aurkezteko epea bukatu baino 12 egun aurretik eskatu baldin badute, pleguetan beste eperen bat ezarrita egon ezean.

Hala ere, **larrialdizko espedienteetan** eskaintzak aurkezteko epea bukatu aurretiko sei eguneko gehieneko epea gehienez ere 4 egunekoa izango da, obra, hornidura eta zerbitzu kontratuen epea bukatu arte, horiek araubide bateratuari lotuta badaude eta prozedura ireki eta mugatu bidez adjudikatzen baldin badira.

Eskatutakoa pleguetan eta gainerako dokumentazioan zehaztutakoari buruzko azalpenak baldin badira eta administrazio baldintza berezien pleguak hala zehazten baldin badu, **erantzunak lotesleak** izango dira eta kasu honetan publikoak egin beharko dira kontratatzailearen profilean, lizitazio prozeduran berdintasuna eta lehia bermatzen duten terminoetan.

### **4.- Kontratuen tamaina eta egikaritze epea egokitzea kontratuetan ETE-ek parte hartzea errazteko**

Kontratuen xedea irizpide funtzionaldun, geografikodun edo ekonomikodun loteetan banatzea legez ezarritako muga barnean **arau orokorra** izango da Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio publikoetarako. Aurrekoa gorabehera, kontratazio organoak kontratuaren xedea loteetan ez banatzeko aukera izango du arrazoi baliozkoak daudenean, eta horiek behar bezala justifikatu beharko dira espedienteetan.

**Edonola ere** kontratuaren xedea loteetan ez banatzea justifikatzeko baliozko arrazoiak izango dira hauek:

- a) Kontratuaren xedea loteetan banatzea arriskutsua izatea eskumena justifikaziorik gabe mugatzeko.
- b) Kontratuaren xedearen barneko prestazioak modu independentean egiteak kontratua zuzen egikaritzea oztopatzen baldin badu ikuspuntu teknikitik; edo kontratua zuzen egikaritzearen arriskuaren arrazoiak kontratuaren xedearen izaeratik eratorritzen denean, prestazio ezberdinen egikaritzea koordinatu behar izatea ekartzen baitu, eta hori beharbada ezingo litzateke egikaritu loteetan banatzeagatik, eta kontratista ezberdinen pluraltasunagatik egikaritzea.

Aurrekoaren ondorioetarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren Sail ezberdinetako zerbitzuek kontratua loteetan banatzen dela edo behar bezala justifikatzen dela zainduko dute. **Loteetan ez banatzeko justifikazioa kontratatzailearen profilean argitaratuko da Sektore publikoko kontratuen Legeak ezarri bezala.**

Bukatzeko, eta atal honi dagokionez, lehia eraginkorra oztopatuko duten egoerak saihesteko eta arrazoi hori jakinaraziz espedientearen justifikazio txostenean, pleguetan sustatu egingo da enpresa batek eskaintzak aurkeztu ahal dituen lote kopurua edo adjudikazioduna izan daitekeen kopurua guztien lehia onartzen baldin bada. Hala, pleguetan adieraziko dira baita ere enpresa lizitatu bakoitzari adjudikatuko zaizkion loteak zehazteko irizpide objektiboak eta ez diskriminatzaileak, adjudikazio irizpideak aplikatzean enpresa bati adierazitako gehieneko loteak baino gehiago adjudikatzen baldin bazaizkio.

**Kontratuen iraupen epea** bere xedea gauzatzeko beharrezkoak diren finantzazio eta inbertsioen ezaugarrien arabera zehaztuko da, eta baloratu egingo dira baita ere prestazioen ezaugarriak eta prozeduren eraginkortasuna. Horrez gain, kontratu mota bakoitzarentzat legez ezarritako gehienekora ez da iritsiko hori egitea beharrezkoa ez baldin bada kontratua egikaritzeko inbertsioa amortizatu ahal izateko. **Hori guztia lehiadun prozeduren aldizkakotasuna gehitzeko helburuarekin.**





## 5.-Kontratuen tamainari eta ETE-ei egokitutako gaitasun eta kaudimen irizpideak ezartzea.

Eskatutako sailkapen eta kaudimen irizpideak kontratu bakoitzaren irismen material eta ekonomikoarekiko proportzionalak izango dira, eta hala dagokionean lote bakoitzari egokitutakoak. Hala, kontratua egikaritu ahal izateko beharrezkoa den gutxienekoa ezarriko da eta enpresek dituzten eta eman daitezkeen agiri sinpleak eskatuko dira.

Pleguetan ABEEaren barneko enpresa bakoitzak kontratuan lehiatzeko izan beharreko gutxieneko kaudimena zehaztuko da. Horrez gain, kanpoko baliabideekin osatu ahal izateko gutxieneko kaudimena ere zehaztu egingo da, baita eskatutako gaikuntzarik, baimen profesionalik edo sailkapenik ez duen prestazio zehatzak azpikontratatzeko aukera ere.

Bukatzeko, orokorrean ez dute aurkeztu beharko kaudimen ekonomikoa eta finantzazkoa eta ez dute egiaztatu beharko gaitasun teknikoa eta profesionala **80.000 euro** baino gehiagoko balio estimaturik ez duten obra kontratuek eta gainerako kontratuek, balio estimatua **35.000 euro** baino gutxiagokoa dutenek, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araubide Orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 11.5. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

## 6.-Kontratazioetan parte hartzeko informazioa zehatza, argia eta nahikoa izatea.

Bizkaiko Foru Aldundiak eskatzen duen kontratuen xedea eta prestazioen irismena definitzea zehaztasun eta doitasun gehienarekin egin beharko da eta prezioa zehaztu beharko da lizitazioaren oinarritzko aurrekontua **merkatuko prezioekin bat datorrenean**. Horretarako, lizitazioko oinarritzko aurrekontua banatzeko administrazio klausula berezien pleguan jaso beharko dira kostu zuzenak eta zeharkakoak eta berau zehazteko kalkulaturako gainerako gastuak. Kontratua egikaritzeko langileen soldaten kostuek kontratuaren guztizko prezioaren zati bat osatzen dutenean, lizitazioko oinarritzko aurrekontuak banatuta eta generoaren eta kategoria profesionalaren arabera sailkatuta adieraziko ditu erreferentziazko sektore hitzarmenetik eratorritako soldaten kostu estimatuak.

Era berean, pleguetan modu ulerkorrean zehaztuko dira kontratatu nahi diren prestazioen irismen zehatza eta horiekin bete nahi diren beharrak.

Bereziki modu argian zehaztuko dira **eskaintzen balorazio irizpideak** eta horiek neurtzeko modua, lizitatuzaile guztiek ulertzeko moduan. Era berean, zehatz-mehatz adieraziko dira hala badagokio onartu daitezkeen hobekuntzak eta/edo aldagaiak, aurreikusitako kontratuaren baldintzak eta aldaketen irismenak eta luzapen posibleak.

Baldintza teknikoen pleguak sortzeko legezko baldintzak zehatz-mehatz beteko dira, eta lehiaren zehaztapen mugatzaile guztiak saihestuko dira. Pleguetan, dokumentazio osagarri bezala gehituko dira datu numerikoak, memoriak, planoak, eta abar, kontratuaren xedearen irismena zorrozki aztertu ahal izateko beharrezko informazioarekin batera, eta eskaintzak egiteko Bizkaiko Foru Aldundiak horrekin estali nahi dituen beharrak ere gehituko dira.

Kontratatutako kontratatu nahi dituen prestazioei eta horien baldintzei buruzko ezagutza zehatza izateko beharrezko informazioa jasotzen duten agiri guztiak Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratatzailearen profilean argitaratuko dira gutxienez eskaintzak aurkezteko epean zehar.

## 7.-Kargak murriztea behin betiko bermeetan.

Hauek dira finantza kargak murrizteko neurriak, ETE-ek kontratazio publikoan parte hartzea sustatuko dutenak:



- Behin betiko bermea **EZ eskatzea** sustatuko da, gutxienez zenbateko txikia duten kontratueterako, eta bereziki ondoren zerrendatuko diren 3 kontratu motentzako. Modu horretan erraztu egingo da ETE-ek gutxieneko finantza kostuekin parte hartu ahal izatea.
  - Kontsumitu daitezkeen ondasunen hornidura, horien ematea eta jasotzea prezioa ordaindu aurretik egin behar denean,
  - Gizarte zerbitzuak ematea edo gizarte bazterketa egoeran egoteko arriskua duten kolektiboetako pertsonak gizartearen edo lanean txertatzea xede duten kontratuak
  - Kontratu pribatuak.
- Ofizioz bermea itzultzea bultzatuko da kontratua bukatu eta 6 hilabete igaro ondoren eta berme epea gainditutakoan kontratua 1.000.000 eurotik beherakoa denean obra kontratuak direnean edo 100.000 eurotik beherakoa denean gainerako kontratuentzat.
- Edonola ere, kontratua bukatu eta berme epea igaro ondoren 6 hilabeteetan itzultzea bultzatuko da enpresa lizitatuzaileek enpresa txiki edo ertainen baldintzak betetzen dituztenean.
- Bukatzeko, kontratuaren izaerak hala ahalbidetzen duenean eta AKBPen hala aurreikusita dagoenean, behin betiko bermea **PREZIOA GORDEZ** egitea bultzatuko da.

## 8.-Kontratuetatik eratorritako fakturak 30 egunean ordaintzen direla bermatzea

Bizkaiko Foru Aldundiak kontratu guztiak 30 eguneko epean ordainduko dituela bermatzen du fakturak faktura elektronikoen puntu orokorrean jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. Hala ere, kontratuan arazoituta xedatu baldin bada onartze edo egiaztatze prozedura bat egingo dela ondasunen edo zerbitzuen adostasuna egiaztatzeko kontratuan xedatutakoaren arabera, iraupena ezin izango da 30 egun natural baino gehiagokoa izan ondasunak eta zerbitzuen prestazioak jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Kasu horretan, ordaintzeko epea hogeita hamar eguneko izango da ondasunak edo zerbitzuak onartu edo egiaztatzetik aurrera kontatzen hasita, nahiz eta faktura edo ordainketa eskaria onartzearen edo egiaztatzearen aurretik jaso izan.

## 9.-Enpresa kontratistak azpikontratueti epeen barne ordainketak egiten dizkiela bermatzeko neurriak.

Bizkaiko Foru Aldundiak zainduko du enpresa kontratistak azpikontraturiko enpresei edo enpresa hornitzaileei hitzartutako prezioa epe jakin batzuetan ordaintzen diola, baina epe hori ezin izan daiteke 198. artikuluan administrazioaren eta kontratistaren arteko harremanetarako ezarritakoa baino laburragoa. Kontratista nagusiak faktura onesten duen egunetik aurrera zenbatuko da epea, hain zuzen ere azpikontratistak edo hornitzaileak emandako faktura. Gainera, fakturaren data eta epealdia agerraraziko dira.

Bukatzeko, enpresarien kaudimen ekonomikoa eta finantzazkoa egiaztatzeko SPKLren 87.1. artikulua a) b) eta c) hizkietan aurreikusitako **baliabideen osagarri** bezala, **bultzatu egingo da** administrazio klausula berezien pleguetan **eskakizun hau gehitzea**: enpresariaren hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak **ez du gaindituko**



horretarako Ogasun eta Funtzio Publikoko ministroaren aginduak ezarritako epea, kontuan hartuta berankortasunari buruzko araubidea, betiere galeren eta irabazien kontu laburtua aurkeztu ezin duen sozietatea baldin bada.